

21

EUSKADIKO GAZTERIA POLITIKAREN PROGRAMAZIO AGIRIA 2002-2005

#gazteplana#
— 2002-2005 —

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Euskadiko gazteria politikaren programazio agiria 2002-2005

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura, Gazteria eta
Kirol Sailordetza
*Gazteria eta Gizarte Ekintzarako
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Cultura,
Juventud y Deportes
*Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria*

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

Euskadiko gazteria politikaren programazio agiria 2002-2005. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz
: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del
Gobierno Vasco, 2005
p. ; cm. – (Gazte plana ; 21)
ISBN 84-457-2412-6
1. Jóvenes – Política gubernamental - Euskadi. I. Euskadi. Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria. II. Serie
364.65-053.81:351.84(460.15)

Argitaraturako tituluak:

1. EAEko Gazte Plana 1999-2001
2. Plan Joven de la CAV 1999-2001
3. Euskadiko bekak, dirulaguntzak eta sariak 2000
4. Becas, subvenciones y premios de Euskadi 2000
5. Euskadiko gazteak 2000
6. Juventud vasca 2000
7. EAEko II. Gazte Plana 2002-2005
8. II Plan Joven de la CAV 2002-2005
9. EAEko Gazte-elkartegintzaren liburu zuria 2003
10. Libro blanco del asociacionismo juvenil de la CAPV 2003
11. Gazte planak eta programak programatzeko eta balioztatze eskuliburua
12. Manual de programación y evaluación de planes y programas de juventud
13. Euskadiko gazteak 2004
14. Juventud vasca 2004
15. Gazteen aukerak etxebizitza eskuratzeko
16. El acceso de la juventud a la vivienda
17. Euskal gazte lankideen bizi-ibilbideak
18. Trayectorias vitales de la juventud cooperante vasca
19. Identitatearen eta politikaren kultura berri baterantz. Euskal gazteen joerak
20. Hacia una nueva cultura de la identidad y la política. Tendencias en la juventud vasca
21. Euskadiko gazteria politikaren programazio agiria 2002-2005
22. Documento programático de la política de juventud de Euskadi 2002-2005

Argitaraldia: 1.a 2005eko abendua
Ale-kopurua: 2.000
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposaketa: EPS, S.L.
Herminio Madinabeitia, 18-Pab. 3 – 01006 Vitoria-Gasteiz
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 (Pol. Ali-Gobeo) – 01010 Vitoria-Gasteiz
ISBN: 84-457-2412-6
LG: VI-509/05

AURKIBIDEA

0. Sarrera	9
1. Eusko Jaurlaritzaren sailetako programazio agiriak	13
Kultura Saila	15
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	40
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	48
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	53
Osasun Saila	60
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	65
Nekazaritza eta Arrantza Saila	70
Herrizaingo Saila	74
Lehendakaritza Saila	82
2. Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako programazio agiriak	85
Bizkaiko Foru Aldundia	87
Gipuzkoako Foru Aldundia	104

AURKEZPENA

II. Gazte Planaren aurre-pausuetako bat, I. Gazte Planaren aldean, deszentralizatutako programazioan eta ebaluazioan datza. Hartara, Gazte Planari atxikitzen zaizkion erakunde guztiek eta Eusko Jaurlaritzako sailek konpromisoa hartzen dute urtero egin beharreko ekintza positibo guzti-guztien programazioa lantzeko, horien gaineko ebaluazioa egiteko eta dagokion epean eta forman Gazte Planeko Zuzendaritza Batzordera bidaltzeko, Batzordeak aztertu eta balidatu dezan.

Kontuan har dezagun gazte politikaren diseinua planifikazio estrategikoan kokatzen dela, alegia, oinarritzko betebeharrei loturiko helburu orokorrak –epe ertainera eta epe luzera– zehazteko etapan, ezarpenaz arduratzen den erakundeak finkatutako funtsezko printzipioak oinarri dutela.

Gazte politikaren elementu garrantzitsuenak oinarritzko printzipioak eta helburu orokorrak dira. Helburuok zehazteko, ordea, ezinbestekoa da lehentasunezko arazo eta beharrianak identifikatzea. Eginkizun hori errazteko eta homogeneizatzeko, Gazte Planak eta Programak programatzeko eta balioztatzeko Eskuliburua (EAEko Gazte Planaren Eredua) adostu zuen Zuzendaritza Batzordeak berak. Eskuliburuak, besteak beste, hainbat jarraibide ematen ditu gazterari begira sail bakoitzak burutuko duen agiri programatiko bat lantzeko, eskumeneko esku-hartzeak egiteko erreferentziazko esparru gisa. Jarraibide horiek direla-eta sortu da bilketa hau, zeinean jasota baitaude gazte politika integralaren eremuan Eusko Jaurlaritzako sail guztiek eta 2002-2005 aldian II. Gazte Planari atxikitako beste erakundeek egin dituzten ekarpenak.

Sailetan behin baino gehiagotan erabili dugu agiri programatiko hori II. Gazte Plana indarrean egon den urteetan (eta Jaurlaritzako sail baten izenean mintzatzen naiz, hau da, gazteriaren alorrean eskumena esleitua duen sailaren izenean). Alde batetik, balio izan digu aurrekontu-ekitaldi bakoitzean lehentasunezko esku-hartzeak bideratzeko, hau da, Zuzendaritza Batzordearen aurrean urtero hartu ditugun konpromiso politikoak gazte politikaren inguruan. Bestetik, aurrekontu-ekitaldiak bukatutakoan esku-hartzeak autoebaluatzeko baliatu dugu.

Bestalde, Euskadiko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeko presidentea naizen aldetik, esperientziak erakutsi dit agiri programatikoak oso baliotsuak izan zaizkigula programazio guztiak aztertzeke eta, hortaz, koordinazio maila eta II. Gazte Planean aurreiku-

sitako ekintzekiko lotura maila aztertuz, dagozkion urteko txostenak lantzeko eta onartzeko. Era berean, ebaluazio guztiak aztertzearekin batera, behar bezala landu ahal izan dugu aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko jarraipen-txostena, non aztertzen baita enplegua, hezkuntza eta informazio gizartea sustatzeko politikek zein koordinazio maila duten II. Gazte Planaren helburuekin, eta politika horien bateragarritasuna baloratzen den.

Komeni da gogoratzea, baita ere, agiri programatiko hauek oso baliagarriak direla sail eta erakunde guztientzat, Eusko Legebiltzarreko Emakumearen eta Gazteriaren Batzordearen eskariz agerraldiak egin behar ditugunean, bertan euskal gazteriaren inguruan burutzen ari garen politikagintzaren berri eman behar baitugu.

Ezin aurkezpen hau bukatu, argitalpen honen edukiaren gaineko hiru alderdi azpimarratu gabe: lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet, eta merezi duten aitortza adierazi, bai Zuzendaritza Batzordeko kideei bai Batzorde Teknikoko kideei, azken urte hauetan egin duten ahaleginagatik. Bigarrenik, dokumentu hau argitaratzean euskal erakunde publikoak betetzen ari gara II. Gazte Plana onartu genuenean harturiko konpromisoa. Hirugarrenik, behar bezala baloratu behar da lehenengo aldia dela sail guztien iritzi politikoa jasotzen duguna, bakoitzak bere eskumenaren esparruan euskal gazteen beharrian eta eskabideen inguruan eman beharreko erantzunei buruz.

Nahiz eta II. Gazte Planaren indarraldia amaitzeaz dagoen, interesgarria iruditu zaigu 2002-2005 aldiari buruzko bilketa programatiko hau argitaratzea. Izan ere, berezko balio dokumentala ez ezik, oso erreferentziagune garrantzitsua baita, bai Euskadiko erakunde eta instituzioentzat bai beste erkidego edo herrialdeentzat ere; horixe erakusten dute dokumentua jasotzeko iristen zaizkigun eskari gero eta ugariagoek, alde batetik beste eremu geografikoetan eredutzat hartu nahi dutelako, eta baita ere, bestetik, gazteriaz kanpoko jardun-eremuetan erabilgarri izan daitekeelako.

MIREN AZKARATE

Kultura sailburua

Euskadiko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeko presidentea



0

Sarrera

Euskadiko Gazte Planaren helburua da jardun-lerro eta neurri batzuk ezartzea, euskal gazteen egoerari erantzun integrala emateko. Planean proposatzen diren jardueretako batzuk Plana ezarri aurretik ere abian jarrita zeuden arren, bere bitartez gazteriari begira bideratutako lehentasunezko ekintzak bildu dira; hartara, adostutako diagnostikoa abiapuntutzat hartuta, koherentzia eta garapena eman zaio programa-multzoari.

Gazte politika, ordea, zentzu zabalean ulertuta, Gazte Planean jasotako ekintzez harantzago doa: gazteen oraingo eta etorkizuneko bizi-baldintzak baldintzatzen dituzten ekintza publikoak ere biltzen ditu. Jardunbide global hori azaltzen du dokumentu honek, Gazte Plazaren beraren osagarri gisa.

Horrenbestez, Gazte Planaren Idazkaritzak dokumentu honetan jaso ditu bai Eusko Jaurlaritzaren barruan bai Foru Aldundien barruan gazteei zuzendutako jardunbide globala daramaten sailen dokumentu deskribatzaileak, "Gazte Planak eta Programak programatzeko eta balioztatzeko Eskuliburuak" azaltzen duen ereduaren arabera.

Horrenbestez, sailen dokumentu programatikoak honako atalez osaturik daude:

- ▶ Esparru teorikoa (esku-hartzeak bideratzeko oinarrizko printzipioak).
- ▶ Erantzukizunak esleitzea.
- ▶ Eskumeneko alorrean gazteriak duen egoeraren gaineko diagnostikoa (arazoak eta betebeharrak antzematea).
- ▶ Sail bakoitzaren gazte politikari buruzko helburuak zehaztea.
- ▶ Helburuok lortzeko ekintza edo programak, baita Gazte Planekoak eta beste batzuk ere, dagozkien aurrekontuak eta guzti. Erreferentzia moduan, II. Gazte Planaren aldiko erdiko urteren bateko datuak hartu dira, eskuarki 2004. urtekoak, bestelakorik adierazten ez bada.
- ▶ Gazte politikaren jarraipena eta ebaluazioa.

Ondorioz, Euskal Administrazio Publikoen ekarpen-bilduma honek Euskadiko Autonomia Erkidegoko gazte politikagintzaren lehenengo ikuspegi globala eskaintzen du.



1

**Eusko Jaurlaritzaren
saiiletako programazio
agiriak**

EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILA

1. MARKO TEORIKOA

Gazteriari zuzenduta eginiko jardueretan, Kultura Sailaren esku-hartzea zuzendu duten printzipioen artean aipatu beharra dago:

- ▶ Gaztaroa luzatzeak ezinbesteko egiten du neurriak hartzea gazteen emantzipazioa galarazten duten oztopoak desagerrarazteko.
- ▶ Gazteen errealitate sozialak politika orokorrak eskatzen ditu, aisialdian oinarritutako orain arteko politiketatik harantzago joanda.
- ▶ Gazteengan eragiten duten politikak lantzen dituzten sail eta erakundeen artean eta gazteriarekin lotutako administrazio eta eragile sozialen artean beharrezkoa da lan-kidetza eta koordinazioa.
- ▶ Gazteriari zuzendutako politikek gazteen autonomia ere bultzatu behar dute, gazteen ekimena eta kreatibitatea, mugikortasuna, aisialdia... erraztuz.

Horrela bada, Kultura Sailak bidea eman nahi dio gazteen esku-hartzeari, izan ere funtsezko balioa deritzo, ezin baita gazteengan eragin nahi duen jarduerarik planteatu gaztearekin berarekin kontatu gabe. Esku-hartzea ez da gazteei eginiko galdeketara mugatu behar, beharrezkoa da erabakiak hartzerakoan ere parte-hartzea.

Gazteriaren alorrean esku-hartzerakoan lortu nahi diren helburuak ekitatea eta eraginkortasuna dira. Horrek esan nahi du gazte guztiei aukera berberak bermatu behar zaizkiela beren giza potentziala ahalik eta gehien garatu dezaten eta gizartearentzat onura handiak ere lortu ahal ditzaten, besteak beste osasun-mailak hobetzea, etorkizunean giza ondare horri etekin handiagoa ateratzea edota gazteen marjinazioa murriztea.

2. ARDURA POLITIKOAK ESLEITZEA

2.1. *Kultura Saila: Kultura sailburua*

- ▮ Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetza:
 - Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea
 - Kultura Ondarearen zuzendaria
 - Kultura Sortu eta Zabaltzeko zuzendaria
 - Kirol zuzendaria
 - Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendaria
- ▮ Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza:
 - Hizkuntza Politikarako sailburuordea
 - Euskara Planen zuzendaria
 - Euskara Sustatzeko zuzendaria
 - Koordinaziorako zuzendaria.

2.2. *Euskadiko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea*

- ▮ Lehendakaria: Kultura sailburua
- ▮ Lehendakariordea: Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea
- ▮ Idazkaria: Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendaria

3. GAZTEEN EGOERAREN DIAGNOSIA

Biztanleen Udal Errolda oinarri hartuta INEk adierazitako azken datuek diotenez, EAE-ko 15 eta 29 urte bitartekoek biztanleria osoaren (2.100.441 pertsona) % 22,8 osatzen dute (478.767 pertsona), honela banatuta:

- ▮ 15-19 urte bitartekoak, 130.560 pertsona
- ▮ 20-24 urte bitartekoak, 174.180 pertsona
- ▮ 25-29 urte bitartekoak, 174.027 pertsona

Familiarengandik emantzipatzeko, nor bere etxebizitza edukitzeko edota bikoteak osatu eta sendotzeko adina horrenbeste atzeratzeak ondorio kaltegarriak ditu gazteengan eta egoera “berria” sortu du talde horretan. Hona hemen ezaugarriak:

- ▮ Pertsona gazteen autonomia handitu da, baita etaparik goiztiarrenetan ere.
- ▮ Gaztaroa luzatzea. Gaztaroa oso goiz hasten da (aldaketa sozio-kulturalak direla eta) eta helduarorako trantsizioa luzatu egiten da, emantzipaziorako eredu aldatu egin delako: trantsizio zabala, itxaropenak etengabe egokitzea eta atalase publikoen (eskolatik lanera igarotzea) eta atalase pribatuen (gurasoen menpe egotetik bizileku-autonomia izatera pasatzea) artean loturarik ez egotea. Horregatik bada, zenbait ka-

sutan pertsona gazteak helduak izaten dira, baina beste zenbaitetan gazteak izaten jarraitzen dute, hau da, gehienetan menpekoak.

- ▶ Bazterketa sozialaren sentsazioa. Ezin badu lanposturik lortu, ezin badu nor bere etxebizitza eduki, gizakiak ez du benetako independentziarik eta autonomiarik izango eta, ondorioz, zailtasunak izango ditu gizaki modura benetan gizarteratzeko eta marjinazio, ezegonkortasun eta bazterketa sozialerako arrisku handiagoa izango du.

Euskadiko Gazteak 2004 azterlanean azaltzen denez, “EAEko gazteek aipatzen dituzten kezka nagusienak ondorengoak dira: lana (% 61) eta etxebizitza (% 59). Bi gai horiek ziren 2000an ere aipatuena, nahiz eta etxebizitza ordutik (% 31,2) hona aipamenetan asko igo (% 59)”.

- ▶ Gazte talde ahuletan krisiak duen eragina handiagoa da. Gizarteratzeko gaitasun gutxien duten giza segmentuetan eragiten du batik bat bazterketa sozialak: estatus baxuko gazteengan, hezkuntza maila gutxikoengan, ezgaitasunen bat dutenengan, arazoak dituzten familietako kideengan, emakumeengan eta abar.
- ▶ Arrisku-faktoreak areagotzea. Gazteriak hurbilago ditu arrisku sozialak: ohitura eta bizimodu kaltegarriak, drogak, bortizkeria, trafikoko istripuak eta jokabide suntsitzailerak. Gaztaroa erabakiorra da gizakiaren garapenerako: garai horretan finkatzen dira portaerazko jarraibideak eta bere bilakaerarako funtsezko esperientziak.

Laburbilduta: helduarora egin beharreko azken trantsizioa atzeratu egiten da, gazteek ez dute beren bizitzan garai hori argi eta behar den bezala ikusten, trantsizio garaia izan beharko lukeena gero eta gehiago da egonaldi luzea, zentzua berez duen erabateko garaia, gainera, pertsonen bizitzan sendotu egingo dena.

3.1. Gazteen egoeraren diagnostika kulturarekiko

Kulturaren alorrari dagokionez, aniztasuna da gazteen ezaugarri nagusia. Aniztasuna kultura sortzerakoan, eta bai kultura kontsumitzerakoan ere.

Kulturgintza hainbat dimentsiotan adierazten den errealitatea da eta dimentsio horiek euren artean lotutako etapak osatzen dituzte, hala nola kulturaren prestakuntza, sorkuntza, ekoizpena, zabalkundea, sustapena, banaketa eta kontsumoa.

Kultura sektore guztien jarduerak aipatutako etapa horiek guztiak pasatzen dituzten arren, sektore bakoitzak, etapa bakoitzean, izan ditzakeen esku-hartze beharrak eta gabeziak oso bestelakoak ere izan daitezke.

- ▶ Kulturaren sorkuntzari dagokionez, beharrezko ikusten da xede diren publikoak behar bezala segmentatu eta identifikatutakoan benetako komunikazioa lortzea; eta beharrezkoa da, halaber, kultura sortu eta zabaldu ahal izateko beharrezko azpiegiturak eta bitartekoak bultzatzea, eta azkenik, defizitarioenak diren sektoreak sustatu eta horiei laguntza ematea.
- ▶ Kultura-politika proiektu enblematikoz garatzeaz gainera, badago ekoizpenerako eta zabalkunderako baliabide xumeagoz osatutako sarearen beharra.

- ▶ Kulturaren kontsumoari dagokionez, kulturaren kontsumoa erraztu eta kultura kontsumitzen irakatsi behar da.
- ▶ Kulturgintzaren dimentsio guztietan egon beharra daukan zeharkako elementua da euskara. Era berean, arreta berezia eskaini behar zaio gazteek kultura euskaraz sortzeari.

3.2. Gazteen egoeraren diagnosia kirolarekiko

Kirola dela-eta, erakundeek ezer gutxi dakite gazteen eskaera berrien beharrei buruz. Esandakoaren haritik, kirolaren inguruko bortizkeria gazteek nola ikusten duten ez jakiteak zailtasunak ekartzen dizkie erakundeei arazoari aurre egiteko neurriak abian jartzera-koan.

Azken urteotan gazteek kirola egiterakoan zituzten ohituretan aldaketak izan dira. Gazteek konpromiso handiagoa dute orain zenbait jolas-kirolekiko, alegia, horren konprometituak ez eta gainera indibidualistagoak diren jolas-kirolekiko, betiko kirolaren edo errendimenduko talde-kirolaren kalterako.

Prozesu horren arrazoiak honakoak dira: jaiotze-tasak behera egin du, gazteen bizitzeko modua aldatu egin da eta erosteko ahalmena, berriz, handitu.

Aldaketa horien ondorioz nagusia hau da: klub tradizionalak desagertzen ari dira, eskaintza ez dutelako dibertsifikatu eta, horrez gain, eremu naturala norgehiagokako talde-kirola dutelako.

- ▶ Esandakoagatik, bada, gazteen kirola egiteko ohituretan zer-nolako aldaketak izan diren aztertu behar da, erakundeen ekimen berriak bideratu ahal izateko.
- ▶ Klubak, federazioak eta erakunde publikoak ahalegindu egin behar dira gazteen eskaera berrietara egokitzen. Kirol arloko sektore pribatuaren birmoldaketa baliagarri izan liteke, nolabait, egin beharreko egokitzapena nola egin erakusteko.
- ▶ Kirol-ekipamenduen eskaintzari dagokionez, beharrezkoa da, lehenik eta behin, ohiko kirol-ekipamenduak gazteen beharretara (ordutegia eta tarifak) egokitzea; eta bigarrenik, Hurbileko Kirol-ekipamenduen eskaintza handitzen jarraitzea (azken urteotan horiek txertatzeak balorazio ona jaso du).

Beste alde batetik, ikusi da kirolean, maila eta kategoria guztietan, jokabide bortitzak daudela. Askotan komunikabideek eurek ematen diete oihartzun handiegia jarrera eta jokabide bortitz horiei eta denbora gutxiegi eskaini, berriz, kirolean joko garbiarekin lotutako jarrerak zabaltzeari.

- ▶ Erakundeen neurri zehatzagoez gain, kirolaren bortizkeriari irtenbide askoz ere orokorragoa eman behar zaio eta, batez ere, hezkuntzatik bertatik hasi behar da prebentzioa lantzen.

3.3. Gazteen egoeraren diagnosia euskararekiko

15 eta 29 urte bitarteko euskal gazteen % 56k nahiko ondo edo oso ondo hitz egiten dakite euskaraz. Gazteen % 8k baino ez diote ez dutela euskaraz batere hitz egiten, eta % 56k diote zertxobait edo hitzen batzuk badakizkitela. Euskaraz irakurtzeko eta idazteko gaitasuna antzekoa da (% 58 eta % 57, hurrenez hurren) eta ahozkoaren ulermen maila, berriaz, pixka bat handiagoa da (% 62k diote euskara nahiko ondo edo oso ondo ulertzen dutela).

Adin-talderik gazteenekoe (15 eta 19 urte bitartekoe), gipuzkoarrek eta euren burua euskalduntzat baino ez dutenek, hobeto dakite euskaraz gainerako taldeek baino (bai ahoz, bai idatziz). 2000. urtean ere eskema berbera izan zen. Esan beharra dago, hala ere, azken lau urteotan euskararen ezagutzak gora egin duela arlo guztietan.

EAEko gazteen erdiek euskaraz ondo edo nahiko ondo badakite ere, euskaldunen % 27k baino ez diote euskara hutsean aritzen direla edo gazteleaniaz baino euskaraz gehiago egiten dutela familiarrean eta lagunartean. Gazteek gaztelaniaz egiten jarraitzen dute gehienbat.

Era berean, euskal gazteen % 13k baino ez diote (ia) guztia euskaraz irakurtzen dutela edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago. Hemen ere ikusten da gazteek gehiago irakurtzen dutela gaztelaniaz euskaraz baino.

- ▶ Ondoriozta daiteke euskal gazteen artean euskaraz hitz egin gehiago egiten dela irakurri baino.
- ▶ Gazteen % 51 euskararen sustapen publikoa handitzearen aldekoak dira; hau da, gehienek uste dute euskal administrazioek gehiago inbertitu beharko luketela alor honetan. Gutxi batzuk (% 4) baino ez daude partida horiek murriztearen alde.
- ▶ Oro har, gazteen euskararen ezagutza eta erabilera hiru aldagairen baitan dago batez ere:
 - Lurraldea: Gipuzkoan dago zabalduen euskararen ezagutza eta erabilera, Araban dakite gutxien euskaraz eta gutxien ere bertan egiten da. Bizkaia erdibidean dago.
 - Adina: gazteenek euskarari buruzko ezagutza gehiago izanagatik, ez dute gehiago egiten euskaraz.
 - Identitate sentimendua: beren burua batez ere euskalduntzat dutenek gainerako gazteek baino gehiago dakite eta egiten dute euskaraz.

3.4. Aisialdiaren eta gazteentzako zerbitzuei buruzko diagnosia

Euskal gazteek diote lanegunetan aisiarako ordu asko daukatela, are gehiago azken lau urteotan. Gazteen % 46k diote aisialdian egunero lau ordu baino gehiago ematen dituztela. Gizonezkoek, 20 eta 24 urte bitartekoe, ezkongabeek, beren burua maila sozial baxukotzat dutenek eta batez ere, langabetuek dute aisialdirako denbora luzeena.

Euskal gazteek beren aisialdia erabiltzen dute batez ere familiarekin egoteko, telebista ikusteko, musika entzuteko, telefonoz hitz egiteko, sakelako telefono bidez edo e-mail bidez mezuak bidaltzeko, lagunekin egoteko, paseatzeko edo, besterik gabe, kalean egoteko. Asteburuetan ohikoa izaten da tabernaz taberna ibiltzea, eta noizean behin joatea diskoteketara, kultura eta kirol ikuskizunetara, mendira edo erosketak egitera. Euskal gazteek gutxien praktikatzen dituzten jarduerak honakoak dira: politiko-sindikalak, erlijiosoa eta/edo boluntario-lanekoak.

Elkarteren batekoa den gazteen portzentajea baxuagoa da 2000. urtekoa baino. Badi-rudi gizonezkoek, gazteenek eta beren burua maila sozial altukotzat dutenek asoziazio-nismorako joera handiagoa dutela.

Gazteek harremanak nolako elkarteekin izaten dituzten begiratzen hasiz gero, ikus daiteke gehienbat kirol-elkarteetako kide egiten direla (Europar eta Espainiar estatuan bezala). Ondoren eta hein txikiagoan, kultura-elkarteak, arte-elkarteak, txokoak eta jolas-elkarteak daude.

Gizonezkoek aisialdian emakumezkoek baino askoz ere kirol gehiago egiten dute eta kirol-elkarteetan ere askoz ere gehiago ageri dira.

Azken lau urteotan izugarri igo da Interneten erabilera: euskal gazteen % 80tik gora ibiltzen da sarean nabigatzen. Deigarria da oso ez egotea alderik generoaren aldetik: gizonezkoak eta emakumezkoak, biak hasi dira teknologia berriak erabiltzen. Dena den, emakumezko zein gizonezko, gazteenak dira mundu honetan azkarren sartu direnak. Gainera, lau internauta gaztetik batek astean zazpi ordutik gora pasatzen du sarera konektatuta.

Gaur egun, euskal gazteen hiru laurdenek baino gehiagok (% 78k hain zuzen) dute ordenagailua etxean, eta horietatik hiru laurdenek baita Interneteko konexioa ere. Beraz, euskal gazteen erdiak baino gehiago konekta daitezke Internetera etxetik bertatik.

Gehienbat adin-talderik gazteenek (15-19 urte) aitortzen dute Internet erabiltzen dutela, etxean ordenagailua dutela eta aisialdian entretenitzeko ordenagailuarekin edo txateatzen denbora gehiago ematen dutela.

Gaur egun, aisiarako denbora kontzentratzen ari den aldi berean, kontsumoarekin lotuta dauden aisialdi motak ere gorantz doaz. Aisiaren inguruan burututako jarduera asko, gaueko aisian, esate baterako, aisia alternatiboaren eta beste era bateko aisien dikotomia faltsuan oinarrituta burutu dira; ikusi da gainera, aisia mota desberdinak sarritan osagarriak direla euren artean. Zalantzarik gabe, parte-hartzerik handiena duen aisialdi mota elkargune jakin batzuen inguruan egiten da.

- ▮ Eztabaidatu egin behar da beharrezkoa den ala ez administrazioak aisiaren alorrean esku hartzea eta, esku hartuz gero, zein helbururekin egingo duen.
- ▮ Elkarteetan parte-hartzeari dagokionez, konpromiso, erantzukizun eta inplikazio maila desberdinak daudela ikusi da. Profesionalizazio prozesuak, eta profesionalen eta boluntarioen arteko kudeaketa mistoa oso zailak direnez, bideratu egin behar dira eta laguntza eman behar zaie, behar bezala buruturik, proiektuak, borondatezko parte-hartzea eta elkartzearen zentzua indarririk gabe gera ez daitezten.

- ▶ Parte-hartzean oinarrituriko aisia motarik nagusienetakoa gaur egun asoziazionismoa dela kontuan izanik, asoziazionismoak programa zehatzetan gero eta gehiago esku hartzera jo beharko luke. Horretarako elkarrekin lan egin behar dute administrazioak eta eragile sozialek, baita gizarte eragile horien artean ere, sarean lan egin da zerbitzuak eskainiz.

4. KULTURA SAILAREN POLITIKAREN HELBURUAK

4.1. Kultura

4.1.1. Kultura sortu eta zabaltzea

- ▶ Musikagintzan, antzerkigintzan, dantzan, ikus-entzunezkoetan eta arte plastikoetan nolako beharrak dauden aztertu eta beharrezko irizten dituen administrazio-neurriak hartu, Euskadin egindako horrelako jardueri bultzada emateko, sendotasuna emateko edota zabalkundea emateko.
- ▶ Batik bat esleitutako arloetan diharduten erakunde publiko eta pribatuekiko koordinazio eta lankidetzarako formulak aztertzea.
- ▶ Arlo horietarako jarduera publikoa planifikatzeko programak lantzea.
- ▶ Arestian aipatutako arloetan kultura kontserbatzen, sortzen eta zabaltzen laguntzea.
- ▶ Euskadin bertan kulturaren industriaren garapenari laguntza ematea.
- ▶ Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoen eta euskal kultura eremuaren arteko kultura harremanak bultzatzea.
- ▶ Euskal kulturaren ekoizpena kanpoan zabaltzeko sustapen neurriak aztertzea eta proposatzea.

4.1.2. Kultura ondarea

- ▶ Uztailaren 3ko 7/1990 Legean eta lege hori garatzeko xedapenetan ezarrita dagoen bezala, euskal kulturaren ondarea defenditzea, aberastea, babestea, zabaltzea eta sustatzea, honako zerbitzu hauen bitartez:
 - Kultura Ondarearen Zentroa
 - Museo Zentroa.
 - IRARGI, Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa
 - Liburutegi Zerbitzua

4.2. Kirolak

- ▶ Beharrizanak aztertu eta ekainaren 11ko 14/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorrita, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren administrazioari dagozkion erregelamendu-aurreproiektuak prestatzea.
- ▶ Indarrean dagoen araudian aurreikusita dagoen bezala, kirol federazioei beren jardunean laguntza ematea eta eurekin batera lan egitea.
- ▶ Kirol asoziazionismoaren alderdi guztiak sustatzea.
- ▶ Goi-mailako kirol jarduerak bultzatzea eta koordinatzea Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan.
- ▶ Bertoko kirolei bultzada eta laguntza ematea.
- ▶ Estatu mailan eta nazioarte mailan euskal kirola zabaltzeko neurriei ekitea.
- ▶ Euskal Herrian kirol instalazioen sarea planifikatu eta sortzea.
- ▶ Jarduera fisikoarekin eta kirol jarduerarekin zerikusia duen ikerketa zientifikoa eta teknikoa bultzatzea.
- ▶ Indarrean dagoen legeriari jarraiki, ikuskaritza-lanak egitea, baita jarduera eremu honetan Eusko Jaurlaritzari dagozkion zigor-espeditenteen izapideak egitea ere.
- ▶ Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroa zuzendu eta kudeatzea.
- ▶ Soin Hezkuntzarako Euskal Erakundea Kultura sailera atxikita egoteagatik, Sail horri dagozkion administrazio-jarduerak garatzea.

4.3. Hizkuntza politika

- ▶ Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politika antolatzea, alde batetik euskararen erabilerearen normalizazioari dagokionez, eta bestetik, gai horri buruz Eusko Jaurlaritzatik etorri eta Euskal Herriko administrazio publikoek bere egin beharreko jarduera-irizpideak garatzeari eta ezartzeari dagokionez.
- ▶ Hizkuntza politika erregulatzen duten arauak ezartzeari, aldatzeari eta aplikatzeari buruzko proposamenak koordinatzea.
- ▶ Plangintza orokorra egitea eta Autonomia Erkidego osoan jarduera bateratuak burutzeko planak taxutzea, ondoren Jaurlaritzak onar ditzan.
- ▶ Euskararen Aholku Batzordeak egindako proposamen zehatzetatik abiatuta, hizkuntza politikan eskumena duten aginte publikoen artean lankidetzaren neurriak dinamizatzea eta bultzatzea, horretarako beharrezko diren ekimenak sustatuz, eta erakundearen arteko lankidetzaren eta koordinazioa hobe dezakeen beste edozein formula bilatzen saiatuz.
- ▶ 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arautzen duena, eta gainerako xedapen gehigarriak behar bezala garatu eta aplikatu daitezkeen zaintzea.
- ▶ Hizkuntza-normalizazioaren eremuan euskararen normalizazioan eta euskara arautzen diharduten erakundeekin hartu-emanak izatea eta euskara hiztunen komunitatearen

tea dagoen gainerako lurraldeetako era guztietako erakundeekin jarduerak burutzea.

- ▶ Hizkuntza-eskakizunak zein izango diren eta nola aplikatuko diren zehazteko proposamena egitea, Euskal Funtzio Publikoaren Legean aurreikusitako ondorioetarako. Gainera, administrazio publikoekin batera lan egingo du irizpide horietara egokitzeko planak burutzen eta ezarritako helburuak zenbateraino betetzen diren ebaluatzen. Esandako guztia, administrazio bakoitzak edo, hala badagokio, Jaurlaritzako sailek arlo horretan dituzten eskumen eta eskuduntzak bazter utzi gabe.

4.4. *Gazteria eta Gizarte Ekintza*

- ▶ Beste erakunde publiko eta gizarte-eragile batzuekin batera lanean arituta, gazteak behar bezala gizarteratu ahal izateko politikak bultzatzea.
- ▶ EAEko Gazte Plana garatzea, bere Zuzendaritza Batzordearen Idazkaritza lanetan arituz eta esandako Zuzendaritza Batzordeak sortutako lantaldeak koordinatuz.
- ▶ Gazteen egoerari buruzko informazioa eta dokumentazioa bildu eta zabaltzea, baita enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari, osasunari, kulturari eta egoki iriztitako beste arlo batzuei buruzko ikerketa eta azterlanak egitea ere.
- ▶ Nolako beharrak dauden aztertu eta haur eta gazteen politikari, garapen komunitarioari eta alor horietako aisiari buruzko araudien aurreproiektuak egitea.
- ▶ Sustapen sozio-kulturaleko planak eratzea eta baita aisia sozialki nahiz kultura eta hezkuntzaren aldetik erabiltzea sustatuko duten planak egitea ere.
- ▶ Autonomia Erkidegoko administrazioari dagozkion ekintza zuzenak burutzea ondorengo gaietan:
 - Gazteei buruzko informazioa eta dokumentazioa, haur eta gazteentzako aterpe-txe eta instalazioak, gazteen turismoa eta gazteentzako bestelako zerbitzuak.
 - Gazteentzako Europako programak eta gazte-trukeak.
 - Gazteen alorreko eta gizarte-ekintzako gainerako ekintza guztiak.
- ▶ Ume eta gazteen aisialdiaren esparruan hezkuntzan, dinamizazio sozio-kulturalean eta haur zein gazteei zerbitzuak eskaintzen dizkieten zentroetan lanean diharduten pertsonen prestakuntza bultzatzea eta profila definitzea.
- ▶ Boluntario-lana, haur eta gazteen asoziazionismoa eta garapen komunitarioa sustatzea.
- ▶ Estatuko, Europako eta nazioarteko erakunde eta instituzioekin elkarlanean aritzea, gai honen inguruan guztiontzat interesgarri diren ekintzetan.
- ▶ Gazteen Euskal Behatokiari dagozkion lanak betetzea Euskadiko Gazte Planaren jarraipena eta garapena egiteko.
- ▶ Administrazioaren eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren arteko harremanak artikulatzea.

5. EKINTZAK ETA PROGRAMAK

5.1. Kultura Sortu eta Zabaltzeko Zuzendaritza

II. Gazte Planean honako ekintza eta proiektuak daude egungo egoera hobetzeko:

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Kultura Sortu eta Zabaltzeko Zuzendaritza		
5.5.1. Askotariko gazte-jarduerak diseinatu, sortu, ekoiztu, hedatu eta banatzeko laguntzak sustatzea (azpiegiturak, baliabide material eta ekonomikoak, giza baliabideak)	Euskadiko Orkestra Gaztearen finantziazioa.	213.663 €
	Sortu berri diren enpresentzako antzerkigintza-sorkuntzarako laguntzak.	36.061 €
	Laburmetrajeak zabaltzeko Kimuak programa.	66.111 €
	Laburmetrajeak egiteko laguntzak.	120.202 €
	Koreografo berrien erakusketa.	36.000 €
	Koreografia-sorkuntzarako laguntzak.	24.040 €
	Arte eszenikoetan profesionalak prestatzeko laguntzak.	150.253 €

5.2. Kirol Zuzendaritza

Kirol Zuzendaritzak Gazte Planean jasotako ondorengo ekintzak burutzea aurreikusten du:

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Kirol Zuzendaritza		
5.7.3. Oinarri nagusi gisa Joko Garbiaren aldeko Konpromiso gutuna izango duen gizarte-sentsibilizazio kanpaina diseinatu eta garatzea, kirol-elkarteei, klubei eta kiroleko eta hedabideetako profesionaleri zuzenduko zaiena.	Joko garbia sustatzeko neurriak.	Berariazko gasturik gabe.
	Kirolari gaztea babesteko gutuna.	Berariazko gasturik gabe.

5.3. Hizkuntza politikarako Sailburuordetza

II. Gazte Planean, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Koordinatzeko eta Sustatzeko Zuzendaritzaren ekimenez, honako 2 ekintza berri programatu dira 2005ean egiteko.

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Euskara Koordinatzeko eta Sustatzeko Zuzendaritza		
5.6.1. Euskararen Kontseilu Aholkularian batera landu diren estrategia-ildoak garatzea.	Familia barruan hizkuntza transmititzea dela-eta, udalerrietan, Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorra garatzea.	
	Aisialdian euskararen erabilera dela-eta, udalerrietan, Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorra garatzea.	

5.4. Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza

Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren ardura da beharrezko bi-deak jartzea EAEn, gazteek gizartean esku-hartze ezin hobea izan dezaten eta baita hel-duarorako behar bezala prestatzen eta hezten laguntzekoa ere. Horretarako, gazteen emantzipazio-prozesuan laguntzen duten eragile eta sektore guztien arteko lan koordina-tua bultzatzen du. Kontua da zerbitzu eta programekin lan konpentsatzailea eta osagarria betetzea, hau da, gazteek nerabezarotik helduarora iragateko hasieratik dituzten gabeziak konpentsatzea eta hezkuntza-sistema formalean ez dauden alderdiak osatzea.

Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak, beraz, bi jarduera-eremu nagusi ditu:

- ▶ Alde batetik, gizarteratzeari begira gazteen egoera soziala hobetzea: lanean hastea, prestakuntza, etxebizitza edukitzea, osasuna eta abar. Helburu horri erantzun nahi dio Kultura Sailak berak sustaturiko Gazte Planak, sail artekoa eta erakundeen arte-koa izanik. Horri deitzen zaio gazteria politika integrala edo osoko gazteria politi-ka.
- ▶ Beste alde batetik politika sektoriala dago, gazte direnen artean, gaztaroko bizitza baldintzak erraztera eta kualifikatzera bideratutako neurriek osatua, beren ekime-netan, sormenean, informazioan, mugikortasunean, aisian, astialdian eta hainbat eta hainbat arlotan lagundu ahal izateko.

5.4.1. Politika integrala

5.4.1.1. II. Gazte Planaren koordinazio-mekanismoak

Gobernu Kontseiluak, 2002ko maiatzaren 28an izandako bileran, Kultura Sailaren Gaz-teria Zuzendaritzari esleitu zion, EAEko II. Gazte Plana (2002-2005) onartzen duen Akor-dioan jasotako aurreikuspenak bete ahal izateko beharrezko informazioa jasotzeko eta az-tertzeko ardura. Lan horietako bat izango da **urteroko programazioa eta ebaluazioa**, *Gazte Planak eta programak programatzeko eta balioztatzeko eskuliburua* argitalpenean oso ondo azalduta datorrena. Horrek esan nahi du, urtero Gobernu Kontseiluan ekitaldi ba-koitzaren programazioa eta ebaluazioa aurkeztu beharko direla, hala badagokio, onartuak izan daitezen.

Eusko Jaurlaritzaren barruan aurreikusitako beste koordinazio-baliabideak dira zuzendari eta teknikariek osatutako sailtako mahaiak edo mahai sektorialak. 2003ko abenduaren 3an Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiaren arabera, mahai sektorialek honako helburuak dituzte:

- Gazte Plana dela-eta hartutako konpromisoerik buruz sail bakoitzean hausnarketa sustatzea
- Gazte Planarekin lotutako politika sektorialak bultzatzea
- Sail bakoitzaren konpromisoetan sakontzea
- Beharrezko baliabideak ezartzea
- Sail bakoitzaren urteroko programazioa bultzatzea
- Sail bakoitzaren ikuspuntuarekin ebaluazioa ematea
- Gazte Planaren eta enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazio gizarteari buruzko planen arteko koordinazioa artikulatzea, eta hartara, 2002ko maiatzaren 28ko Gobernu Kontseiluaren Akordioa bete.

Honakoetarako mahaiak sortu dira:

- Bakerako hezkuntza
- Osasunerako hezkuntza
- Gazteriaren eta Europako gaien ikerketak

Beste alde batetik, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak **Euskadiko Gazte Planaren Idazkaritza** lanak egingo ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen osaketari eta funtzionamenduari buruzko ekainaren 2ko 239/1999 Dekretuan jasotako eginkizunetan laguntza emanez Kultura sailburuari eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari, Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen lehendakaria eta lehendakariordea diren aldetik, hurrenez hurren. Gazteriaren alorrean politikak bultzatu eta garatzeko euskal administrazio publikoen koordinazioa eta lankidetzaren sustatzeko sortu zen erakunde arteko organoa da **Zuzendaritza Batzordea** eta ondorengo betebeharrak ditu esleituta II. Gazte Planean:

- Gazte Plana garatzeko urteko konpromisoak programatzea eta ebaluatzea.
- Eusko Legebiltzarraren Emakumea eta Gazteria Batzordearen aurrean agertzea ekitaldi bakoitzeko ekintza estrategikoak aurkezteko.
- Gazte Plana gazteei eta erakundeei komunikatzeko plana.
- Aldian-aldian lurralde guztietako udal-teknikarien bilerak.

2002. urtean hasitako II. Gazte Planaren Komunikazio Planarekin jarraituz, 2003. urteetik aurrera gida bat egingo da gazteei erakunde guztiek eskaintzen dizkieten baliabideekin eta, ondoren, zabaldu egingo da Gazte Atariaren eta gazteentzako informazio bulegoen bidez. Egiatzatu den bezala, ez da jakiten zer baliabide dagoen eta baliabideak gutxi erabiltzen dira. Hori konpondu nahi da gidarekin.

Aipatu behar da, gainera, Zuzendaritza Batzordeak berak **Batzorde Teknikoa** izango duela laguntza-tresna gisa, eta gai sektorialeki berariaz eusteko erakundearen arteko lantal-

deak ere sortu direla. Baliabide horiek guztiak Gazteriaren Zuzendaritzak ere koordinatzen ditu, izan ere Zuzendaritza Batzordearen Idazkaritza da.

Gazte Planean asoziatuta dauden gazteen esku-hartzeari dagokionez, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak **Gazte Ontziak** direlakoak jarri ditu abian. Lan eremuak dira, gazteen ekimen guztiekin lankidetzan aritzeko tokiak, hausnarketa guneak, administrazio guztiei proposamenak egin ahal izateko bertatik. Kontseilu horrek, gainera, Zuzendaritza Batzordean, Batzorde Teknikoan, Gizarte Eragileen Foroan eta erakunde arteko lantaldeetan hartzen du parte.

Gazteria Zuzendaritzak ahalegin handia egiten du kide ez diren gazteek ere esku har dezaten, bai Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren bitartez, bai Eusko Jaurlaritzaren eta beste erakunde batzuetako lan-taldeetan zuzenean parte har dezaten saiatuz. Gainera, in-kesten bidez eta on line bidez, hain zuzen ere Gazteaukera atariaren bitartez, gazteen beharrezan, iritzien, kezken eta iradokizunen berri izaten du.

5.4.1.2. II. Gazte Plana sustatzeko eta jarraitzeko mekanismoak

Era berean, II. Gazte Planak, sustapenaren eta garapenaren atalaren barruan, baditu Gazteen Euskal Behatokiari, Gazte Atariari eta Leihatila Bakarrari (Gazteaukerari) dagozkion jarduerak, baita ere aipatutako erakunde arteko planekin koordinatzeko Mahaia eta, azkenik, foru aldundiekin batera, ondoren aipatuko ditugun udaletako plan estrategikoak egiteko eta garatzeko Baterako Finantzaketa.

a) Beste plan batzuetan esku hartzea

Gazte Planaren Idazkaritzak esku hartzen du, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren bitartez, honako sail eta erakunde arteko planetan ere:

- Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua.
- Boluntariorikaren Euskal Kontseilua.
- Drogen Menpekotasunari buruzko V. Plana eta Droga Menpekotasunen Aholku Kontseilua.
- Euskal Estatistika Plana
- Ijitoen Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Euskal Plana
- Ezgaitasunak dituzten Pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Merkatu Arruntan Sartzeko Plana.
- Inmigrazioari buruzko Euskal Plana

b) Gazte Plana udalerrietako errealitatera egokitzea

II. Gazte Planaren helburu nagusietako bat da plana udalerrietan garatzea. Horregatik, bada, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak lankidetzaz-hitzarmenak sinatu ditu foru aldundi bakoitzarekin, Lurralde Historiko bakoitzean, udalerrri mailan, Euskadiko II. Gazte Plana ezarri ahal izateko eta hainbat neurri sustatzeko.

Aipatutako helburua betetzeko, Euskadiko II. Gazte Plana ezartzeko sustapen-neurri gisa ondorengoak zehaztu dira:

- ▮ Gazte Plana udalerrien errealitatera egokituta ezarri ahal izateko jarduerak sustatu dituzten neurriak (batez ere dirulaguntzak, Gazte Planaren zerbitzuak ezartzeko edo sendotzeko udalek behar dituzten langileen kontrataziorako nahiz udaletan Gazte Plana burutzeko eta garatzeko).
- ▮ EAEn, udalerrri mailan, gazteen ekipamendu-sarea sendotzera bideratutako neurriak.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundi bakoitzaren artean hitzarmen bat egiten da urtero. Hitzarmen hori dela-eta, Planak indarrean dirauen bitartean, urtero Eusko Jaurlaritzak 1.200.000 euro inbertitzen ditu eta beste horrenbeste hiru foru aldundiek elkarrekin. Kopuru horri gehitu egin behar zaizkio interesa duten udalen ekarpenak.

c) Gazteukera ataria

Gazteukera gazteriarri zuzendutako web ataria da eta Gazte Planaren barruan sartzen da. Gazteek eduki ditzaketan baliabideen ikuspegi orokorra ematea da atariaren helburua, gida modura pistan eman, gazteak euren interesetara bideratzeko.

Atarian agertzen dira, alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzaren edukiei buruzko orriak, eta, beste alde batetik, gazteei interesatzen zaizkien arloekin zerikusia duten edukiei buruzkoak. Ukitutako gaiak hauek dira: aisia eta kultura, euskara, hezkuntza, lana, etxebizitza, ekologia eta ingurumena eta gizartea.

Gazteukerak informazioa eskurago jartzen du, eduki guztiak orria berean dauzka bilduta eta jarduera zein erakundek, elkartek eta abarrek kudeatzen duen agertzen da, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan. Gainera, Gazteukerak informazioa bilatzen laguntzen du web orri askoren arteko lotura erraztuz eta gazteak bere kudeaketak egin ahal izateko, helbide elektronikokoak eta telefonoak ere baditu.

Esandakoaz gain, atariaren bitartez zenbait administrazio-izapide egiteko aukera ere ematen du eta horrela, Gazteria Zuzendaritzak kudeatzen dituen txartelak, hots, Gazte-txartela, Aterpekide txartela eta nazioarteko beste txartel batzuk eskatu eta ordaindu ere egin daitezke. Gazteria Zuzendaritzak kudeatzen dituen auzolandegietan izena emateko izapideak (ordainketa barne) ere atari horren bitartez egin daitezke.

Gazteukerak, posta elektronikoz, eduki nagusiak eta berritasunak biltzen dituen aldizkari digitala bidaltzen du. Aldizkari hori jasotzeko nahikoa da harpidetza atalean norberaren izena eta helbide elektronikoa idaztea.

Burutu behar dituzten jardueren berri web orrialdeen bitartez eman nahi duten erakundeak Gazteria Zuzendaritzarekin harremanetan jartzea lortu nahi da. Argitaratu beharreko informazioa nolako den, Kulturgida kultura agendan agertuko da, edo bestela zuzenean Gazteukeran.

Gainera, Gazteukeran Auzolandegietan, Euskal Gazte Lankidetzaren programan eta Europako Gazteria programan parte hartu duten gazteen esperientziak ere ezagutzera ematen dira.

d) Gazteen Euskal Behatokia

EAEko I. Gazte Planak Gazteen Euskal Behatokiari esleitu zion hainbat iturritatik datoren informazioa integratu eta erakundeen nahiz euskal gizartearen eskura jartzeko lana. Adierazten du, gainera, Behatoki hori Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren menpe egongo den zerbitzua izango dela. Horrela, 1999ko abenduan sortu zen Gazteen Euskal Behatokia eta Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzara atxikita geratu zen, EAEko Gazte Planaren ikerketa, informazio eta dokumentazio lanak egiteko etengabe.

Gazteen egoeraren eta bilakaeraren ikuspegi orokorra eta etengabea edukitzeko tresna dugu, beraz, Gazteen Euskal Behatokia eta aukera emango digu, EAEn administrazioek gazteriaren alorrean burututako jarduerak nolako eragina izan duten ebaluatzeko. Honako helburuak ditu:

- ▶ Zuzenean edo zeharka gazteen arazoen berri eman ahal izango duen dokumentazio-fondoa sortzea.
- ▶ Gazteengan sortzen diren joera eta aldaketa berriak eta horiekin lotutako faktoreak aztertzea.
- ▶ Prestatzeko eta bideragarritasuna ikusteko azterlanak eta ikerketak egitea, pertsona adituak bilerak antolatzea eta, beharrezkoa izango balitz, lantaldeak sortzea.
- ▶ Azaldutako prozesuen berri ematea eta, hala badagokio, gazteriaren egoerari buruzko aldizkako argitalpenak egitea.
- ▶ Erabakiak hartzen dituzten agintarien, ikertzaileen eta gazteen arloan lanean diharduten gainerako profesional eta eragile guztien artean informazio-trukaketa erraztea.
- ▶ Institutio eta erakunde desberdinei gazteei buruzko aholkularitza eskaintzea.

Gazteen Euskal Behatokiaren jarduera zuzenduta dago bai Eusko Jaurlaritzako, foru aldundi eta udaletako arduradun politiko eta teknikoei, bai gazteen alorrean lanean diharduten erakunde publiko eta pribatuetako profesionalei. Honako zerbitzuak eskaintzen ditu:

- ▶ Bibliografia eta dokumentazio espezializatua.
- ▶ Gazteen gaietan lan egiten duten erakundeei eta profesionalei buruzko datu-basea.
- ▶ Gazteentzako esperientziei, politikei, ekimenei eta programei buruzko aipamenak.
- ▶ Gazteen arazo desberdinetarako aholkularitza.
- ▶ Gazteriari buruzko dokumentazio-buletina.
- ▶ Gazteria teknikariak prestatzeko urteroko programa.
- ▶ Eskualdeka edo sektoreka planak edo programak garatzea.
- ▶ Gazteriarekin lotutako kongresuak, jardunaldiak, mintegiak eta eztabaidak antolatzea.
- ▶ Txosten teknikoak egitea.
- ▶ Euskal gazteriari buruzko txosten estatistikoak egitea.

Gazteen Euskal Behatokiaren Dokumentazio Zentroa

Gazte Plana garatzeko Gazteen Euskal Behatokiari informazio eta dokumentazio lanak egotzi zaizkio. Gazteriaren alorrean lanean diharduten profesional eta teknikariei zuzenduta dago.

Bilboko Uriortu kalearen 11. zenbakian dauka egoitza eta bertan, gazte-gaietan interesa duen pertsona orok kontsulta ditzake zentroaren fondoak, aldizkako argitalpenak, araubidea, bibliografia, azken finean, gazteriari buruzko era guztietako dokumentazio espezializatua. Hitzaldietarako aretoa du, artxibategia eta kontsultarako zenbait toki informatizatu. Nahi izanez gero, kontsultatzeaz gain, dokumentuak maileguan hartu edo kopiatu ere egin daitezke bertan.

Lokal horrek, gainera, Behatokiak antolatutako prestakuntzarako eta zabalkunderako bilerak eta jarduerak egiteko aukera ere eskaintzen du.

5.4.2. Politika sektoriala

Politika sektorialaren barruan sartzen dira, batetik, gazteriaren arloko araudiaren erregulazioa, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzak, foru aldundiekin eta udalekin batera lankidetzan, bultzatutako gazteriarentzako zerbitzuen sustapena eta koordinazioa, eta azkenik, zuzenean kudeatutako programak.

5.4.2.1. Araudiaren erregulazioa

Gazteriaren arloko legegintza- eta erregelamendu- ahalmenari jarraiki, EAEk honako gaiak erregulatu ditu:

- 6/1986 LEGEA, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarena
- Haur eta gazteen aisialdiko hezitzaileen prestakuntza
- Dinamizatzaile sozio-kulturalen prestakuntza
- Euskal Gazte Lankidetzaren programa erregulatzea.
- Aterpetxeen erregulazioa
- Gazte Txartela
- Gazte Informazioa eta Dokumentazioa / Gazte Informazioa
- EAEko Gazte Plana
- Laguntzak eta dirulaguntzak emateko deialdiak:
 - Kultura sailburuaren urteroko Agindua, Gobernu Kanpoko Erakundeentzako laguntzen deialdia arautzekoa, gazte kooperante boluntarioei bidaia-poltsak emateko.
 - Kultura sailburuaren urteroko Agindua, Gazteria eta Gizarte Ekintzaren alorrean programa eta jarduerak garatu ahal izateko dirulaguntzak emateko erregimena ezartzen duena.

- Kultura sailburuaren urteroko Agindua, balioetan eta bakearen kulturaren hezteko programak gazteen artean garatu ahal izateko dirulaguntzak emateko erregimena ezartzen duena.

5.4.2.2. Gazteentzako zerbitzuak sustatzea

a) Gazteen Informazio eta Dokumentazioko Euskal Sarea

1985ean, Gazteriaren nazioarteko urtean, prozesu bati ekin zitzaion eta 1993an gauzatuta geratu zen uztailaren 20ko 211/1993 Dekretua onartu zenean. Dekretu horren bidez, **Gazteentzako Informazio Zerbitzuen** onarpen ofiziala araututa geratu zen.

Beste alde batetik, otsailaren 2ko 14/1988 Dekretuaren bitartez **Gazteen Informazio eta Dokumentaziorako Zentro Koordinatzailea** sortu zen, besteak beste honako eskumenak zituela:

- ▶ Gazte Informazio eta Dokumentazioko Euskal Zerbitzua koordinatzea
- ▶ Bulegoen sorrera erregulatzea
- ▶ Bulegoen sorrera sustatzea

1990ean, Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak foru aldundiekin batera oinarriak ezarri zituen, ordura arte modu autonomoan ziharduten Euskadiko informazio eta dokumentazio zentro guztiek batera jardun zezaten. Horretarako, sare informatiko komuna jarri zen abian.

Zentro Koordinatzaileak, foru aldundietako Lurralde Zentroek eta Euskal Autonomia Erkidegoko 60 zentrok baino gehiagok osatzen dute Gazte Informazio eta Dokumentazioko Euskal Sarea.

Gazte Informazio eta Dokumentazioko Euskal Sarearen helburua da, gazteei interesgarria izan dakiekeen informazio oro helaraztea: lanarekin, hezkuntzarekin, aisiarekin, astialdiarekin... loturiko informazioa, alegia.

Informazio hori sarea osatzen duten bulegoetan zuzenean emango zaio jendeari, edota internet bidez zabalduko da.

b) Aterpekide izatea bultzatzea gazteen artean

Euskadin nazioarteko 18 aterpetxetik gora dago foru aldundien eta udalen menpe: Araban 5, Bizkaian 8 eta Gipuzkoan 5. Beste alde batetik, Espainiar estatuan REAJ, hau da, Gazteentzako Aterpetxeen Espainiako Sarea 200 aterpetxek osatzen dute eta Autonomia Erkidego guztietan daude zabaldua. Aldi berean, Gazteentzako Aterpetxeen Nazioarteko Federazioan (IYHF) daude sartuta, 60 herrialdeetako aterpetxeetako erakundeekin batera.

Eusko Jaurlaritza REAJ Partzuergoaren kide da eta egun bertako lehendakaritza du.

c) Aisialdiko hezkuntza bultzatzea

Aisialdiko hezkuntza, hezkuntza ez-formalaren alorreko prestakuntza oso da beharrezkoa, egungo gizartean hazten laguntzen dielako txiki eta gazteei, helduaroan sartzen lagunduz.

Kalitatea bermatu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak arautu egin du honako hauen aintzatespena: haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak, aisialdiko begiraleen eta zuzendarien prestakuntza eta dinamizatzaile sozio-kulturalen prestakuntza. Gainera, araututa dago aisialdiko jardueren erregimena, esate baterako kanpamentu, udaleku, udaleku ireki, auzolandegi eta haur eta gazteen ibilaldi bolanteena.

Ofizialki onartutako eskolek antolatutako ikastaroak gainditzen dituzten pertsoneri dagokien begirale, zuzendari edo dinamizatzaile sozio-kulturalaren diploma ematen zaie.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak, laguntzak emateko urtero egiten duen deialdiaren barruan, Autonomia Erkidegoan dinamizatzaile sozio-kulturalak nahiz gizarte-ekintzako eta gazte-ekintzako eragileak prestatzeko jardueretarako dirulaguntzak ematen ditu, guztira 150.000 euro urtero.

d) Gazteentzako Europako programak sustatzea

Gazteria programa

Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak, Gazteriaren Institutoarekin (INJUVEekin) lankidetzan, Gazteria Programa kudeatzen du. Programa hori Europar Batasunak bultzatzen du Hezkuntza eta Kulturaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.

Gazteria Programak 2000tik 2006ra irautea aurreikusita dago, eta guztira 350 milioi euroko aurrekontua du. Gazteria programaren helburuak honakoak dira:

- Europaren eraikuntzan gazteen esku-hartze gogotsua.
- Gaitasunak eta ezagutzak garatzea.
- Gazteak gizarteratzea, hartara hiritartasun arduratsua izaten laguntzeko.
- Aukera berdintasuna.

Gazteria programaren helburu orokorrak, berriz, honakoak dira:

- Europaren eraikuntzan gazteen esku-hartze gogotsua sustatzea.
- Europako kultura aniztasuna gehiago ulertzen laguntzea eta oinarrizko balio komunak areagotzea. Giza eskubideekiko begirunea sustatzea eta arrazismoaren, antisemitismoaren eta xenofobiaren aurkako borroka bultzatzea.
- Europa barruan elkartasuna eta beste herrialde batzuekikoa indartzea.
- Gazteen gizarteratze gogotsua errazteko, beren izpiritu ekintzailea, ekimena eta sormena sustatzea.
- Gazteriaren alorrean lankidetzaren areagotzea.

Programa hori, 15 eta 25 urte bitarteko gazteek eta gazteriaren arloan lanean dihardutenek erabiltzen dute. Kultura, gizarte, gorputz, adimen, ekonomia edo geografiaren aldetik zailtasun handienak dituztenei erraztasunak jartzen zaizkie programa horretan parte hartzeko. Programak lehentasuna ematen die tolerantziaren eta diferentziak onartzearen aldeko ekimenei, baita era guztietako bazterketaren aurkakoei ere. Kultura eta kirol jarduerak ere garrantzi handia dute gazteen artean, hezkuntza ez-formalaren barruan.

Programa bost ekintzatan dago gauzatuta:

Gazteria Europarekin (trukeak)

Nazionalitate desberdinetako gazte taldeen arteko trukeak egiten laguntzen du ekintza honek. Alde batetik, gazteen garapen pertsonalari eta prestakuntzari lagundu nahi zaie, trukearen aldi guztietan gaztearen parte-hartze gogotsuaren bitartez eta, bestetik, beste herrialde batzuetako bizitza ekonomikoa, soziala eta kulturala ulertzen lagundu nahi zaie, kultura arteko ezagutza hori edukitzeko herrialde horietako biztanleekin harreman zuzena edukiz. Truke horiei esker, herrialde desberdinetako taldeen artean lankidetzeta eta adiskidetasun harremanak sortzeko aukera gehiago izaten dute gazteek eta aukera berdintasuna sustatu ere egiten da.

Europako boluntario lana

Horri esker, beste herrialde bateko erakunde batean gogotsu parte hartzeko aukera izango du gazteak eta beste kultura eta hizkuntza batzuekin harremanetan jarri ahal izango da, horretarako luzaroan boluntario lanak eginez. Oso zabala da, gainera, lanerako izango duen eskaintza, gizarte, ingurumen, kirol, arte eta beste horrenbeste arlotako jarduerak izango baititu aukeran.

Gazteen ekimenak

Ekintza honek gazteen ekimen eta sormenari laguntzen die eta beren ideiak garatzeko aukera eskaintzen die, nor bere proiektuen kudeatzaile eta bultzatzaile izanik. Gazte talde batek beren behar eta interesei erantzunez, bere inguruan berrikuntza edo ideia berria izango den proiektu bat sortu eta zuzenduko du.

Ekintza honi esker, European Borondatezko Zerbitzuren batean parte hartu duten gazteek proiektu bat garatzeko aukera izango dute, beste herrialdean hartutako prestakuntza eta gaitasunak oinarri dituztela.

Aldibereko ekintzak

Gazteria Programaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak gazteentzako tramitatutako programa komunitarioen (Socrates eta Leonardo) arteko koordinazioa egin daiteke ekintza horiei esker.

Laguntzeko neurriak

Gazteekin lanean diharduten edo gazteriarri buruzko jardueretan interesa duten pertsonen lagundu ahal izateko baliabideak dira, hain zuzen ere, Gazteria programaren barruan proiektuak eta ekimenak prestatu eta gauzatu ditzaten:

- ▶ Programaren ekintza guztiak erraztera eta hobetzera bideratuta daude.
- ▶ Gazteriaren politikako eragileen prestakuntza eta lankidetzak.
- ▶ Gazteriari buruzko informazioa eta azterlanak.
- ▶ Partenariatuen eta nazioz gaindiko sareen prestakuntza.

e) **Gazteentzako abantailak dituzten nazioarteko txartelak sustatzea**

Aterpekide-txartela

Aterpekide-txartelari esker, adin guztietako pertsonak era desberdinean eta merkeago ostatu hartzeko aukera dute. Bost kontinenteetan 5.000 aterpetxetik gora erabil daitezke eta horietatik gehienak kanpoko jarduerak, jarduera ekologikoak, elurretakoak, mendikoak.... egin daitezkeen tokietan daude, gainera. Beste aterpetxe batzuk historia, artea eta kulturaren aldetik oso ingurune aberatsa eskaintzeko moduko tokietan daude. Aterpekide-txartel bat baino gehiago dago: gazteentzakoa, helduentzakoa, familiarra edo taldekoa.

Nazioarteko Gazte-txartela (IYTC edo GO25)

Nazioarteko Gazte-txartela, GO25 moduan ere ezaguna dena, 26 urtetik beherako gazteei zuzenduta dago bereziki. Txartel horrekin deskontuak eta prezio bereziak lor daitezke garraioetan, ostatuetan, museoetan, antzokietan, zinetan eta abarretan.

Nazioarteko Ikasle-txartela (ISIC)

Nazioarteko Ikasle-txartela (ISIC) unibertsitateko, irakaskuntza ertainetako edo eskola ofizialeko ikasleei zuzenduta dago eta, lortu ahal izateko, ikasturte akademiko batean matrikulatuta daudela ziurtatu behar dute ikasleek. Mundu osoan onartutako txartel horrekin deskontuak eta zerbitzu bereziak lor daitezke mundu osoko garraioetan, ostatuetan, museoetan, antzokietan, zinetan, kultura zentroetan eta toki historikoetan. Txartela-rekin batera ematen duten gidan ikus daiteke zein abantaila dakarren.

Nazioarteko Irakasle-txartela (ITIC)

International Teacher Identity Card delakoa, hots, Nazioarteko Irakasle-txartela, ofizialki aintzatetsitako hezkuntza-erakunde batean irakasle lanetan dabilzanezi zuzendua dago. Txartel horrekin deskontuak eta zerbitzu bereziak lor daitezke mundu osoko garraioetan, ostatuetan, museoetan, antzokietan, kultura zentroetan eta toki historikoetan.

f) **Gazteek parte hartzeko bideak bultzatzea**

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua lege bidez sortu zen, eta bera da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarekin gazteei buruzko gai oroz aritzeko solaskide baliagarria.

Administrazioaren aurrean gazteriaren solaskide den aldetik, beraz, oso harreman iraunkorra eta erraza sortu da bien artean eta horrek gazteen interes eta beharrei buruzko elkarlan batzuk ekarri ditu, esate baterako, batera egindako txosten eta argitalpenak, elkarri proposamenak eta ekintzak aurkeztea eta abar. Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Plana sustatzeko ere hainbat elkarlan ezarri dituzte.

EAEko Aurrekontu Orokorretan urtero dirulaguntza esleitzen zaio zuzenean Gazteriaren Kontseiluari. 2004 urtean, esate baterako, 306.500 € izan ziren guztira.

Gazteen asoziazionismoa bultzatzea eta sustatzea

Ondorengo ekintzen bitartez garatzen da:

- ▶ Urteko ekimen eta programentzako laguntzak, gazte-trukera zuzendutako jardueretarako laguntzak eta Europarekin zerikusia duten jardueretarako laguntzak, be-tiere gazteen elkarrekin bultzatutakoak. Dirulaguntzak eskatzeko dagokion deialdia egiten da. 2004. urtean 612.652 eurokoa izan zen dirulaguntza osoa.
- ▶ Elkarrekin dirulaguntzak, balioetan eta bakearen kulturaren hezteko programak gazteen artean gara ditzaten. 2004. urteko aurrekontua 120.202 eurokoa izan zen. Era berean, dirulaguntza izendun berbera ematen zaio Gernika Gogoratuz Fundazioari urteko jardunerako.
- ▶ Beste erkidego eta herrialde batzuekin, hartu emanak izateko trukeak sustatzea; beste herrialde eta erkidego batzuetako solaskideen datu-bankua erabiltzea; Europako programak tramitatzea eta elkarrekin ekimenei laguntzea. Urtero dagokion dirulaguntzetarako deialdia egiten da.
- ▶ Elkarrekin animatzea auzolandegietan parte-hartzera.
- ▶ Gazte-elkarrekin eta gazteei zerbitzuak ematen dizkieten entitateen errolda mantentzea.
- ▶ Jardueren komunikazioa tramitatzea Osakidetzaren eta Babes Zibilaren aurrean.

5.4.2.3. Ekintza zuzena

a) Gazte-txartela

Gazte-txartela / Euro<26 izeneko txartelari esker, 14 eta 26 urte bitarteko gazteek abantaila ekonomikoak lor ditzakete ondasun kulturalak eta materialak erabiltzerakoan, edo beren bizitza kalitatea handitzen eta aisialdiaren erabilera hobetzen lagun diezaieketen alderdi eta zerbitzuetan. Horrezaz gainera, Europako gazteei eskurago jartzen die informazioa, mugikortasuna, kultura eta parte hartzea.

Gazte-txartela, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ekimena, estatu mailan esperientzia aitzindaria izan zen. Gaur egun, Gazte-txartelaren Europako Erakundeko kide diren 59 Euro<26 erakundeek txartelak banatzen dituzte 34 herrialdeetan. Gazte-txartela da ofizialki onartutako txartel bakarra, gainerako autonomia erkidegoetan, baita Europako beste herrialde batzuetan ere.

b) Auzolandegiak

Auzolandegien kanpainari esker, toki desberdinetako gazteek proiektzio sozialeko lan-proiektuak egiten dituzte hainbat jarduera osagarriekin, kulturekin eta aisiazkoekin batera. Horrekin balio asko sustatzea lortzen da, besteak beste elkartasuna, bizikidetzeta, tolerantzia, kultura arteko ikaskuntza eta adiskidetasuna. Horretarako Nazioarteko Boluntarioen Zerbitzuaren bitartez beste erkidego eta herrialde batzuetako plazak trukatu eta udalekin elkarlanean arituz (gizartearen intereserako lanen proiektu teknikoak direla-eta) eta baita elkarteekin ere (animazio lanetan). 2005eko udako edizioan 3 Lurralde Historikoetan 10 auzolandegi burutu ziren eta Euskadiko, gainerako erkidegoetako eta beste herrialdeetako 500 lagunek jardun zuten bertan. Gainera, beste erkidego eta nazio batzuetako plazak trukatu, euskal gazteek ere Euskaditik kanpo dauden auzolandegietan ere parte hartzen dute..

c) Euskal Gazte Lankidetzaren Programa

Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzak eta Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak urtero antolatzen dute Euskal Gazte Lankidetzaren programa. Kultura eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailek batera deitzen dute. Bere helburua da euskal gazteak sentsibilizatzea garapen bidean dauden herrialdeak ezagutu ditzaten eta elkartasuna eman diezaieten. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek batera finantzatu eta garapenerako Gobernuaz Kanpoko Erakundeek (GKEek) burutzen dituzten jardueretan zuzenean parte hartzen dute.

Hautaketa prozesu baten ondoren eta alde zuzenetik orientabideak jasota, 20 eta 30 urte bitarteko 100 gazte aukera dute urtero honako programa honetan parte hartzeko. Parte-hartzeak irauten dituen 3 hilabeteetan, gazteek beste herrialde batzuetako errealitate zuzenean ezagutzeko aukera dute. Jarduerok Ameriketako, Afrikan eta Asian egiten dituzte.

Programa uztailearen hasieran jartzen da abian, kooperanteak euren destinoetara doazenean. Eusko Jaurlaritzak ordaintzen ditu bidaiaren gastuak, bisak eta aseguruak. GKEak, euren aldetik, hautaturiko kooperanteen aurretiazko prestakuntzaz, lankidetzeta proiektuez, mantenuaz eta ostatua bideratzeaz arduratzen dira.

Kasu guztietan, Euskal Gazte Lankidetzaren programan sartutako ekintzak Euskadiko GKEen eta hegoaldeko herrialdeetako elkarteekin bitartez burutzen dira. Lankidetzeta eta erlazio horri esker, lankidetzarako oso lotura hestuek sortzen ari dira, ekimen berriei heltzeko atea irekiz. Era berean, programa honek herrien eta kulturen elkartasunaren munduan sartzeko aukera eskaintzen dio euskal gazterari, euskal gizartearen onurarako.

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza		
0.2.3. Gazteen Euskal Behatokiaren aldizkako txostena, EAEko gazte-indarkeriari buruzkoa.	Erlazionatutako sailei datu estatistikoak eskatzea.	36.000 €
0.2.4. Gazteen Euskal Behatokiaren Dokumentazio Zentroan gaikako informazio-blokeak garatzea, Euskal Herriko eta Euskal Herrikanpoko gazte-indarkeriari buruzkoak.	Gazteen Euskal Behatokiaren Dokumentazio Zentroak gazteen bortizkeriari buruzko informazioarekin gaika blokeak garatzea.	Zehaztu gabeko gastuak
0.3.6. Gazteen artean askatasun balioa sustatzea, zenbait estrategiaren bidez.	Gazteentzako kultura arteko topaketak egiteko erakundeei laguntzea, bakerako eta gatazken konponketarako hezi daitezen.	12.000 €
0.4.1. Sentsibizazio sozialeko kanpaina, gazteei giza eskubideekiko errespetua, indarkeriarik eza eta justizia bizikidetzaren zutabeak direla ohartarazteko.	Elkarteentzako dirulaguntzak, balioetan eta bakearen kulturaren hezteko programak gara ditzaten gazteen artean.	122.202 €
	Gernika Gogoratzuz Fundazioarentzat dirulaguntza izenduna kultura eta bake jardueretarako.	120.202 €
0.4.2. Estatuko eta Europar Batasuneko gazteekiko sentsibizazioa eta truke kultureko programak egitea, euskal gazteriarren indarkeriarik gabeko irudi positiboa garatzeko.	Europako Batzordearen Gazteria programa-ren bitartez gazteen arteko trukeak sustatzea eta hori kudeatzen duen Agentzia Nazionalen parte hartzea.	Zehaztu gabeko gastuak
	Euskal Gazte Lankidetzaren Programa.	150.000 €
2.4.5. Irakaskuntza zentroetan gizarte-eredu europarraren balioen eta oinarrien inguruko ezagutza eta hausnarketa sustatzea; gazteak Europaren eraikuntza prozesuetara hurbiltzea –mintegi eta mahai-inguruekin– eta baita ondorengo gai hauen globalizazio prozesuetara ere: eskubideak, aukerak, elkartasuna, justizia soziala, garapen bidean dauden herrialdeekin kooperazioa eta kultur aniztasuna.	Euskadiko Gazteriarren Kontseilua-EGK: balioetan hezteko plana.	11.600 €
3.2.3. Europan, gazteentzako etxebizitza-alternatiba guztiak bilduko dituen dosierra lantzea.	Txostena egitea Europan gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten aukerei buruz.	36.000 €
4.1.2. Gazteriarren osasun-arazo nagusiei (zirkulazio-istripuak, menpetasun-jarrerak, HIESa, sexu-transmisioko gaixotasunak, gogoz kontrako haundunaldiak, elikadura-arazoak eta buru-arazoak) aurre egiteko prebentzio-jarduera garatzea.	Gazteriarren aisialdiko arriskuen prebentziorako teknikariak prestatzeko ikastaroa, parte hartzean oinarrituriko metodologia baten bitartez, eta Gazteriarri eta Arriskuei buruzko Jardunaldia. Aisialdiko eskoletako ikasleei prestakuntza-ekintzak irakastea.	39.366 €
5.1.1. Gazte Asoziazionismoaren Liburu Zuria hedatzea eta jarduerak, programa eta zerbitzuen antolatzea eta kudeaketan baterako erantzukizuna sustatzea.	Euskadiko Gazteriarren Kontseilua-EGK: elkarte guztiei Liburu Zuriaren argitalpenaren berri ematea.	
5.1.2. Laguntza ekonomikoko, teknikoko, azpiegiturako eta prestakuntzako fondoak sortzea, asoziazionismoaren ekimena laguntzeko.	Dirulaguntza izenduna Euskadiko Gazteriarren Kontseiluentzat.	306.500 €
	Auzolandegiak antolatzea elkarte eta udalekin lankidetzan.	168.000 €
	Prestakuntza ikastaroa: Parte Hartzeko Heziketa ikastaroa: I. Modulua.	12.000 €
	Gazteen Euskal Behatokiaren Bilboko egoitzaren egokitzapena eta hornikuntza.	430.000 €

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza		
5.1.3. Aholkularitza, prestakuntza eta gazte-elkarteei zuzendutako zerbitzuen sustapena.	5.1.2.an sartutako ekintza Gazteen Euskal Behatokiaren bitartez.	Aurrekontua 5.1.2 ekintzan sartua
5.1.7. Elkarleen profesionalizazioari buruzko eztabaida-foroak sortzea.	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua-EGK: tipologia desberdineko elkarteetako kideekin elkarriketatzeari, profesionalizazioari buruzko iritziekin txostena egin eta, sortzen den lantaldeak oinarri bezala erabil dezan.	Partida zehatzik gabea
5.2.2. Gazte Ataria eta Gazte Aukera (Leihatila Bakarra) sortu eta mantentzea.	Gazte Atariaren eta Leihatila Bakarraren (Gazteaukeraren) irudi berriaren proiektua garatzea.	90.000 €
	Gazteentzako baliabide-gida baten diseinuaren zirriborroa egitea ondoren baliozkotzeko.	240.000 €
5.2.3. Gazte-txartelaren zerbitzuak areagotzea.	Gazte-txartelaren kanpainari eustea.	60.000 €
5.2.4. Gazte-ekipamenduen azterketa egitea. Azterketa horren bidez, horien tipologia definitu, plan bat garatu eta gizarte-partehartzea izango duten ereduak diseinatzeko aukera emango du.	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua-EGK: elkarteetako ordezkariekin lantalde bat sortzea, kudeaketa-eredu desberdinei buruz eztabaidatuta, gomendioekin agiri bat egiteko.	
	Erakunde arteko lantaldea sortzea Euskadiko aterpetxeak definitu eta sailkatzeko.	36.000 €
5.2.5. EAEko gazte-ekipamenduen sarea indartzea.	Toki-erakundeei gazte-ekipamendu-erako dirulaguntzak ematea.	600.000 €
5.2.6. Gazteria-zerbitzuen eskuduntzak zehaztea: antolaketa-egitura, eskaini beharreko zerbitzuak, gizarte-eragileekiko kolaborazio-formulak eta diru-hornidura.	Toki-erakundeei dirulaguntzak ematea gazte planak sustatzeko.	600.000 €
	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua-EGK: EGKko kide diren elkarteetako ordezkariekin lantaldea sortzea, gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduei buruz eztabaidatzeko.	
5.3.4. Gazte-kolektiboaren aisialdi erabilera eta denborari buruzko azterketa zientifiko bat egitea.	Gazteen aisialdi buruzko ikerketak egin eta argitaratzea: Azaleratzen dauden Jokabideak, Euskadiko Gazteak 2004, Euskal Gazteri Kooperantea, Gazteen Argazkiak 6 eta 7, Gazteriari buruzko Monografikoak: Gazteria eta Informazioaren Teknologia Nazio Batuen esparruan.	144.000 €
5.4.1. Euskal gazteriak Batasunaren itunak aldatzeko Batzarrean eta Foroan parte hartzea sustatzea.	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua-EGK: gazteriaren mundu jaialdian parte hartzea, Bartzelonan, 2004ko abuztuaren 8tik 14ra.	11.000 €
5.6.2. Aisialdiko jardueretan euskararen erabilpena sustatzeko administrazioek egiten dituzten dirulaguntza-deialdiak eta kontratuak arautzea.	Programa edo jarduerak garatzerakoan, euskararen erabilerrari balioa ematea, gazteriaren eta gizarte-ekintzaren barruan dirulaguntzak emateko garaian.	732.854 €

6. JARRAIPENA EGITEKO ETA EBALUATZEKO SISTEMA

Programa eta jarduera guztiak Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailaren araudiaren menpe egongo dira jarraipen eta ebaluazio kontuetarako (helburuak eta adierazleak zenbateraino bete diren).

Gazte planak eta programak programatzeko eta balioztatzeko eskuliburua argitalpean jasota datorren ebaluazio deszentralizatu eredu berbera erabiltzen dute Gazte Planeko ekintza positiboek.

Gainera, kudeaketa zuzeneko programek —esate baterako, Auzolandegiek eta Euskal Gazte Lankidetzaren programak—, ebaluaziorako euren eredia daukate, eta bertan jaso egiten dira parte hartu duten gazteen ekarpenak baita antolaketan lagundu duten pertsona eta erakundeenak ere.

EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1. MARKO TEORIKOA

Euskal hezkuntza sistemak kalitatezko irakaskuntza eskaini nahi du, eta hori lortzeko, urrats handiak eman ditu azken urteotan. Prozesu horren barruan oso lan handia egin da honako ataletan: hezkuntzaren berrikuntza eta dinamismoan, gizartearen eskariei erantzuna ematen, zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak eguneratzen, hezkuntza prozesuak hobetzen eta gure ikasleei ikasten lagun diezaieketen baliabideak aprobetxatzen.

Hezkuntza administrazioak jakin egin behar du elementu horien guztien garrantzia aztertu eta batzuen eta besteen artean lehentasunak ezartzen, lortu nahi diren helburuak zein diren definitzen, gara litezkeen ekintzak artikulatzen, baita beharrezko diren giza baliabideak nahiz baliabide ekonomikoak eskuratzen ere.

Euskal Hezkuntza Sistemak, beraz, planteamendu hori du erronka; justuagoa, zuzenagoa eta askeagoa den gizartea lortzen lagundu nahi du, bizitzarekiko begiruneak, duintasunak, pertsonen kulturak eta naturaren kontserbazioak, balio horiek guztiek garrantzi berezia eta lehentasuna izango duten gizartea, hain zuzen ere.

Ikaslearen sozializazio prozesuan hainbat eragile sozialek hartzen du parte eta guztien artean aipagarrienak —beren zeregin garrantzitsuagatik— familia, kideen taldeak, komunikabideak, zenbait gizarte eragile eta, noski, eskola bera ditugu.

Ikasgelan bertan egiten da heziketa eta prestakuntza, bertan sortzen da irakaslearen eta ikaslearen arteko harremana, azken finean, irakatsi-ikasi prozesua.

Hezkuntzaren ikuspuntu hori abiapuntu, ikasleak eskolan zein ezagutza eta trebetasun lortu eta ikasi behar dituen proposatzen da:

- Bi hizkuntza ofizialetan ahoz eta idatziz ondo komunikatzeko gaitasuna.
- Gaur egungo gizarteak eskatzen dituen lan-tresnak erabiltzen ikastea (atzerriko hizkuntzak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia).
- Familian, gizartean eta lanean hain beharrezkoak diren pertsonen arteko harremanak mantentzeko (entzuten, errespetatzen, onartzen, komunikatzen... jakitea), lantalde laboral eta sozialak trebatzea. Horretaz gain, elkarbizitza baketsua lortzeko asmoz, bultzatu egin nahi dira gizonezko eta emakumezkoen arteko harremanak eta baita beste kultura batzuetako pertsonen artekoak eta ezgaitasunak dituztenekikoak ere.
- Arazoei irtenbidea emateko prozesuen kontrola, horretarako egoera berrietara egokitzeko trebetasunak ikasiz.
- Ondo kudeatzea pertsonen bizitza pribatuari eta sozialari dagozkien alderdiak, hau da, osasuna, aisia, kontsumoa eta sexualitatea.

- ▶ Gizabanakoaren eta taldearen sentsibilitateak garatzea, guztiak arduratsu joka dezaten gizaratean, bidegabekeria, bortizkeria, desberdintasunak, diskriminazioa eta bazterketa sozialak gertatzen direnean.
- ▶ Europako hiritarrak garelako jabetzen laguntzea, Europa bere dimentsio osoan barneratzeko.

2. EGOERAREN DIAGNOSIA

- ▶ Hezkuntza sistemaren helburuetako bat da pertsonak bere osotasunean prestatzea, gure hiritartasuna garatuko den eremu berri honetara, hain zuzen ere, Europako errealtatera egokitzen jakiteko.
- ▶ Ingurunea ezagutzea derrigorrezkoa da, baina estrategia berriak ere ikasi beharko dira, etengabe sortzen diren aldaketetara aise egokitzen jakin dezaten gazteek. Helburu hori lortuko bada, beharrezkoa izango da gazteen lan kualifikazioa eta egokitzeko-gaitasuna handitzea, teknologia berriak ondo erabiltzen ikasiz eta beren prestakuntzan eleaniztasuna sartuz.
- ▶ Gazteak lan munduan sartzeko, kontuan izan behar da azken urteotan lanaren testuingurua bera aldatu egin dela. Lanaren kultura berri honen aurrean, prestakuntzaren eskaintzak merkatuaren eskaera berrietara egokitu beharra dauka eta horretarako beharrezkoa izango da prestakuntza-ibilbideak birmoldatzea.
- ▶ Gure gizaratean etorkinak finkatzeak prestakuntza bera pertsona horien ezaugarrietara egokitzea eskatzen du. Prestakuntza hori lanerako prestakuntzaren eta etengabeko prestakuntzaren barruan kokatuko litzateke.
- ▶ Prestakuntzak generoaren ikuspuntutik garatzen jarraitu behar du, lanetik eta jarduera sozialetatik bazterkeria, onarpen sozialaren gabezia eta soldata beharrezko onarpen falta desagerrarazteko.
- ▶ Erljio-sinesmen, ohitura eta pentsamolde desberdineko jendearekin egoteak hezkuntza tolerantzia eskatzen du eta funtsezko elementua dugu hori bizikidetzara bermatzeko. Hezkuntza horren ardatz nagusiak izan beharko dira parte-hartzea, desberdintasun soziala bizi dutenekiko elkartasuna eta aniztasunarekiko begirunea.
- ▶ Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta, zehatzago esanda, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak, gaur egungo beharrezkoak aztertu eta baloratu ondoren, 2003-2006 hirurtekorako, hezkuntzarako zenbait ildo lehenestea proposatu du. Ildo bakoitzak bere programak eta giza baliabideak nahiz baliabide materialak izango ditu, hori guztiori hezkuntza sistemaren berrikuntza eta hobekuntza bultzatzeko asmoz. Ekintza ildoak honakoak dira:
 - Eskola inklusiboa: kulturartekotasuna, bizitzarako, bakerako eta bizikidetzarako trebetasunak, bazterturiko inguruneetan ekitatea eta hezkuntza-premia bereziak dituztenek ikaskuntzarako oztipoak gainditzeko hezkuntza
 - Dimentsio soziokulturalak: Euskadi eta Europa...
 - Hezkuntzaren normalizazioa eta eleaniztasuna
 - Zientzia, Teknologia eta Garapen Iraunkorra

- Ikastetxeak etengabe hobetzea eta kalitatea

Dena dela, ekimenak bideratu, komunikatu, garatu, zabaldu eta abiarazteko prozedura komuna jartzeak arrakasta edukiko badu, Sail baten baino gehiagoren jardura eskatzen du. Lan hori erakunde arteko ekintza izan behar da, prozeduran sartutako eragile guztiak egon behar dira inplikaturik, hartara erakunde arteko eta Sailen arteko lankidetzak formulak txertatu ahal izateko. Horrela, gazteei emantzipatzen, gizarteratzen, lanean hasten edota sozialki aktiboa den bizitzaren aro batera igarotzen lagunduko dieten programak diseinatu eta abian jarri ahal izango dira.

3. GAZTERIAREN POLITIKAREN HELBURUAK

Gazte Planaren inguruan Hezkuntzaren alorretik planteatu den helburu nagusia gazteei gizarteratzeko laguntza ematea da, bai jakintza gehiago bai erabateko gizarteratzea bermatzeko beharrezko trebetasunak lortzen lagunduz. Helburu hori erdietsi ahal izateko, gizarteratze eragile guztien lana eta ekarpenak dira beharrezkoak.

Esandako helburua lortzeko ezinbestekotzat jotzen dira honakoak:

- Ingurunea bere dimentsio osoan ezagutu beharra, Europar Batasuneko errealitate berrira egokituz. Horrek esan nahi du pertsonen bizitza sozialean komunikatzeko, harremanak izateko eta abarrerako modu berriak ezarriko direla. Kalitatean eta mugikortasunean oinarritzen den errealitatea dugu, beraz, hezkuntzaren parametroak gizarteratze berriaren ezaugarriak islatu beharko dituzte.
- Ingurunearen alderdi soziala sakonean ezagutzeak beharrezko bilakatzen du balioen hezkuntza sustatzea eta garatzea, ikastetxe bateko funtzionamendurako irizpide modura.
- Eskola inklusiboa garatu beharra, hezkuntza prozesuan sartuta dauden eragile guztien parte-hartzearekin eta akordioekin. Helburua da, ikastetxean bertan, hausnarketa prozesuak eragingo dituzten antolaketa ereduak sortu eta finkatzea, hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsonen itxaropenei erantzunak emateko asmoz.
- Hezkuntzan desberdintasuna eta aniztasuna tratatzea, kontuan izanik eskolako ekintza ororen helburua eskolatutako ikasle guzti-guztiei ikastea eta beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea dela.
- Enplegurako prestakuntzak, profesionalizatu eta lan merkatura bideratzen duenez, lanaren testuinguru berrira eta lanaren kultura berrira egokitzea eskatzen du.
- Prestakuntza eta lan mundua lotzeko beharra, gazteek lan munduan sartzea lor dezaten. Horrek prestakuntza-ibilbideak sendotzea eskatzen du, eta horrela egin da: abian jarri dira Lanbide Prestakuntzari eta Kualifikazio Profesionalen Sistemari bu-

ruzko Euskal Plana baita Plan horrek sustatutako ekintzak ere. Horien artean aipatzekoa da Lanbide-Kualifikazioen Sistemari lotutako Moduluen Katalogoa.

- ▶ Talde sozial berrien eskaera pertsonaletara egokitu behar du hezkuntza sistemak genero-ikuspegia erabiltzeko, prestakuntzaren hausnarketa integratzailea abiapuntu izanda.

Eta gai horiek guztiak zenbait esku-hartze ildotan zehaztu dira:

- ▶ Hezkuntza esparruan aurre hartzeko neurriak ezartzea, balioetan oinarritutako hezkuntza eta bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza sustatzeko. (0.3. esku-hartze ildo)
- ▶ Enplegu bila dabiltzan edo enpresa berria sortu nahi duten gazteentzako, lehiatila bakarreko zerbitzua garatzea. (1.3. esku-hartze ildo)
- ▶ Irakaskuntza-zentroak eta lan-mundua elkarrengana hurbiltzea. (2.1. esku-hartze ildo)
- ▶ “Bizitza osoan zeharreko prestakuntza” kontzeptuaren garapena bultzatzea (2.2. esku-hartze ildo)
- ▶ Irakaskuntza-zentroetan balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea. (2.4. esku-hartze ildo)
- ▶ Ikastetxeak gizarte-ingurunera hurbiltzea (2.5. esku-hartze ildo)
- ▶ Ikasleak irakaskuntza-zentroetan parte hartzea sustatuko duten estrategiak garatzea. (2.6. esku-hartze ildo)
- ▶ Hezkuntza-esparrutik aniztasuna eta desberdintasunari heltzeko ekintzak garatzea (2.7. esku-hartze ildo)
- ▶ Gazteen artean bizimodu eta jarrera osasungarriak sustatzea (4.1. esku-hartze ildo)

4. EKINTZA ETA PROGRAMAK

4.1. *Sailak II. Gazte Planean garatzen dituen ekintzak*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ondorengo ekintzak programatu ditu 2004. urterako:

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Etengabeko Irakaskuntzako Zuzendaritza		
2.2.1. Irakaskuntza ez-arautuan eskaintzen diren Prestakuntza okupazionala eta praktika-programen erakunde-arte koordinazioa sustatzea.	Prestakuntza arautua bukatutakoan, gazteek prestakuntza prozesuetan parte hartzen jarrai dezaten bultzatzea.	
	Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren kultura zabaltzeko eta sustatzeko publizitate-kanpaina.	
	www.hiru.com etengabeko ikaskuntzaren ataria.	
	Bizitza osoko ikaskuntzaren esparruan prestakuntza-ekintzak garatzeko laguntza ekonomikoak.	
2.4.5. Irakaskuntza zentroetan gizarte-eredu europarraren balioen eta oinarrien inguruko ezagutza eta hausnarketa sustatzea; gazteak Europaren eraikuntza prozesuetara hurbiltzea –mintegi eta mahai-inguruekin– eta baita ondorengo gai hauen globalizazio prozesuetara ere: eskubideak, aukerak, elkartasuna, justizia soziala, garapen bidean dauden herrialdeekin kooperazioa eta kultur aniztasuna.	Leonardo Da Vinci Lanbide Heziketako Europako programan ikastetxeen parte-hartzea bultzatzea.	Europar Batasunak aldi berean finantzatuta
Lanbide Heziketako Zuzendaritza		
1.3.2. Lanbide-orientazioko gida lantzea, lana sortu eta bilatzeari dagokionez gazteei erantzun eta aholkua emango diena. Ildo horretan, gida horrek lanarekiko jarrera aktiboagoa bultzatuko du lana bilatzeko orduan, eta hori ez ezik, aholkuak ere emango ditu enpresa berriak sortzeko aukerei, enplegu-gune berriei, lan-merkatuko prestakuntza-eskakizunei, lana bilatzeko estrategiei eta gizarte-trebetasunak garatzeari buruz.	DBHko eta Batxilergoko ikasleen artean Lanbide Heziketa zabaltzeko gida bat egitea.	240.000 €
2.1.5. Lanbide Heziketari prestigioa emateko eta hartara gazteak erakartzeko planak sustatzea.	Lantokietan Prestakuntza modulua(praktika enpresetan) egin ahal izateko,Lanbide Heziketako ikasleak hartzendituzten enpresentzako laguntzak.	2.170.000 €
	Lanbide Heziketaren II. Erakusketa.	640.000 €
Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritza		
0.3.10. Hezkuntza-komunitatean elkarrizketarako foro eta esparruak sustatzea, gatazkak konpondu eta indarkeria gaitzesteko.	Gatazken konponketaz eta bortizkeriaren gaitzespenez hitz egiteko foro eta markoak bultzatzea hezkuntza komunitatean.	72.000 €
0.3.12. Bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza-material didaktikoa sortzeko laguntzak.	Material didaktikoa prestatzea.	48.402 €
0.3.13. Testuliburuari emandako baimenak berrikusten jarraitzea, indarkeriaren larritasuna ez erlatibizatzen.	Testu liburuentzako baimenak berraztertzea.	Ez dago berariazko aurrekonturik

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza		
0.3.7. Irakasleak bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzan trebatzeko Plana.	Irakasleak bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzan trebatzea. -Gatazkak konpontzeari buruzko ikastaroak. -Gatazkak eraldatzeari buruzko mintegiak. -Bake Positiboari buruzko ikastaroak.	43.060 €
2.1.1. Hezkuntza-zentroen eta enpresen arteko kolaborazio-hitzarmenak bultzatzea, enpresetara ikustaldiak egiteko asmoz.	Industria etorkizunera hurbiltzen.	Industria Sailak finantzatu du
2.1.2. Hezkuntza-zentroetan lanbideko informazio- eta orientazio-zerbitzuak sustatzea, eta gazteei haien heziketa-ibilbidea hautatzeko eta enplegua bilatzeko aholkua ematea, lan-merkatuari buruzko informazioa emanez (enplegua aurkitzeko aukerak eta ordainsariak).	Berme Sozialeko Programen barruan dauden Lanbide Hastapenerako Programak, 16 eta 21 urte bitarteko gazteentzat. Ikastetxeetan orientatzaileak jartzeko prozesua garatzea eta bukatzea. -Ardura duten langileen prestakuntza hobetzea. -Baliabide materialak sortzea. -Zonako koordinaziorako egitura iraunkorra sortzea eta bertan Berritzegune inguruko prestakuntza eskaintza guztia sartzeari.	12.754.053 € 20.500 €
2.1.6. Gazteen prestakuntza-maila hobetzea, Informazioaren Teknologia Berriei buruz duten ezagutza handituz eta enplegurako prestakuntzan eleaniztasuna sartuz.	-Irakasleen prestakuntza areagotzea. -Materiala sortzea. -Berritzegune eremutik, ikaskuntzaren arlo bakoitzean informatikaren aplikazioa sustatzea.	428.467 €
2.4.1. Irakaskuntza-zentroetan balioetan oinarritutako hezkuntza emateko beharrezkoa den curriculum-materiala prestatzea eta foro bat eratzea balioei buruz hitz egiteko.	-Eskolako bizikidetzak dela-eta, ohitura onak trukatzeko eta ikasteko topaketak antolatzea. -Bizikidetzari buruzko zonako mintegiak. -Hezkidetzari buruzko zonako mintegiak. -Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren web orriaren bitartez eskura daitekeen materiala ematea. -Baliabide-sorta sortzea. -Materiala sortzea.	212.180 €
2.4.2. Eskolako eta eskolatik kanpoko jarduerak guztietan balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea, zentroko urteko planean hezkuntza-mota hori sartzeko orientazioak ezarrita.	-Ikastetxeetan esparru horri buruzko proiektuak bultzatzea. -Irakasleei aholkatzea. -Irakasleak prestatzea. -Bizikidetzarako Hezkuntzaren Programa.	1.281.055 €
2.4.3. Irakasleek eta ikasleek gatazkak elkarrizketa eta partehartzearen bitartez konpontzen ikas dezaten, haientzako trebatze-esperientziak sustatzea, bizikidetzarako mesedegarri diren tresna moduan.	-Ikaskuntza-komunitateen proiektuak bultzatzea. -Ikaskuntza-komunitateei buruzko sentsibilizazioari ekitea. -Ikaskuntza-komunitateei buruzko lan-mintegiak lehen eta bigarren mailako irakasle eta ikasleekin. -Gernika Gogoratuz-i gatazkak konpontzeko ekintzak eskaintzea. -Irakasleak prestatzea. -Ikasgelan esperientziak garatzea. -Bizikidetzarako Hezkuntzaren Programa.	119.600 €

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza		
2.4.5. Irakaskuntza zentroetan gizarte-eredu europarraren balioen eta oinarrien inguruko ezagutza eta hausnarketa sustatzea; gazteak Europaren eraikuntza prozesuetara hurbiltzea –mintegi eta mahai-inguruekin– eta baita ondorengo gai hauen globalizazio prozesuetara ere: eskubideak, aukerak, elkartasuna, justizia soziala, garapen bidean dauden herrialdeekin kooperazioa eta kultur aniztasuna.	-Atzerrian dauden ikasleentzako beka. -Eskolen arteko trukeak eta alderdi anitzeko topaketak. -Europako programak: Sokrates Programa eta beste zenbait. -Europako dimentsioa curriculumean sartzea.	1.115.620 €
2.4.6. Ikastetxeetan demokraziaren, tolerantziaren, bakearen eta askatasunaren baloreak sustatzea, sentsibilizazio-kanpainak eta gatazkak konpontzeko programak abian jarritz, indarkeriazko portaera eta jarrera guztiei aurre egiteko.	-Ijitoen kulturari buruzko CDa euskaratzea. -Irakasleei CDa erabiltzen irakastea. -Ikasle ijitoak Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzeaz eginiko lana. -Kultura arteko hezkuntzari buruz prestakuntza foroak sortzea. -Bizikidetzaren Programa garatzea. -Eskolara huts egiteari buruzko lana. -MUSE Programa.	100.867,00 €
2.5.3. Zentroaren curriculum-proiektuan hurbileko ingurune soziokulturalaren errealitatea sustatzea eta sartzan laguntzea, bai eta Europakoa ere.	-PCCan sartzeko orientatzea. -Europako programak. -Europaren dimentsioari buruzko programa. -Irakasleak prestatzea.	23.000 €
2.6.1. Ikasleek irakaskuntza-zentroetan parte hartzeko duten modu desberdinak garatuko dituzten argibideak landu eta zabaltzea.	-Zuzendariak kreditatzeko prestakuntza jardueraren deialdia. -Orientatzaileekin egindako zonako mintegiak. -Orientatzeko jardunaldiak.	6.500 €
2.7.2. Hezkuntza-zentroak emigrazioaren errealitatera egokitzea, aipatu zentroak baliabide egokiez hornituz.	-Ikasle etorkinen beharrei erantzuteko beharrezko baliabideez hornitzea. -Irakasleak prestatzea. -Esperientziak garatzea.	2.139.000 €
4.1.4. Eskoletan eta unibertsitatean osasunerako hezkuntza sustatzea.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarenmenpe, Droga menpekotasuneko hirurteko Planean sartutako programak.	4.457.706,78 €
	-Berrikuntzako proiektuak garatzea. -Irakasleak prestatzea eta aholkatzea. -Materialak egitea. -Afektibitate-sexu proiektuak garatzea.	84.980 €

4.2. II. Gazte Planean jasota ez dauden ekintzak

2003. urtetik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila garatzen ari den ekintzak, II. Gazte Planean jasota egon ala ez egon, gazteen interesei erantzutera bideratuta daude. Ekintza horiek gazteen prestakuntzaren osagarri dira eta gizarte osoarentzat beharrezkoak, izan ere, gutxi barru lan munduan sartuko dira gure gazteak.

Gazteriaren prestakuntza osatzeko interesgarri eta beharrezko diren zenbait ekintza burutuko bada, erakunde baten ikuspuntutik ezinbestekoa izango da beste erakunde batzuekin akordioak eta konpromisoak lortzea.

Ildo horretatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila Eusko Jaurlaritzaren beste Sail eta erakunde batzuekin elkarlanean ari da zenbait ekintza egiteko. Hona hemen ekintzok:

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailarekin ondorengoak burutu dira:

- ▶ Garapen Iraunkorraren Ingurumeneko Euskal Estrategia 2002-2003 delakoaren onarpena, Urdaibain, 2003ko ekainaren 3an, Gobernu Kontseiluaren aldetik.
- ▶ Ingurumenaren Kontsumo Iraunkorrari buruzko Proiektua egitea.
- ▶ Euskal Administrazio Publikoan lanean diharduten langileentzako Ingurumenaren Prestakuntzari buruzko Plana, 2003-2006 aldian.
- ▶ Eskolako Agenda 21aren zabalkundea eta aholkularitza, udalen eta Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegien (IIHIIen) laguntzarekin.
- ▶ Unibertsitatez kanpoko ikastetxeei egindako deialdia, ingurumen programen sustapenaren eta garapenaren inguruko hezkuntza berrikuntzako proiektuak aurkez dituzaten. Guztira 184 ikastetxek hartu dute parte.

Osasun Sailarekin, Gazte Planean jasotako ekintzez gain, hezkuntza premia bereziak antzematen eta premia horiei erantzungo dieten ekintzak prestatzen dihardu.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin batera, eskoletako taldeak enpresa mundura hurbiltzeko xedea duen gizarte eta hezkuntza kanpaina jarri da abian. Gazteei gure industria eta ekonomia ingurunea hobeto ezagutzen laguntzea, eta gure inguruko jarduera ekonomikoekiko jarrera baikorra eta harkorra sorraraztea du helburu.

Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearekin batera egin da, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana. Bertan, pertsonen garapen integralerako oinarrizko bideetako bat hezkidetzaz izan litekeela planteatu da.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailarekin batera, "Hiru Lurraldeetako Justizia Jaurrietatik ibilbide didaktikoak" programatu dira. Jarduera hori Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendurik dago. Bere helburua bakerako eta gatazken konponbiderako hezkuntzari buruzko ekintza-ildoak bultzatzea da. 2004ra arte 147 ikastetxek, 280 irakaslek eta 5.329 ikaslek hartu dute parte.

EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

1. MARKO TEORIKOA

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, 2002-2005 Etxebizitza Bideratzeko Planaren bitartez, Euskadin etxebizitzak duen egoera eta arazoa aztertu ditu eta Plana iradoki duten printzipioak aurkeztu. Printzipio horiek abiapuntu direla diseinatu dira Ardatz Estrategikoak, helburuak eta garatu beharreko jardunbideak.

Etxebizitza Bideratzeko Planaren helburu nagusia da euskal hiritar guztiei etxebizitza eskuratzeko aukera bermatzea, hau da, etxebizitza duina edukitzeko eskubidea benetan betetzea, oro har hezkuntza edo osasun arreta izateko eskubideekin gertatzen den bezala.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak gazteen errealitateari heldu nahi dio, aintzat izanik gazteen emantzipazio prozesuan etxebizitza dela elementu garrantzitsuenetako bat, enpleguarekin batera. Bi elementu horiek —enplegua eta etxebizitza, alegia— dira gazteak gehien arduratu eta kezkatzen dituztenak.

Etxebizitza pertsona gazteen oinarrizko eskubidetzat jo behar da. Etxebizitzak gazteei garapen pertsonalerako berezko tokia eskaintzen die, ardura berriei ekiteko aukera ematen die eta beren ibilbide pertsonalean etorkizun berrirako bidea irekitzen die. Integrazteko garaian, lanak eta etxebizitzak oinarrizko eskarmentuz eta identitate-ezaugarriez hornitzen dute norbanakoa. Bi alderdi horiek, beraz, gazteen garapenerako erreferenteak dira eta ingurune bati, habitat eta komunitate bati lotuta egoten laguntzen diete.

Ikuspuntu horretatik, gazteak bere sentitzen duen toki bat, hau da, bere bizitza proiektua antolatu eta gara dezakeen lekua edukitzeko aukerarik ez badu, azkenean bertan behera utzi edo atzeratu egingo ditu proiektuak, edo bestela, lotura gehien duen bizikidetzan nukleoaren —gehienetan bere familiaren— behar eta egoeretara baldintzatuko ditu.

Ildo horretatik, pertsonaren garapen integralean etxebizitzak zenbaterainoko garrantzia duen konturatzeko berekin dakar ondasun hori eskuratzeko dauden zailtasunak desagerrarazteko bideak bilatu beharra. Era berean, gazte, behar eta egoera bakoitzari erantzuteko ere irtenbide anitzak planteatu beharko dira, eta horretarako ezinbestekoa izango da etxebizitzaren arazoari eusterakoan helburuak lehenestea, baina betiere epe luzea ahaztu gabe eta lan egiterakoan honakoak ahalik eta gehien erabilia: irudimena (inguruko herrietan ikusten diren joerei arreta eskainiz), malgutasuna (egun dauden aukerei bidea irekiz) eta erabakitasuna (bide eraginkorren aldeko apustu garbia eginez).

Etxebizitza ondasun urria da eta, hala delako, behar bezala administratu behar da. Askotan ahalegin guztiak elkartu egin beharko dira eta administrazioek euren jarduerak lehenetsi egin beharko dituzte, ahalik eta jende kopururik handienari erantzun ahal izateko.

Ildo horretatik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila bere etxebizitza-politikaren bitartez saiatzen ari da etxebizitza edukitzea eskubidea izan dadin, eta ez luxu garestia.

Horretarako, Babes Ofizialeko Etxebizitzen (BOEen) aldeko apostu handia egin du prezioak eskuragarriagoak izan daitezen; alokairua ere bultzatzen ari da etxebizitza erosteko dagoen kulturaren alternatiba modura; eta ahalik eta etxebizitza huts gehien mugitzen saiatzen ari da BOEen eskaintza urriari nolabait erantzuteko. Aipagarria da, baita ere, iruzurrari eta espekulazioari aurre egitera bideratutako neurriak sortzeko ahalegin handia egiten ari dela.

Azkenik, esan beharra dago, administrazioak eragile sozialekin batera, koordinatuta, lan egin behar duela, jarraipena egin ahal izateko higiezin eta, oro har, etxebizitzen merkatuaren egoerari.

2. ARDURAK ESLEITZEA

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, bere Etxebizitza sailburuaren bitartez, bere gain hartu du gazteriaren alorreko politikaren ardura.

Halaber, Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritza da Ikasketa, Planifikazio eta Aurrekontu Zerbitzuaren bitartez, politika hori kudeatzeko ardura duena, hots, gazteriarekin lotutako programa eta ekintza guztien programazioa, jarraipena eta ebaluazioa egiteaz.

3. EGOERAREN DIAGNOSIA

EAEn Etxebizitzaren Beharrari eta Eskaerari buruzko Azterlana 2003, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egin zuen ikerketaren emaitzen arabera, lehendabiziko etxebizitza eskuratzeko beharraren indizea egonkortu egin da azken urtean. Horrek esan nahi du, oraindik ere gehieneko mailan badago ere, lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteen kopurua egonkortzen hasi dela. Behar hori euskal familien % 12,40k dute. Dena dela, horrek, zifra absolutuetan, esan nahi du 90.000 etxebizitzatik gora behar direla, beraz, maximo historikoetan mantentzen da kopurua.

Aurreko urteetako inkestekin konparatuz gero (2002an % 12,64), emaitza horrek adierazten du azken urtean adinagatik talde horretan sartu den pertsona kopurua eta etxebizitza lortu dutenena antzekoa dela. Dena dela, indizea estatistika-segidaren mailarik altuenetan mantentzen da oraindik ere (2001. urtean, % 10,24 eta 1996. urteaz geroztik, % 8,82, batez beste).

Demografiaren bilakaeraren ondorioa dugu egoera hori, izan ere, 18 urte betetzen dituzten biztanle-kohortetan etengabeko murrizketa gertatzen ari da. Azken urteotako bilakaera ikusita, pentsatu behar da etxebizitzaren eskaeran eragiten duten beste hainbat faktorek ere egonkortasun horretan zerikusia izan dutela, esate baterako egoera ekonomikoak eta batez ere enpleguaren bilakaerak.

Esanak esan, ez da ahaztu behar talde horiek oraindik ere gehienezko mailan daudela, beraz, etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteak asko izaten jarraitzen dutela. Badi-rudi, ordea, etxebizitzaren merkatuan eragindako presioa laster eta nabarmen hasiko dela jaisten.

Lehendabiziko etxebizitza eskuratu nahi duten gazteen kopuruak berdintsu jarraitzen duen bezala, etxebizitza ordaindu ahal izateko duten gaitasunak ere antzeko jarraitu du, aldaketa nabarmen batzuk gorabehera. Alde batetik, orain urtebetekoen aldean interes ti-poak apur bat baxuago daudenez gero, ahalegin berbera eginda gehiago ordain daiteke, printzipioz. Beste alde batetik, ordea, merkatu librean etxebizitzaren prezioak izan duen goranzko joerak, nahiz eta erritmo txikiagoan izan, aurreko efektua eta agizko erosle horien diru-sarreraren hazkuntza bera ere konpentsatzen ditu.

Horren ondorioz, talde horrek etxebizitza bat egiteko batez beste egin behar duen finantza ahaleginaren mailak (bere diru-sarreraren % 44) nahiko egonkor egon da azken urtean eta maila altua edukitzeaz gain, berriro erakusten du nabarmena dela dagoen oreka eza, izan ere, etxebizitza eskuratzeko talde horrek hileroko gastatzea aurreikusten duen kantitatea ez da inola ere nahikoa aurreikusitako prezio eta kreditu portzentaje-etarako.

Egoerarik zailenak eta etxebizitzaren beharra asetzeko zailtasunik handienak dituzten taldeak kontuan hartuz gero, 2003ko Inkestak adierazten duenez, etxebizitza beharra duten pertsonen dagokienez, (printzipioz horiengan guztiengan arreta jarrita dago, etxebizitza ez dutelako) 72.000 eurotik gorako etxebizitzak ezin omen dituzte erosi kasu guztien % 16,6tan (ia 15.000 pertsona). Maila hori nahiko egonkor egon da azken urteotan, 1990eko hamarkadaren bigarren erdialdean egon zen murrizketaren ondoren. Prezioaren muga 96.000 eurora igotzen bada, berriz, era horretako beharra dutenen laudenera iritsi-ko gara (23.400 pertsona).

Egondako bilakaerari begiratzen badiogu, etxebizitza sozialen eta babestutako etxebizitzaren mailan biztanle-segmentua apurka-apurka murrizten ari da eta aldaketa behar duten familien kasuan, berriz, badi-rudi segmentu horiek egonkortu egin direla.

Aurreko urteetan bezala, aldaketa behar duten familiarik gehienek eta etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazte gehienek ere (% 88,2k eta % 85,8k, hurrenez hurren) uste dute etxebizitza eskaintza ez dela egokia, edo batere egokia, eurek dituzten aukeratarako eta azken ekitaldian etxebizitza asko garestitu delakoan daude, gainera.

Etxebizitzaren arazoarentzat egon litezkeen irtenbideei dagokienez, inkesta egin zaie-nen artean nabarmen egin du gora lurzorua merketu dela aipatzen dutenen proportzioak eta hala, etxebizitza aldatu edo eskuratzeko beharra duten taldeen % 56k gutxi gora-behe-ra aukera hori berori aipatzen dute. Babestutako etxebizitza gehiago eraikitzea da aldeko gehien jasotzen duen bigarren aukera.

Alokairua bultzatzea lehentasunezko irtenbideen artean agertzen ez bada ere, beharra duten talde guztiek gero eta hobeto ikusten dute eraikitzen diren babestutako etxebizitza gehiengoaren alokairuan eskaintzeko izatea. Etxebizitza aldaketa behar duten familien edo etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteen ia erdia nahiko edo erabat ados dago neurri horrekin.

Galdetutako familien ia bi herenek uste dute babestutako etxebizitzaren eraikuntza-erritmoa handitu egin dela azken urteetan. Hala ere, aurreko urteekin alderatuz gero uste hori gehixeagok badute ere, laurdenak baino ez du erabateko edo nahiko konfiantza zozketan eta babes ofizialeko etxebizitzak emateko prozesuan. Horrezaz gain, % 30-40 inguruk baino ez dute uste babes ofizialeko etxebizitzak benetan behar dituztenei ematen zaizkienik.

Etxebizitza eskuratzen laguntzeko Eusko Jaurlaritzak egiten duen lana baloratzerakoan, erabateko eragina dute alderdi horiek. Horrexegatik, etxebizitza aldatzeko edo eskuratzeko beharra duten taldeek bere lana "hala moduzkoa" dela uste dute. Etxebizitza birgaitzeko beharra duen taldeak eta beharrik gabekoak (familia gehienak) askoz ere iritzi hobea dute.

Beste alde batetik, 2003ko Oinarrizko Inkestak adierazten duenez, Etxebide gero eta ezagunagoa egiten ari da: etxebizitza eskuratzeko beharra duten gazteen % 76,7ek eta aldaketa beharra duten familien % 54,4k ezagutzen omen dute zerbitzu hori.

4. GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak honako helburuak planteatu ditu gazteek etxebizitzarekin duten arazoa konpontzearen.

- ▶ Gazteei etxebizitza eskuratzen laguntzea babestutako etxeen eskaintza handituz eta, batez ere, alokairua bultzatuz.
- ▶ Etxebizitzaren arazoa dela-eta, ekintzak sustatzea eta bestelako irtenbideei buruz sentsibilizatzea.

5. EKINTZA ETA PROGRAMAK

Ondorengo ekintza hauen bitartez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak gazte guztiei etxebizitza eskuratzeko bermatu nahi die.

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
3.1.1. Gizarte-errentako eskaintza publikoa sortzea, eta gutxienez etxebizitzaren % 25 gazteentzako errentakoak izatea.	Etxebizitza sozialak direlakoan eskaintza handitzea. Etxebizitza mota hau talde behartsuenei zuzendurik dago (35 urtetik beherakoak barne).	12.000.000 €
3.1.2. Etxebizitza berriak eta birgaituak errentan jartzeko promozioari laguntzak, eta hutsik dauden etxebizitzak merkatuan jartzeko azterketa, zerga-laguntzen edo zigorren bidez (IRPF, Elkartearen gaineko Zerga...).	Sustatzaileei zenbait laguntza ematea, etxebizitza berriak edo birgaitutakoak babestutako alokairurako utz ditzaten.	600.000 €
3.1.4. Etxebizitzaren tipologiak gazteen beharretara eta eskaeretara egokitzea.	Behar eta eskaerei buruzko ikerketa.	
3.1.7. Hutsik dauden etxebizitzak errentan jartzea sustatzea, eta etxebizitza horien portzentaje handi bat gazteentzat izango direla bermatzea.	-Etxebizitza hutsak alokairuan jartzeko dirulaguntzak jartzea. -Jarduerak Visesaren bitartez bideratzea. -Etxebizitza alokairuan jartzeko dirulaguntzen figura mantentzea eta sustatzea. -Laguntza horiei buruzko komunikazio kanpainak eta informazio zerbitzuak egitea. - Udalekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean jardutea etxebizitza hutsak identifikatzeko.	500.000 €
3.1.9. Udalentzako diru-laguntzak martxan jartzea, etxebizitza babestuen promoziora zuzendutako lurzoru udal-ondareak eraikitzeko.	Udalak diruz laguntzea babestutako etxebizitzak eraiki ditzaten.	125.000 €
3.1.11. Gazteei Babes Ofizialeko Etxebizitzaren promozioen berri ematea sustatzea.	-Babes ofizialeko etxebizitzak eskatzen dituztenen errolda etengabe irekita egotea. -Etxebidek eskaintzen dituen zerbitzuen berri emateko Komunikazio plana egitea. -Etxebideren web orria hobetzea. -Etxebizitza kontuetan eskumenen bat duten administrazio publikoen arteko koordinazioan aurrera egitea. -Bezeroaren asetze-adierazleen sistema jartzea.	
3.1.13. Lurzoruaren Legearen lanketan, landa-eremuko eskaerak lehendik dauden eraikuntzen jasagarritasunaren eta sendotzearen ikuspegitik jasotzea.	Lurzoruaren Legearen atal batean landa-eremuko eskaerak jasotzea.	

6. GAZTERIA POLITIKAREN JARRAIPENEN ETA EBALUAZIO SISTEMA

2002ko azaroaren 5ean Gobernu Kontseiluak indarrean dagoen 2002-2005 Etxebizitza Bideratzeko Plana onartu zuen. Bertan, ebaluaziorako eta jarraipena egiteko eredu osoa jasotzen da. Horri esker, Planaren eraginkortasuna neurtu daiteke, adierazle kontagarri, adierazgarri eta neurgarriez osatutako sistema integratu baten bitartez.

Burutzapenean egondako aurrerapenen ebaluazioen berri emateko, Ekonomia Gaietarako Batzorde Ordezkaritari aldizka txostenak emango zaizkio eta Eusko Legebiltzararentzat Urteko Memoria egingo da.

EUSKO JAURLARITZAREN JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

1. MARKO TEORIKOA

Abiapuntu modura kontuan izan behar da, aurrerapen handiak ekarriko dituen ekonomia eta gizarte eredu berri baten atarian gaudela, eta prest egon behar dugula horretarako.

Egoera horrelakoa delako, behartuta gaude enpleguaren ezegonkortasuna, bazterkeria nukleoak eta gizarte arrotza gainditzera, eta hori lortzeko zimentuak jartzen hasiak gara —horren lekuko ona da honako Gazte Plana—. Kantitateari begiratuz gero, aurreko garai batzuetan jasan ditugunak bezain garrantzitsuak ez izan arren, komeniko litzateke, eta halaxe egiten ari da, behar diren neurriak jartzea gutxietsitako talderen batekoa izate hutsagatik dauden asimetriak ekiditeko, emakume, gazte eta etorkinak, kasurako. Guztiok batera aurrera egitea da erronka, euskal gizarteak elkartuta egitea aurrerantz eta Sailaren ekintza guztiak ildo horretatik abiatuko dira.

2. ARDURAK ESLEITZEA

- ▶ Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuordetza
- ▶ Justizia Sailburuordetza
- ▶ Gizarteratze Sailburuordetza

3. GAZTEEN EGOERAREN DIAGNOSIA

Gazte batentzat lana aurkitzea izango da, ziur aski, kezkarik handiena. Hala da edonorentzat, baina gazteen kasuan enpleguaren arazoa nabarmen handitu egiten da.

Azken urteotan gure herrialdean lan merkatuak izan duen bilakaera ona dela-eta, gure gazteria alde batera geratu ez bada ere (16-24 urte bitarteko gazteen enplegu-tasak 1,5 puntuko hobekuntza izan du 2000-2003 artean), estatistikek erakusten dutenez, biztanleriaren beste segmentu batzuek lana lortzerakoan izan duten aurrerakadaren bestekoa ez dute izan gazteek.

Gogoratu behar da enpleguaren tasa orokorrak, 2000-2003 bitartean, 6,6 puntuko hobekuntza izan duela eta emakumeen enplegu tasak, berriz, 8,2 puntukoa.

Beste alde batetik, jakina da balioetan oinarritutako hezkuntza deitzen diogun horrek araututako irakaskuntza duela oinarritzko eremu, hala ere, aintzat hartu behar dugu gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direla hezkuntza osatzeko bestelako guneak, esate baterako, eskolaz kanpoko ekintzak, aisialdia, familia bera, komunikabideak (telebista bereziki) eta abar.

4. GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK

4.1. Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuordetza

Hasteko, esan behar da gazteriarekin lotutako guztiaz arduratuta dagoela sail hau eta, batez ere, gazteek lana lor dezaten, eta lan hori egonkorra eta kalitatezkoa izan dadin.

Gazteen lan egoera hobetzen laguntzeko egin beharreko ahalegin handi honetan, Gazte Plana oso tresna baliagarria da, gazteen prestakuntza eta enplegua sustatzen eta gaitzen diharduten erakundeen eta gainerako eragileen lehentasun eta konpromisoak sintetizatu ahal izango direlako.

Lan eta Prestakuntza Zuzendaritzak honako jarduera ildoak izango ditu Gazte Planaren barruan:

“Politika koordinatua sustatzea, gazteentzako lanpostuak sortzea eta mantentzea helburu duena, ekintza positiboko neurriak hartzearen, zerga-abantailak ezartzearen eta kontratazioari dirulaguntzak ematearen bitartez” 1.1. esku-hartze ildoari dagokionez, jarduerak izango dira:

- ▮ Prestakuntza bultzatzeko dirulaguntza-ildo bat garatzea, ondoren, luzaroan langabezia dauden gazteak praktikak egiteko kontratatzea.
- ▮ Kontratazio mugagabeari laguntzeko neurri buruzko 2/1998 Dekretuaren barruan, lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten gazteei kontratu mubeak egiteko ekintza garatzea.
- ▮ Laneratzen laguntzeko neurri buruzko 3/1998 Dekretua garatuz, ezgaitasunak dituzten gazteak, toxikomano izanikoak edo kartzelan egondakoak aldi baterako (12 hilabete gutxienez) kontratatzen laguntzea.
- ▮ Gizarte Ekonomiako enpresetan gazte langabeak bazkide modura sartzen laguntzea, enpresaren kapital sozialean egin beharra daukaten ekarpenaren baterako finantzaketaren bitartez.

1.2. esku-hartze ildoak “Enpleguaren banaketa sustatzeko politika koordinatua garatzea” dio. Horri dagokionez, hona hemen Sailak burutu dituen jarduerak:

- ▮ Erretiratzeko adinetik gertu dauden langileak erretiratzen direnean kontratazio berriak egiteko laguntzak emango dira.
- ▮ Laguntzak emango dira lanaldia banatu eta gazte langabe gehiago kontratatzea.

1.3. esku-hartze ildoak honako hau dio: “Enplegu bila dabilzan edo enpresa berria sortu nahi duten gazteentzako, leihatila bakarrek zerbitzua garatzea”. Horri dagokionez, hona Sailak bultzatu dituen jarduerak:

- ▮ Orientabide Zerbitzuen bitartez, langabezia dagoen jendeari laguntza pertsonalizatua ematea lan merkatuan sar daitezela. Zerbitzu horiek harrera eta jarraipen osoa bermatu beharko dituzte.

- ▶ Langai-Euskal Lan Zerbitzuaren datu-basea eta Lanbide.net lan-ataria mantenduko dira.

1.4. esku-hartze ildoak honako hau dio: “Autoenplegua eta gazteek gidatutako enpresak sortzea sustatzera zuzendutako politika koordinatua garatzea kooperatibismoaren eta beste formula batzuen bitartez”. Hona hemen esku-hartze ildo horri dagozkion jarduerak:

- ▶ Lanaren sorgune berriak izenekoetan ekonomia sozialeko enpresak abian jartzeko laguntzak emango dira.
- ▶ Gazte langabeen izpiritua ekintzailea eta gazteek enpresa berriak sortzea sustatuko da.
- ▶ Gazteen autoenplegua sustatzeko eta enpresa-bokazio berriak sortzeko laguntzak emango dira.

“Bizitza osoan zeharreko prestakuntza kontzeptuaren garapena sustatzea” dio 2.2. esku-hartze ildoak. Hona horri dagozkion jarduerak:

- ▶ Lanbide hastapeneko edota lanerako prestakuntzako ikasleen laneratze gaitasuna hobetzea, txandakako prestakuntza praktikak eginez.
- ▶ Laguntzak ematea lanerako prestakuntzako jarduerak edota enpleguaren inguruko informazioa, orientabidea eta motibazioa lantzeko jarduerak antolatzearen.

Esan beharra dago Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila ari dela gaur egun lan-ildo hori garatzen. Dena dela, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren jardura batzuk aipatu dira, aipatutako kontzeptuarekin lotuta daudelako.

4.2. *Justizia Sailburuordetza*

II. Gazte Planaren 2.4. esku-hartze ildoari jarraiki —“Irakaskuntza-zentroetan balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea”—, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila eta, zehatzago esanda, Justizia Sailburuordetza, bere jardura bi modutan gauzatzen ari da:

- ▶ Lehenik eta behin, Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin eta Gazteria Zuzendaritzarekin ari da elkarlanean, bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzaren esparruan. Era berean, aipatutako bi Zuzendaritza horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera ere ari dira lanean, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren bitartez.
- ▶ Bigarrenik, udalei dirulaguntzak ematen zaizkie bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzaren arloan ekimenak eta jarduerak egin ditzaten. Helburu nagusia hiritarrendi hurbilen dauden erakundeak estimulatzea da, gazteen artean bizikidetzaren batesuaren balioak zabaltzeko jarduerak egin ditzaten.

2.4. ildoak dela-eta, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak giza eskubideen inguruko kartela, idazlana eta ipuin laburra egiteko lehiaketa antolatzen du. Gainera, Haurren Gabetasun Parkean ere egoten da, Giza Eskubideak zabaltzeko umeentzako stand bat jarritz.

Ekimen horren helburua da, mundu zabalean ez ezik, ikasleen ingurune hurbilean ere giza eskubideak nolako arazoa diren hausnar dezatela.

II. Gazte Planean definitutako beste ekintzetako bat da aniztasuna eta berdintasun eza tratatzera bideratutako jarduerak garatzea. Ekintzak Gazte Justiziaren Zerbitzua bultzatzeko dira, hezkuntzaren aldetik gazte arau-hausleentzako arreta koordinatzeko eta bultzatzeko asmoz. Alderdi ekonomikotik nahiz langile kopuruaren alderditik ahalegin handia egiten jarraituko da, gure Autonomia Erkidegoan adin txikikoen epaileek ezarritako neurriak gauzatu behar direnean, hezkuntzaren alderditik gauza daitezten. Adin txikikoen egungo zigor-legeriak balio positiboak dituelakoan gaudenez, Sail honek Gazte Justiziaren Zerbitzuaren jarduera sustatuko du bi norabide hauetan:

- ▮ Alde batetik eta aukera hobe bezala, neurriak ingurune irekian gauzatzeaz arduratzen diren hezkuntza taldeak sendotuko dira (zaintzapeko askatasuna, komunitatearen onurarako lana, lan sozio-erakundeak eta abar). Hartara, adin txikikoen epaileek langile aukera eta aukera material desberdinak izango dituzte eskura, kalitatezkoak eta bermezkoak guztiak ere, era horretako neurriak lehentasunez aplikatu ahal izan ditzaten. Neurri hauek gauzatzeko lanari begira, garrantzitsua da aipatzea prestakuntza-prozesuan dauden pertsonen zuzentzen zaizkienean, prebentzioa eta esku-hartze soziala dutela helburu nagusi.
- ▮ Bigarren, internamendu-neurriak aplikatzeko baliabideei bultzada handia emango zaie, izan ere, hezkuntzaren aldetik begiraturata garrantzi handia hartzen dute, babesik gutxien eta esku-hartzeko beharrik handien duen taldearentzat izango baitira.

Adin txikikoen zigor-erantzukizunean beste alor bat dago, nerabe eta gazte arau-hausleei zuzentzen zaizkien bitartekaritza, kontziliazio eta konpontze programen sustapena, alegia. Gai horri dagokionez, kontuan hartu beharra dago Adin Txikikoen Epaitegietara atxikitako teknikari-taldeek egiten duten lana. Talde horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko langile profesionalek (psikologoek, gizarte langileek eta abarrek) osatzen dituzte eta eurak dira adin txikikoen espediente judizialak konpontzerakoan eta kontziliazterakoan bitartekaritza-prozesuak egiten dituztenak.

4.3. *Gizarteratze Sailburuordetza*

Gizarteratze Sailburuordetzak 4.3. esku-hartze ildoarekin du loturarik nabarmenena: “Gazteen gizarte-bazterketaren alorreko prebentzio eta esku-hartzea”. Bertan agertzen denez, Oinarrizko Errenta jaso ahal izateko adina bi urte gutxitu nahi da, 25etik 23ra.

Gizarte Bazterketaren aurkako 12/1998 Legea aldatzea onartu zuen Eusko Legebiltzarak 2003ko ekainaren 25ean. Oinarrizko Errenta nahiz Gizarte Larrialdietarako Laguntzak ahalik eta gazte gehienek jaso ahal izatea da helburua.

5. EKINTZAK ETA PROGRAMAK

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lankidetzarako Zuzendaritza		
0.1.4. Eusko Jaurlaritzaren Sailen arteko mahai bat antolatzea. Horrek, Partenariatuak "Bakerako hezkuntza, eskolan eta eskolatik kanpo" gaiari buruz egindako txostenetik abiatuta, proposamen batzuk landuko ditu, euskal gazteen artean Bakerako Hezkuntza hedatzeko.	Euskal gazteen artean Bakerako Hezkuntza zabaldu, berritu eta orokortu ahal izateko proposamenak egitea.	Berariazko gasturik gabe.
0.3.8. Ikastetxeetan demokraziaren, tolerantziaren, bakearen eta askatasunaren baloreak sustatzea, sentsibilizazio-kanpainak eta gatazkak konpontzeko programak abian jarri, indarkeriazko portaera eta jarrera guztiei aurre egiteko.	Giza Eskubideen eta bakearen aldeko jarduerak zabaldu, hedatu edo babesteko diren jardueretarako laguntzen deialdi publikoa. Hainbat programari emango zaizkio dirulaguntzak, baita bakerako hezkuntzarako direnei ere.	500.000 €
0.4.1. Sentsibilizazio sozialeko kanpaina, gazteei giza eskubideekiko errespetua, indarkeriarik eza eta justizia bizikidetzaren zutabeak direla ohartarazteko.	Bakerako Hezkuntzari buruzko programaren barruan egindako ekimena, Bakearen Kultura bultzatzen duten edota, udal nahiz eskualde mailan, gatazkak beren osotasunean era baketsuan erregulatzea sustatzen duten udalentsako dirulaguntza-ildoak sortzeko asmoz.	200.000 €
2.4.1. Irakaskuntza-zentroetan balioetan oinarritutako hezkuntza emateko beharrezkoa den curriculum-materiala prestatzea eta foro bat eratzea balioei buruz hitz egiteko.	Eusko Jaurlaritzaren mahai sektorialetik abiatuta, gizarte eragileen foroa sortzea, bertan Gazteen Euskal Behatokiak ere parte hartuko duelarik.	Berariazko gasturik gabe
4.3.1. Nerabe eta gazte arau-hausleekin, komunitatearen aldeko bitartekaritza, adiskidetzeko eta konpontze-programak sustatzea; osasun-tratamendua ematea, gizarte- eta hezkuntza-lanak sustatzea, etab.	Komunitatearen onurarako bitartekaritza, kontziliazio eta konpontze programak sustatzea: tratamendu ambulatorioa, eginkizun sozio-educatiiboak eta abar nerabe eta gazte arau-hausleekin.	569.000 €
Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza		
1.1.2. Iraupen luzeko langabezian dauden gazteen praktiketako kontratazioa indartzera zuzendutako diru-laguntza ildo baten garapena.	Luzaroan langabezian dauden gazteak kontratatuzeko laguntzak.	200.000 €
1.1.3. Gazte langabetuak kontratatuzeko diru-laguntzak ematea.	Gazte ezgaituak, toxikomano izanikoak edo kartzelan egondakoak aldi baterako kontratatuzeko laguntza.	110.000 €
1.2.3. Gizarte-eragileei (enpresariei eta langileei) negoziazio kolektiboan jardunaldi-murrizketa sartzea bultzatuko dieten neurri pizgarriak abian jartzea, gazte-enplegua handitu asmotan.	Lanaldiaren banaketarako laguntzak ematea.	15.000 €
1.2.4. Lan-banaketarako neurrien berrikuspina, garapena eta komunikazioa (ordezkapen-kontratua eta beste neurri batzuk).	Jubilatzeko adinetik hurbil dauden langileek erretiro partziala hartu izanagatik egiten diren kontratazio berriei laguntzak ematea.	1.650.000 €

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza		
1.2.4. Lan-banaketarako neurrien berrikuspena, garapena eta komunikazioa (ordezkapen-kontratua eta beste neurri batzuk).	Jubilatzeko adinetik hurbil dauden langileek erretiro partziala hartu izanagatik egiten diren kontratazio berriei laguntzak ematea.	1.650.000 €
	Jubilatzeko adinetik hurbil dauden langileek erretiroa hartu izanagatik, ekonomia sozialeko enpresetan egiten diren kontratazio berriei laguntzak ematea.	500.000 €
1.3.3. Biztanleria langabetuaren laguntza personalizatua indartu, lan merkatura sartzeari begira, Orientazio-Zerbitzuen bidez. Horiek gazte langabetuaren ibilbidearen, jarraipen eta harrera osoa bermatu beharko dute.	Lana bilatzeko plangintza sustatzea, helburu profesionala definituz eta laneratzeko gaitasuna areagotuko duten prestakuntza-ekintzak eginez.	380.000 €
1.4.1. Gazteen artean enpresarako bokazioak piztea helburu izango duen proiektuak koordinatzea.	Izpiritu ekintzailea duten gazte langabeak praktiketan kontratatzekeko laguntzak.	1.100.000 €
1.4.2. Autoenplegu gaztea sustatzeko laguntzak ematea.	Gazteen autoenplegua sustatzeko laguntzak ematea.	230.000 €
1.5.6. Gazteen kontratazio mugagabeei laguntzak.	Gazte langabeei kontratu mugagabeak egiteko laguntza.	90.000 €
2.2.1. Irakaskuntza ez-arautuan eskaintzen diren Prestakuntza okupazionala eta praktika-programen erakunde-arteko koordinazioa sustatzea.	Enpresetan praktikak egitea bultzatzea, gazteek lan eskarmentua izan dezaten.	360.000 €
2.2.2. Hurrengo lau urteetan, gazte langabetuen % 100ari (legealdian zehar, urtean % 25i, hain zuzen ere) enpleguko, prestakuntzako, birziklatzeko, lan-praktiketako edo aldi baterako gizarte-laneko kontratuko esperientziaren bat eskaintzea.	Kualifikazio profesionala sustatzea, lana aurkitzeko gaitasuna areagotzeko.	4.200.000 €
Egailan/Langai		
1.3.1. Honakoei buruzko informazioa jasoko duen datu-base bat mantendu: gazte hautagaien curriculumak, enpresen enplegu-eskaera eta lanpostu berriak. Elikatuta egon dadila eta telematikaren bidez, sarea osatzen duten alde guztiei zerbitzua eskaintzeko.	Langai-Euskal Enplegu Zerbitzuaren datu-basea mantentzea: curriculumak eta enpresen eskaintzak. LANBIDE.NET lan-ataria mantentzea.	Berariazko gasturik gabe
Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza		
1.1.5. Gazte langabetuak gizarte-ekonomiako enpresetako kide egin daitezten laguntzea, enpresaren gizarte-kapitalari egin beharreko ekarpenaren aldi bereko finantzaketaren bidez.	Gazte langabeak gizarte ekonomiako enpresetan sartzen laguntzea.	1.218.678 €
1.4.1. Gazteen artean enpresarako bokazioak piztea helburu izango duen proiektuak koordinatzea OSALAN, Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	Enplegu sorgune berrietan ekonomia sozialeko enpresak abian jartzeko laguntzak ematea.	190.000 €

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Osalan, Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea		
1.5.4. Heriotza-istripuen eta istripu larrien ikerketan adinaren faktorea eta behin-behinekotasuna istripuen gertaeren arrazoi gisa sartzea.	Osalanen lan-istripuak ikertzerakoan, hau da, hildakoak, oso larri edo larri zauritutakoak izaten diren istripuak aztertzerakoan, Ikerketarako Agiriaren bitartez eta Lan istripuak ikertzeko agiriarekin bat etorrira, hainbat datu jasotzen da. Istripuaren partekoak izaten dira eta ikerketarako agirikoak "aztertutako istripuak" datu-basean jasotzen dira.	Berariazko gasturik gabe
Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza		
2.5.3. Zentroaren curriculum-proiektuan hurbileko ingurune soziokulturalaren errealitatea sustatzea eta sartzen laguntzea, bai eta Europakoa ere.	Euskadiko epaitegietara gidaridun bisitaldiak antolatzea ikastetxeentzat eta Justizia Administrazioari buruzko gida didaktikoa egitea, ikastetxeetan banatzeko.	3.000 €
Gizarteratze Zuzendaritza		
4.3.4. Gizarte-desabantailako egoeran dauden 16 urtetik gorako gazteak heldutasunera igarotzeko programak sortu eta sustatzea	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) ematea, 18 urtetik gorako gazteak artatzeko.	2.400.000 €
	30 urtetik beherako gazteek Oinarrizko Errenta jasotzea.	21.000.000 €

EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILA

Osasun Sailak, inplikaturik dauden gainerako eragileekin batera, aktiboki jardun du I. Gazte Plana ebaluatzen, arloen diagnosis eguneratzen eta II. Gazte Plana osatzen duten esku-hartze ildo berriak eta ekintzak zehazten, bereziki osasunari dagokionean.

1. MARKO TEORIKOA

Biztanle guztien, eta, bereziki, gazteen osasunarekin zerikusia duten esku-hartze asko osasun sistemari atxikitako eskuduntzetatik kanpo daude, eta beste sektore batzuei dagozkie. Osasuna fenomeno konplexua da, hainbat faktoreren esku dagoena, eta sarri faktore horiek osasun sistematik kanpo harago doaz. Adina eta sexua, esaterako ezin dira aldatu. Batzuek zerikusia dute bizi-baldintzekin, ingurumenarekin, bizimoduarekin, eta beste batzuk oinarritzko zerbitzuak (osasun laguntza, hezkuntza edo gizarte zerbitzuak) jasotzeko ditugun aukerekin. Horiek guztioriek erabakigarriak dira osasunerako. Horregatik, osasuna hobetzeko ekintzek kontuan hartu behar dituzte parte hartzen duten esparru eta sektore guztiak.

Euskadiko 2002-2010 Osasun Planak sektore anitzeko jarduna proposatzen du biztanleriaren osasun maila hobetzeko, betiere biztanleriaren osasun beharretara, ezagutza berrietara eta eskura dauden tresnetara egokituta.

Euskadiko osasun sistemaren oinarritzko printzipioetako bat ekitatea da, unibertsaltasunarekin batera. Biztanleen artean osasun maila desberdinak daude, maila sozio-ekonomikoaren arabera. Osasun arloko gizarte-desberdintasunez hitz egitean, gizarte mailarekin eta bizi-baldintza sozio-ekonomikoekin zerikusia duten desberdintasunez hitz egiten da. Talde kaltetuenen osasun arazoak murriztea birbanatze-politiken giltzarrietako bat da, eta horrez gain, erkidegoko osasuna batez beste hobetzeko aukera handia eskaintzen du.

2. ARDURAK ESLEITZEA

- ▶ Gazteria arloko arduradun politikoa: Osasun sailburuordea.
- ▶ Esku-hartzeen kudeaketaren arduraduna: Osasunaren Sustapenerako arduraduna.

3. EGOERAREN DIAGNOSIA

Osasunaz arduraturik ez egotea da gazteen ezaugarrietako bat, oro har, osasun onekoak baitira. Hori dela-eta, bizitzaren aldi horretako osasun arazoak, gehienetan, kanpoko arrazoiengatik izan ohi dira, eta sarritan aisiarekin eta aisialdiarekin daukate zerikusia.

Zehaztearren, gazteen taldeari, osasunari dagokionez, bereziki eragiten dioten arriskuak honakoak dira: trafiko istripuak, mendekotasunak, sexu harremanetatik sortutako arazoak, elikadura eta buru arazoak. Horiek guztiak aztertu eta 2002-2010 Osasun Planean daude jasota.

4. GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK

- ▶ Osasun zerbitzuak gazteen kolektiboaren beharretara eta ezaugarrietara hurbiltzea eta egokitzea.
- ▶ Gazteen osasunarekin zerikusia duten baliabideei buruzko gida elkarreragilea sortzea.
- ▶ Gazte-taldearen osasun arazo nagusiak prebenitzeko jarduera garatzea: trafiko istripuak, mendekotasunak, HIESa, STGak, ustekabeko haurdunaldiak, elikadura arazoak eta buru arazoak.
- ▶ Osasun zerbitzuak gazteen kolektiboaren behar eta ezaugarrietara hurbiltzea eta egokitzea.
- ▶ Osasun hezkuntza indartzea ikastetxeetan eta unibertsitatean.

5. EKINTZAK ETA PROGRAMAK

Osasun Sailak jarduteko lau ikuspegi planteatzen ditu gazteen osasuna dela-eta:

- ▶ Ohitura eta jokabide osasuntsuak bultzatzea, hori baita gazteen osasun arazoak geldiarazteko aukerarik onenetakoa.
- ▶ Koordinazio hobea eta handiagoa bilatzea, sailen artean ez ezik, gainerako erakundeekin (foru aldundiak eta udalak) eta osasun programak kudeatzen esku hartzen duten gizarte-eragileekin ere bai.
- ▶ Gazteen gizarte eta familia ingurunean lan egitea, hori baita bide nagusia gazteen ohituretan aldaketak eragiteko.
- ▶ Egun dauden osasun zerbitzuak hurbiltzea eta egokitzea gazteen behar eta ezaugarrietara.

Zehatzago, eta sintesi gisa, II. Gazte Planak bi esku-hartze ildo proposatzen ditu:

- ▶ Gazteen artean bizimodu era eta jokabide osasuntsuak sustatzea.
- ▶ Esparru honetako esku-hartzeen koordinazioa bultzatzea.

5.1. Gazte Planean jasota dauden Osasun Saileko ekintzak

Gazteen kolektiboari eragiten dioten osasun arazo nagusiak erreferentzia hartuta, honakoak dira 2004. urterako programatu diren ekintzak II. Gazte Planaren barruan:

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Osasun Publikoko Zuzendaritza		
4.1.6. Osasun zerbitzuak gazte-kolektiboaren beharretara eta ezaugarrietara egokitzea.	Toxikomaniak hitzartu gabeko talde terapeutikoetan tratatzeko laguntza ekonomikoak, diru-laguntzak.	122.400 €
Osakidetza		
4.1.1. Gazteen osasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko baliabideen gida elkarrengile sortzea.	GIB-Hiesari aurre hartzeko hezkuntza material elkarrengile (gidak eta liburuxkak) egitea.	12.000 €
4.1.2. Gazteriaren osasun-arazo nagusiei (trafiko istripuak, menpetasun-jarrerak, HIESa, sexu-transmisioko gaixotasunak, gogoz kontrako haurdunaldiak, elikadura arazoak eta buru arazoak) aurre egiteko prebentzio-jarduera garatzea.	GIB-Hiesari aurre hartzea ikasgelako esku-hartzearen bidez eskolaratuta dauden 16-17 urteko nerabeengan.	66.111 €
	Farmazietan eta Hiesaren aurkako elkarteetan xiringak trukatzeko eta Hiesaren aurkako kita banatzeko programa.	138.600 €
	Emakumeentzako arreta-programa, Lehen mailako Osasun Arretarako Zentroetan sexu-heziketari, familia-planifikazioari eta sexu bidez transmititzen diren gaixotasunei buruzko eskaerei erantzuteko.	332.595 €
4.1.6. Osasun zerbitzuak gazte-kolektiboaren beharretara eta ezaugarrietara egokitzea.	Toxikomaniatik eratorritako arazoak dituzten gazteei laguntza ematea: drogarik gabeko programen bidez toxikomaniak tratatzea, metadona bidez mantentzeko programa eta bitarteko helburuen programak.	6.850.000 €
Osasun Sailburuordetza		
4.1.1 Gazteen osasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko baliabideen gida elkarrengile sortzea.	Osasun ataria, sarean.	200.000 €
	Tabakismoa prebenitzeko, kontrolatzeko eta murrizteko plana: gidak eta informazio-materiala egitea.	40.000 €
4.1.2. Gazteriaren osasun-arazo nagusiei (trafiko istripuak, menpetasun-jarrerak, HIESa, sexu-transmisioko gaixotasunak, gogoz kontrako haurdunaldiak, elikadura arazoak eta buru arazoak) aurre egiteko prebentzio-jarduera garatzea.	Tabakismoa prebenitzeko, kontrolatzeko eta murrizteko plana: erretzen ez dutenei edo erre gabe jarraitzen dutenei babesa emateko ekintzak, eta erretzeari utzi nahi diotenei laguntzeko ekintzak garatzea.	135.000 €
4.1.4 Eskoletan eta unibertsitatean osasunerako hezkuntza sustatzea.	Unibertsitatez kanpoko ikastetxeentzako deialdia, osasuna sustatzeko eta osasunaren aldeko hezkuntza emateko berrikuntza-programak aurkez dituzten.	75.768 €

5.2. Osasunaren esparruko beste ekintza batzuk

Azaldutakoaz gain, osasun publikoak euskal gizarteari eskaintzen dizkion prebentzio eta laguntza programetan beste hiru programa eta jarduera nabarmentzen dira, bereziki

gazteei eta beren osasunari gehienbat eragiten dieten arazoei zuzenduta daudenak: Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikorako Unitateak, Elikadura-portaeraren Arazoetarako Programa, HIESaren prebentzioari eta Sexu bidez transmitutako gaixotasunei buruzko kanpaina, 2003. urtean egina.

5.2.1. Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikorako Unitateak

2003ko maiatzean Basurtuko ospitalean Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikorako Unitatea inauguratu zuten eta 2002. urtean, berriz, Donostia ospitalean eta Vitoria-Gasteizko Santiago ospitalean beste bana inauguratu zituzten. Azken unitate horrekin hiru lurraldeetan Ospitaleratze Unitate Bereziak jartzeko hasitako prozesua bukatu zen, ospitale psikiatrikoetan sartzekoan adinagatik beharrian bereziak dituzten gaixoei zuzenduriko unitateak, hain zuzen ere.

2003. urtean Ospitaleratze Unitate hauetan 161 gazte eta nerabe artatu dituzte eta batez besteko egonaldia, gutxi gorabehera, hiru astekoa izan da. Gaixoen batez besteko adina, berriz, 15 urtekoa izan da.

Diagnostikoari dagokionez, psikosi kasuak eta afektibitate-arazoak egondako guztien % 50 izan dira. Gainerako kasuetan antsietate arazoak, jokabidearen arazo orokorrak eta elikadura-portaeraren arazoak izan dira nagusi, ordena horretan.

5.2.2. Elikadura-portaeraren Arazoak Tratatze Programak

1998. urteaz geroztik, Legebiltzarrean eztabaidatu eta onartu ondoren, Elikadura Portaeraren Arazoak Tratatze Programak jarri zituen abian Osakidetzak, batez ere emakumezko gazteei eragiten dien arazo horri erantzun zehatza ematearren.

Sei urte hauetako esperientzia eta lortutako emaitzak ikusi ondoren, honako ondorioak atera dira:

- ▶ Programa erabiltzen duen pertsonaren profila hau da: emakumezkoa (% 95), batez beste 22 urtekoa, ezkongabea (% 83), ikaslea (% 67), aita eta amarekin bizi dena (% 67) eta anai-arreba bakarra duena (% 40).
- ▶ Urte hauetan programan sartu diren kasu berrien kopurua urteko 600 inguruan geratu da egonkor. 2003. urtean, esate baterako, 574 gaixo berri sartu dira (horietatik %83, 35 urtetik beherakoak) eta guztira artatutako gaixoak 1.667 izan dira.
- ▶ Emaitzei dagokienez, kasu guztien % 60 inguruk hobera egin du, baina aipatzekoa da gizentzeko beldurrak luze irauten diela. Datu hori asko hobetzen da tratamendu osoa egiten duten gaixoengan (gaixoen % 25ek programa bertan behera utzi dute); horiengan hobekuntza % 80raino igotzen da.
- ▶ Azkenik, garbi ikusi da ospitale kanpoko ekipoak arazo hauen tratamenduaren ardatz izatea oso dela egokia, behar denetan, dagokion Ospitaleratze Unitatearen laguntza izanik.

5.2.3. HIESaren prebentziorako eta Sexu-transmisioko gaixotasunen Kanpaina

Osasun Saitetik kezka handiz ikusten dira gazte eta nerabeen sexu-ohituretan dauden aldaketak, izan ere, sexu-harreman seguruak alde batera uzten dituzte eta ondorioz, sexu-transmisioko gaixotasunek gora egin dute eta GIBak kutsatutakoen kopurua goraka hasi da.

Gezurra badirudi ere, neska-mutil askorentzat erabat ezezagunak dira sexu bidez transmititutako gaixotasunak. Joan den irailean, 16 eta 17 urteko Batxilergoko ikasleei egindako inkesta batek erakusten zuenez, 10etik 9k ez du ezagutzen sexu-transmisioko gaixotasunen (STG) izenik, ez eta sintoma bakar bat ere. Era berean, 10etik 8k ez dakite STG gehienak tratamendu batekin sendatu egiten direla eta % 55ek ez dakite STG batzuk tratatu ezean antzutasuna sor lezaketela. % 8k uste dute “pilula antisorgailuek STGetatik babesten dutela”.

Oso ondorio larriak dituen paradoxa baten aurrean gaude; gure historia osoan matematikan, fisikan, filosofian edo dena delakoan ondoen prestatua egon den gazte belaunaldi honek ezer gutxi daki bere buruaz, bere bizitzaz eta bere jokabideak osasunean zenbaterainoko eragina duen.

Egoera honen aurrean, Osasun Sailak prebentzio kanpaina bat burutu du “*zuk zeuk jarri edo neuk jarriko dizut*” lelopean, 120.000 eurotik gorako kostua izan zuena. Kanpainak hiru helburu jakin ditu:

- ▶ GIBaren hedakuntza geldiaraztea.
- ▶ Gazteak konturaztea sexu-transmisio bidezko infekzioak gero eta sarriago agertzen direla.
- ▶ Gazteek izaten dituzten sexu-harreman guztietan preserbatiboaren erabilera bultzatzea, dela gizonezkoen preserbatiboa dela emakumezkoena.

6. INDARRALDIA

Osasun Saila ezarritako helburuak garatzen dihardu oraingo 2002-2010 Osasun Plana abian jarri zenez geroztik eta helburu horiek aipatutako Plana bukatutakoan beteta izatea espero du.

5. atalean ezarritako ekintzak 2004ko ekitaldian burutu dira, baina litekeena da ekintza horietako zenbait 2005ean ere lantzen jarraitzea.

7. JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA

2002-2010 Osasun Planak jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema du eta agiri honetan adierazitako gazteria politiketan aplikatuko da.

EUSKO JAURLARITZAREN INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1. MARKO TEORIKOA

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren helburuak II. Gazten Planean jasotako barruan kokatzen dira. Honakoak hartu behar dira kontuan:

- ▶ Gazteen emantzipatzeko itxaropena hobetzen laguntzen dute, izan ere, industria, merkataritza eta turismoaren alorreko jarduerak bultzatzen dituztenez, errazago izango zaie gazteei hiru arlo horietan lanean hastea.
- ▶ Ildo horretan dago SPRIk gazteentzat sarean daukan zerbitzua. Bertan, dauden laguntza publiko guztiak biltzen dira, edozein informazio behar izanez gero. Beraz, esandako sozietate publikoaren “leihatilan” ikusitako beharrian guzteei erantzuten die, izan ere, gazteek gero eta informazio gehiago eskatzen dute beren ekimenterako laguntzak lortu ahal izateko.
- ▶ Era berean, SPRIk bezeroari arreta pertsonalizatua eskaintzeko zerbitzua ere badu. Zerbitzu hori gehienbat 30 urtetik beherakoek erabiltzen dute. Bertan doako aholkularitza eskaintzen zaie beren enpresa-proiektuaren hobekuntzari, diseinuari eta bideragarritasunari buruz.
- ▶ Gazteek sustatutako proiektuetarako, hau da, negozioaren ekimenerako behar den maileguaren bermeak ordaintzeko edo ordaindu beharrik ez izateko finantza-laguntzak antolatzerakoan ikusitako errealitateari erantzun nahi izan zaio. Izan ere, gazteek ezin izaten zituzten finantza-erakundeetako maileguak lortu, eskatzen zieten adinako ondare eta bermerik ez zutelako.
- ▶ Ikastetxeei egiten duten gizarte-lana aitortzen zaie, DBHko ikasleentzat euskal enpresetara bisitaldiak antolatuz eta Euskal Herriko industria-sektoreak egun duen eta iraganean izan duen garrantziari buruzko unitate didaktikoak argitaratuz. Horrekin guztiarekin erakutsi nahi zaie ikasleei elkarlanean aritzetik nolako balioak eratorzen diren eta enpresek aberastasuna sortzen dutela. Instalazioak eta bertan sortutako produktu zein zerbitzuak bertatik bertara ikusita, belaunaldi berriek lan mundua hobeto ezagutzeko aukera izango dute.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, Gazte Planean jasota dagoen Osasun eta Gizarte Ekintza arloaren barruan, enpresa espezializatu baten laguntzarekin, lantokietan zenbait jarduera burutzen du, langile gazteen artean drogaren kontsumoari buruz aritzeko. Horretarako, enpresako osasun eta giza baliabideetarako sailei informazioa eta aholkularitza eskaintzeaz gain, arazo hau prebenitzeko aukerak ematen dizkie.

Horrela, kanpaina orokorrak egiten dira; bai sentiberatze kanpaina orokorrak, bai interesa dutenek euren lantokietan antzeman ditzaketen behar zehatzetarako informazio zehatz-zehatzarekin eta laguntza espezializatuarekin egindako kanpainak.

2. ARDURAK ESLEITZEA

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak gazteria arloan burutzen dituen programa eta jardueren titularra eta arduraduna Turismo sailburuordea da eta Gazte Planarekin urtero har-

tzen diren konpromisoak koordinatzeaz arduratzen den teknikaria, Vitoria-Gasteizen, La-kuako egoitzan dagoen Industria, Turismo eta Merkataritza Sailaren plantilako langilea da.

3. GAZTEEN EGOERAREN DIAGNOSIA

Arlo honetan gazteriak duen oztoporik handiena da, herrialdearen garapen ekonomikoaren esparruan sartzeko zailtasun handiak dituztela Euskadiko gizon eta emakume gazteek. Horregatik, bada, burutzen diren ekintzetan berariazko eta lehenetsuneko eragile izan behar du talde horrek eta gainera, Sailaren programak diseinatzerakoan aintzat hartu behar da “gure historiako gazte belaunaldi prestatuena” daukagula.

4. GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK

Ekonomia Sustatzeko Erakunde arteko Planak aldi honetarako ildo estrategikoak eta jarduera-programak definitzen ditu, baita defendatzen dugun lehiakortasun-eredua ere. Jakina da lehiakortasun-eredua lortuko badugu, besteak beste honako helburuak izan behar dituen:

- ▶ Lankidetzaren estimulatzea gizartean etengabeko jarrera izan dadin eta aukera-berdintasuna sustatzea.
- ▶ Gizartearen elkartasuna eta kohesioa bultzatzea, pertsonarik kaltetuenak integrazteko eta hurbiltzeko elementu izan dadin.
- ▶ Pertsonengan eta erakundeetan berritzeko, ekiteko eta gauza berriak jakiteko gaitasuna garatzea.

5. EKINTZAK ETA PROGRAMAK

Sailak gazteriarentzat burutu nahi dituen ekintza guztiak Gazte Planaren ondorengo arloetan daude sartuta:

- ▶ Lana eta Laneratzea arloa
- ▶ Hezkuntza eta Lanerako Prestakuntza arloa
- ▶ Osasuna eta Gizarte Ekintza arloa

5.1. Lana eta Laneratzea arloa

Arlo honi dagozkion ekintza gehienak SPRIk burutu ditu. SPRI euskal ehun ekonomikoaren erreferentzia bihurtu da azken 20 urteotan garapen ekonomikoaren politikak garatzerakoan egindako lanari esker, besteak beste teknologia eta kudeaketaren arloan, merkatu berrien bila, prestakuntzan, finantza baliabideak sortzen...

“Enplegu bila dabilzan edo enpresa berria sortu nahi duten gazteentzako, leihatila bakarreko zerbitzua garatzea” 1.3. ekintza-ildoaren garapenari dagokionez eta, zehatzago, Industria, Merkataritza eta Turismo arloko “Gazteentzako leihatila bakarra” ekintzarekin, “Euskadi=Delfos” leihatila birtuala sortu da. Leihatila horretan enpresa proiektu eta ekimenetarako erakundeek ematen dituzten laguntza guztiei buruzko informazioa azalduko da.

Era berean, BAZ, SPRIren Bezeroaren Arreta Zerbitzua egokitu egin da. Sustapen ekonomikoaren arloan erabiltzaile gazteei informazio orokorra eskaintzen die.

“Autoenplegua eta gazteek gidatutako enpresak sortzea sustatzera zuzendutako politika koordinatua garatzea kooperatibismoaren eta beste formula batzuen bitartez” eskuhartze ildoari dagokionez eta, zehatzago, “Gazteen artean enpresarako bokazioak piztea helburu izango duen proiektuak koordinatzea” ekintzari, CEI, Enpresa eta Berrikuntza Zentroen bitartez, gazteen artean kultura ekintzailea sustatzeko egin diren jarduerak nabarmendu behar ditugu. Zentro horietan SPRIk, foru aldundiek eta udalek hartzen dute parte eta gazteek kudeatutako enpresa-proiektu berriak sortzeko jarduerak burutzen dituzte.

Burutzen diren jardueren artean nabarmendu behar da, gazteek sustatutako enpresa-ideien artetik enpresa-proiektu zeintzuk bilaka litezkeen igartzeko egiten den lana. Horretarako, etorkizuneko gazte ekintzaileei bideratutako sentsibilizazio, zabalkunde eta sustapen ekintzak egiten dira, unibertsitatean, lanbide heziketako eskoletan eta, oro har, gizarte mailan. Helburua enpresa-bokazioa sorraraztea da.

Ildo horretatik, “Arrisku-Kapitala Fondoaren kudeaketa, teknologia berriak eta informazioaren gizartearekin erlazionatutako enpresen hasierarako, eta gazteen eskutik enpresa gehiago sortzeko” ekintzari dagokionez gogoratu beharra dugu Arrisku Kapitalaren Fundoa finantza-tresna bat dela. Enpresaren, antolamenduaren eta inbertsioaren aldetik nolabaiteko dimentsioa duten konpainia sortu berrientzako edo garapen bidean daudentzako finantza-tresna da finean eta bere helburua da epe ertainean, garapenerako laguntza aktiboa eskaintzea.

“FCR Enpresa Digitaletako Inbertsioak” izeneko Arrisku Kapitalaren Fundoa Informazioaren Gizartearen eremuko proiektuetara bideratuta dago. Informazioaren teknologia berrien erabilera intentsiboko eta estentsiboko enpresa berritzaileetan inbertsioak egiterakoan parte hartzea du helburu eta nahiz eta biztanle guztiei zuzendutako fundoa izan, aproposa da oso gazte ekintzaileentzat. Gazteek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien inguruko proiektuen barruan behar bereziak asetzen ditu fondo horrek eta bertan Eusko Jaurlaritzak baino ez du parte hartzen.

5.2. Hezkuntza eta Lanerako Prestakuntza arloa

“Ikastetxeak eta lan mundua, bata besteari hurbildu” izeneko programa bete-betean garatzen ari da orain Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan. Lantokietara bisitaldiak antolatzea du helburu. Lantokiak bisitatzeko programa zabala da; zehatzago esanda, hainbat sektoretako euskal enpresa esanguratsuetara bisitaldiak antolatzen dira 12 eta 16 urte bitarteko DBHko ikasleentzat, ekoizpen-zentroek eta enpresa-jarduerak nolako balioak adierazi eta ekartzen dituzten erakustearren.

Programa honetan, SPRIrekin lankidetzan, liburuxka bat egin du, enpresetara egin beharreko bisitaldien aurretik orientazio orokorra izatearren. Testu horretan informazio laburra baina esanguratsua agertuko da, alde batetik, euskal enpresaren eta industriaren errealitateari buruz eta, beste aldetik, DBHko ikasleentzat argigarri gerta daitezkeen gazte ekintzaile berrien enpresa-esperientziei buruz.

Horrez gain, 30 urtetik beherako unibertsitarioentzako bekak ematen jarraitzen da. Horien artean aipatzekoak dira Kanpo Merkataritzako adituei zuzendutakoak —enpresa plan zehatzetan lankidetzan ibiltzeagatik—, Barne Merkataritzaren sektoreko bekak, ikerketa teknologikoaren sektorera zuzendutakoak, enpresa ertain eta txikietako ikertzaileentzako baterako finantzaketa, eta baita turismo sektorean ikertzera bideratutakoak ere.

5.3. Osasun eta Gizarte Ekintza arloa

Azkenik, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Gazte Planean duen parte-hartzea Gizarte Ekintza azpiarloan ere sartzan da, izan ere, lantokietan drogen kontsumoa prebenitzearren eta gutxitzearen laguntza eta sentiberatze programak bultzatzen ditu.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak 2004rako antolatu dituen eta II. Gazte Planean dauden ekintzak:

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
SPRI		
1.3.4. Industria gaietan, Leihatila Bakarra gazterientzat.	Sarera sartzeko leihatilaren aplikazio informatikoan hobekuntzak egitea, erakundeen laguntza guztien informazio osoa izateko.	8.319,43 €
1.4.6. Arrisku-Kapitala Fondoaren kudeaketa, teknologia berriak eta informazioaren gizartearekin lotutako enpresen hasierarako, eta gazteen eskutik espresa gehiago sortzeko.	Arrisku Kapitala kudeatzea: enpresa-proiektuei ekiterakoan SPRIk kapitalean parte hartzea.	500.000 €
Turismo Sailburuordetza		
2.1.1. Hezkuntza-zentron eta enpresen arteko kolaborazio-hitzarmenak bultzatzea, enpresetara ikustaldiak egiteko asmoz.	Lantokietara (enpresetara) bisitaldiak, ikastetxeetako DBHko ikasleentzat.	43.765 €
2.2.1. Irakaskuntza ez-arautuan eskaintzen diren prestakuntza okupazionala eta praktika-programen erakunde-arteko koordinazioa sustatzea.	Nazioartekotzearen eremuan prestatzeko bekak, enpresetan egiteko praktikak eta guzti.	1.355.283 €
	Merkataritza sektorea hobeto ezagutzeko bekak, ekitaldi bat baino gehiagoko iraupenekoak eta alderdi praktikoko handikoak.	375.630 €
4.1.2. Gazteriaren osasun-arazo nagusiei (zirkulazio-istripuak, menpetasun-jarrerak, HIESa, sexu-transmisioko gaixotasunak, gogoz kontrako haurdunaldiak, elikadura-arazoak eta buru-arazoak) aurre egiteko prebentzio-jarduera garatzea.	Enpresa eta lantokietan sentsibilizazioa, informazioa eta laguntza emateko programa, toki horietan droga menpekotasuna prebenitzearren eta gutxitzearen.	24.000 €

6. JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA

Programen ebaluazio eta jarraipen sistemari dagokionez, programen egokitasuna islatuko duten oinarrizko estatistikak gauzatu dira. Urtero eraginkortasuna neurtuko da, dagokion fitxa eta ebaluazio adierazleetan horretarako jarritako parametroen arabera. Oraingoz programa horien baloraziorako formularik ez dago eginda gazteei/erabiltzaileei buruzko datuak jaso ahal izateko.

EUSKO JAURLARITZAREN NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1. MARKO TEORIKOA

II. Gazte Planean Nekazaritza eta Arrantza Sailak esleituta dauzkan jardueren artean, **EAEko Nekazari Gazteen Plana** egitea eta ondoren garatzea dago, inolako zalantzarik gabe, nabarmenena eta zer esanik ez, II. Gazte Planari berari garrantzirik handiena ematen diotenetako bat ere bai, jarduera integrala eta berritzailea delako.

Gazte Planaren Lana eta laneratzea arloan kokatzen da jarduera hori. Bertako 1.4.9. ekintzari dagokio EAEko Nekazari Gazteen Plana, nekazaritza-ustiategien jabeen zahartze-ari era integralean erantzuteko neurri egituratu multzoa —plan gisa— abian jartzeko estatu mailan egin den benetako lehen saiakera dela esan daiteke. Zahartzearen arazoa erki-dego osoko arazoa denez, plan horrekin sektorea gaztetzea lortu nahi da eta, bide batez, baita gure landa-eremua ere.

Legealdian Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ekintza politikoaren euskarrietako bat da Nekazari Gazteen Plana. Dena dela, sektorea pairatzen ari den zahartze-prozesuari itzulia emateko behar beharrezkoa da nekazaritza sektorean lanean diharduten eragile guzti-guztien parte-hartzea, erakundeetako eragileena nahiz sektorekoena.

Erakunde arteko Plana dugu, Eusko Jaurlaritzako eta hiru foru aldundietako Nekazaritza Sailek batera bultzatu baitute. Zuzenean inplikaturik dauden erakundeez gain Plana egiterakoan beharrezkoa izan da sektoreko eragile nagusien arteko adostasuna eta parte-hartzea: nekazaritza sindikatuena, Mendikoirena, IKT Nekazal Ikerketa eta Teknologiarena, Nekazaritza Kooperatiben Federazioena, Landa Garapenerako Elkarteena...

Euskal nekazaritza sektore gaztetua, dinamikoa eta etorkizuneko erronka handiak konpontzeko gauza izango dena, horrelako sektorea lortzeko oinarriak finkatu ahal izateko beharrezko neurriak artikulatuko dituen mekanismoa izan nahi du Planak. Jarduera garatzea eta bizi baldintzak gainerako euskal ekonomiaren bizi baldintzekin homologatzeko modukoak izatea izango da planteamendua.

Sektorea gaztetzen laguntzeko egun dagoen markoa sendotu nahi da Planean proposatutako neurriekin. Neurri horietako batzuk oso dira berritzaileak eta dagoeneko dauden neurri sendotuak dira besteak. Hala ere, gazteari laguntzeko neurriak oso ondo dabilzan kasuetan honako Planak ez du eragiten (prestakuntza arautuko eta ez arautuko ikastaroak, aurrez hartutako erretiroak, nekazaritza sektorerako eta landa eremurako begiraleak eta sustatzaileak sortzeko programak...).

2. ARDURAK ESLEITZEA

Bost ardatzen inguruan egituratuko 20 neurri ditu Planak: Aholkularitza eta Monitorizazioa, Lehenengo Instalazioari laguntzeko neurriak, Lurra Eskuratzea, Landa Eremua eta Bizitza Kalitatea eta Jarduera Gehigarriak. Aurreikusitako gastua urtero 5 milioi euro ingurukoa izango da. Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek finantzatzeko dute eta gutxixeago Europako Batzordeak. Ekintza horietako hamarren ardura osoa edo arduraren zati bat Ne-

kazaritza eta Arrantza Sailaren Nekazaritza Zuzendaritzarena izango da (ikus 5.1. ataleko koadroa).

3. EGOERAREN DIAGNOSIA

Lehen sektorea sektore garrantzitsua da gazteek lanpostua lortzeko orduan eta hori kontuan hartzeko modukoa da, arreta industrian eta hirugarren sektorean soilik ez jartzeko. Gaurko egoera ikusita, ezinbestekoa da sektore horietan esku hartzea, belaunaldien arteko ordezkapena lortuko bada. Hona hemen behar hori islatzen duten zenbait datu: 1999an EAEn erroldatutako 40.000 ustiategietatik % 10etako jabeak baino ez dira 40 urtetik beherakoak, eta horietatik % 51k beste lanen bat ere egiten dute; 80 urtetik gorako jabeekin mantentzen da ustiategien % 5; azken hamar urteotan gazte portzentajeak 2 puntu egin du behera, eta garai horretan 3.000 gazte baino ez dira sartu sektorean.

Zifra horiek argi erakusten dute nekazaritza sektoreak zahartze egoera larria bizi duela eta, gainera, agerian uzten dute lanerako gazteak hartzeko garaian, gure herrialdean arazorik gehien duen ekoizpen sektorea izango dela seguruenik. Beste sektore batzuekin alderatuta, hemen arazoa ez dago bakarrik lana eskuratu ahal izatean, baizik eta lan hori eskuratu nahi izatean. Hona hemen diagnosi hori frogatzen duten hainbat aldagai: gazteek nahiago dituzte beste sektore batzuk, nekazaritzarako lurren mugikortasun urria, sektore horretako lanak daukan irudi txarra, lan baldintza gogorrak, errentagarritasun urriak eta egin beharreko inbertsio handiak eta abar. Alderdi horietako asko nekazaritzan nahiz arrantza sektorean gertatzen dira, eta horrexegatik da beharrezkoa Gazte Planean berariaz eustea arazo horiei.

Gazteak Euskadiko lehen sektorean sartzeko eta bertan mantentzeko eraginik handiena duten alderdi nagusiak (aldekoak eta aurkakoak) ikuspegi orokor batetik eta diziplina anitzetik aztertu behar dira. Horrela, neurriak eta jarduerak jarriko dira abian, dagoeneko martxan daudenekin batera, belaunaldien arteko erreleboa bultzatzeko behingoz. Ezinbestekoa da, beraz, belaunaldien arteko erreleboa egiteko prozesuari lehenbailehen ekitea, gure herrialdearentzat arrazoi askorengatik estrategikoa den sektoreak bizirik jarrai dezan. Hona hemen arrazoi horietako batzuk: lurraldearen okupazioa, ingurumenaren kontserbazioa, kalitatezko jakien ekoizpena, landa inguruneke jardueraren motorra izatea eta abar.

4. GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUA

Nekazari Gazteen Planaren helburu nagusia da arestian aipatutako joera irauli egitea, hau da, 2005. urtetik 2014. urtera bitartean 40 urtetik beherako nagusiak dituzten ustiategien portzentajeak bilakaera positiboa izatea eta horretarako, sektore honetan 1.000 gazte berri sartzeko sustapen lana egitea aurreikusten da.

5. EKINTZA ETA PROGRAMAK

5.1. Nekazaritza Zuzendaritza

Neurriak	Erakunde arduraduna
1. Gaztearen bulegoa	Nekazaritza Saila foru aldundiak.
2. Koordinazio Zerbitzua	Nekazaritza eta Arrantza Saila Eusko Jaurlaritza.
3. Nekazari gaztearen Estatutua	Nekazaritza eta Arrantza Saila Eusko Jaurlaritza.
4. Kapitala/Haziak laguntza	Nekazaritza eta Arrantza Saila Eusko Jaurlaritza.
5. Nekazaritzako Politika Bateratua (NPB) 1. ustiatagirako laguntzak	Nekazaritza Saila foru aldundiak.
6. Kreditu espezifikokoak	Nekazaritza Saila foru aldundiak eta Nekazaritza eta Arrantza Saila Eusko Jaurlaritza.
7. Babesa	Nekazaritza Saila foru aldundiak.
8. Laguntza fiskalak	Ogasun Saila foru aldundiak.
9. Belaunaldi erreleborako pizgarriak	Nekazaritza eta Arrantza Saila Eusko Jaurlaritza.
10. Lurraldearen Arloko Planen (LAPen) jarduerak	Nekazaritza Saila foru aldundiak eta Nekazaritza eta Arrantza Saila Eusko Jaurlaritza.
11. Lurren Bitartekaritza Zentroa	Nekazaritza eta Arrantza Saila Eusko Jaurlaritza.
12. Komunalak eta Mendi publikoak	EUDEL eta Nekazaritza Saila foru aldundiak.
13. Udal mailako sentsibilizazioa	EUDEL.
14. Eskualdeko garapena, ekipamenduak eta zerbitzuak	Nekazaritza Saila foru aldundiak eta Nekazaritza eta Arrantza Saila Eusko Jaurlaritza.
15. Aldi baterako laneko enpresak	Nekazaritza Kooperatiben Federazioa, Kudeaketa Tekniko eta Ekonomikorako Zentroak eta foru aldundiak.
16. Makinaria komuneko zerbitzuak	Nekazaritza Saila foru aldundiak.
17. Jardueraren dibertsifikazioa	Nekazaritza Saila foru aldundiak eta Nekazaritza eta Arrantza Saila Eusko Jaurlaritza.
18. Nekazaritza-aseguruak	Nekazaritza Saila foru aldundiak.
19. Erakundeen sariak	Nekazaritza Saila foru aldundiak eta Nekazaritza eta Arrantza Saila Eusko Jaurlaritza.
20. Plana zabaltzeko kanpaina	Nekazaritza Saila foru aldundiak eta Nekazaritza eta Arrantza Saila Eusko Jaurlaritza.

Plana 20 neurrik osatzen dute, hamar urtean zehar egitekoak. Dena dela, denboraren aldetik baldintza desberdinak izango dituzte neurri horiek guztiek, hau da, jarduerak mar-txan noiz jarri, zenbat denbora iraun eta noiz bukatu, neurri bakoitzaren arabera izango da. Oro har, aurreikusitako oinarritzko denbora 2005. urtetik 2014. urtera bitartekoa da, biak barne.

Ildo horretatik, II. Gazte Plana (2002-2005) indarrean egongo den denbora baino luze-ago iraungo duenez Plan honek, Gazte Plana berriro ere planifikatu behar izaten denean, plan honetako edukiekin dauzkan inplikazioak eta loturak izan beharko ditu kontuan.

5.2. Landa Garapenerako Zuzendaritza

Landa Garapenerako Zuzendaritzak Gazte Planean sartuta dauden ekintza hauek programatu ditu 2004. urterako:

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
1.2.4. Lan-banaketarako neurrien berrikuspena, garapena eta komunikazioa (ordezkapen-kontratua eta beste neurri batzuk).	Landa eremuko ekintza hau 1.4.9. ekintzan dago sartuta.	
1.4.1. Gazteen artean enpresarako bokazioak piztea helburu izango duen proiektuak koordinatzea.	Landa eremuko sustatzailen aholkularitza/monitorizaziorako Geroa Programa (banan-banako aholkularitza pertsonala on-line).	46.800 €
	Landa eremuko sustatzailak sentiberatzeko eta animatzeko Berpiztu programa.	79.000 €
2.2.1. Irakaskuntza ez-arautuan eskaintzen diren Prestakuntza okupazionala eta praktika-programen erakunde-arteko koordinazioa sustatzea.	Nekazaritza Prestakuntzari buruzko Ikastaro Trinkoak (Baratzezaintza, mahastizaintza, lore-arte eta Artzain eskola).	450.000 €

5.3. Arrantza Zuzendaritza

Zuzendaritza honen ekintza eta programak 2004 urterako honakoak dira:

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
1.4.1. Gazteen artean enpresarako bokazioak piztea helburu izango duen proiektuak koordinatzea.	Gazte profesionalek arrantza ontziak eskura ditzaten egiturazko laguntzak.	570.200 €
2.2.1. Irakaskuntza ez-arautuan eskaintzen diren Prestakuntza okupazionala eta praktika-programen erakunde-arteko koordinazioa sustatzea.	Pasaiaiko (Gipuzkoa) Itsas-arrantzako Institutu Politeknikoan ikasketak egiteko beka ematea.	60.000 €

6. JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA

II. Gazte Planak eta Gobernuko Lehendakariordetzak aurreikusita dituzten jarraipen eta ebaluazio sistemez gain, Planaren jarraipena egiteko barruko batzorde bat ere sortu da, erakundeetako eta sektoreko eragileek osatua.

EUSKO JAURLARITZAREN HERRIZAINGO SAILA

1. MARKO TEORIKOA

Gaztaroa pertsonaren bizitzako garairik garrantzitsuenetakoa da, nerabegarotik helduarorako pausua baita. Gaur egun, garai hori luzatu egiten da gazteek emantzipazioa lortzeko zailtasun handiak dituztelako eta horrek helduarora eman beharreko pausua ere atzeratu egiten du. Egoera horrelakoa izanda eta gizarteratzeko dauden zailtasunak direla eta, arrisku faktoreak areagotu egiten dira eta gazteek arrisku sozial handiagoak dituzte, esate baterako, drogek eta bortizkeriak eragindakoak.

EAEko gazteen bortizkeriari buruzko Cindes Txostena (2002) txostenaren eta gazteen bortizkeriari buruzko beste zenbait ikerketen ondorioak ikusita, esan daiteke gazteen emantzipazioa oztopatzen duten bizi baldintzak (langabezia, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak...) hobetzeak lagundu egingo lukeela, neurri handi batean behintzat, bai bortizkeriaren azpian dauden arrazoiak gutxitzen bai bortizkeriaren legitimazioa murrizten, beren burua bortizkeria sozial eta politikoaren biktimatzat daukaten zenbait gazteren artean.

Programazio Agiri honetan gazteriaren arloan Herrizaingo Sailak garatzen dituen politikak gaingiroki jasotzen dira, izan ere, gazteria politikak EAEko II. Gazte Planean ezarritako jardunbide eta neurriak gorabehera, Gazte Plan horretan jasotako ekintza positiboetatik harago doaz.

II. Gazte Plana, Planean bertan agertzen den bezala, EAEko gazteen egoeran eta etorkizuneko itxaropenean modu positiboan eragitera bideratutako neurri eta jarduera multzo handi batez osatuta dago. Erakunde arteko Plana da: bertan Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek esku hartzen dute; Planean jasotako arloetan parte-hartze nabarmena duten eragile guztiek ere parte har dezakete, batez ere gazteek.

Herrizaingo Sailak II. Gazte Plan honetan zenbait jarduera zehatzen bitartez parte hartzeko konpromiso instituzionala hartu du. Jarduerok esku-hartze ildo desberdinetan biltzen dira, 2003. eta 2004. urteen artean garatu dira, edo 2005. urtean zehar burutzea aurreikusita dago.

2. ARDURAK ESLEITZEA

- ▶ Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritza
- ▶ Segurtasun Sailburuordearen Kabinetea
- ▶ Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

3. GAZTEEN EGOERAREN DIAGNOSIA

Herrizaingo Sailaren politikak gazteen hainbat arazotan eragin dezake eta arazo horiek osasunarekin, balioekin eta gazte-bortizkeriarekin daude lotuta.

3.1. Osasuna

Osasunaren kontzeptua, besteak beste, pertsonen balio eta ohiturekin, nolabaiteko bizimodu osasungarriekin dago lotuta. Osasun publikoko arazo batzuek bereziki eragiten diete gazteei, esate baterako trafikoko istripuek edo legez kanpoko zein legezko substantziekiko menpekotasun jokabideek. Horregatik, bada, ezinbestekoa da bizimodu eta jokabide osasungarriak sustatzea.

Osasun publikoko arazo handia dira drogak. Euskal gizartean ere droga menpekotasun berriak azaldu direnez, jabetu behar izan da drogen erabilerak nolako arriskuak ekartzen dizkion osasunari eta arazo horri alderdi askotatik egin behar zaiola aurre, bai arriskuko jokabideei aurre hartzeko ohitura osasuntsuak bultzatuz bai arauen eremua sustatuz.

3.2. Gazteen balioak eta bortizkeria

EAEko (2002-2005) II. Gazte Planean agertzen den moduan, bortizkeria da euskal Erakundeen kezkarik nagusietako bat. Jakina da bortizkeria ez dela soilik gazteen jokabidea, nahiz eta zenbaitetan gazte gutxi batzuk izan jokabide bortitzak dituztenak. Arazo honen aurrean sentiberatze eta kontzientziazte kanpainak egitea oso da garrantzitsua eta, bestalde, gazteen bortizkeriaren ezaugarriak hobeto ezagutzen ahalegintzea ere bai.

4. GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK

4.1. Osasuna

Herrizaingo Sailak gazteen osasunarekin lotuta dituen helburuak Droga Menpekotasunari buruzko Legean eta Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoaren barruan daude.

4.1.1. EAEko Droga Menpekotasunari buruzko Legea

Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dizkion eskumenen esparruan, *azaroaren 11ko 15/1988 Legea, Drogomenpekotasunen arloan Prebentzioa, Sorospena eta Bergizarteratzeari buruzkoa zena* onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Gaur egun, *ekainaren 25eko 18/1998 Legea, Drogomenpekotasunen arloan Prebentzioa, Sorospena eta Bergizarteratzeari buruzkoa dena* dago indarrean (aurrerantzean, DL).

DLan ezartzen denez, Euskal Herriko Poliziak, drogen legez kanpoko trafikoaren delituetan ikertzeaz gain, eskaera eta kontsumoaren prebentzioan ere dagozkion ekintza guztietan lagunduko du. Gainera, lege antolamenduak ezartzen dituen menpekotasun organiko eta funtzionalarekiko begirune osoz, bere jardunean ondorengo lehentasun-irizpideak izango ditu besteak beste:

- ▮ Drogen legez kanpoko banaketarako sareetan jardutea, produktu horien eskaintza galarazteko edo ahalik eta gehien zailtzeko.
- ▮ Drogen legez kanpoko trafikoarekin lotutako jarduerak ikertzea, batik bat “diruaren garbiketa” deitutakoarekin lotutakoak eta, oro har, gertakari horren inguruko edozein eratako jarduera ekonomikoak.

4.1.2. EAEko Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoa (2003-2006)

Beste alde batetik, Herrizaingo Sailak EAEko Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoa (2003-2006) egin du. Plan estrategikoa honen helburu orokorra, besteak beste, trafiko istripuek ekiditea da ezbehar kopurua ahalik eta gehien murriztuz eta bide segurtasuna bultzatuz. Oinarritzko hiru zutabetan eragingo du: erabiltzaileengan, ibilgailuetan eta bideetan. Horrela, EAEko trafiko istripuek eragindako hildako kopurua ere murriztuko litzateke.

Plan honetan azaltzen den bezala, trafiko istripuek eragindako hildakorik gehienak gazteak dira, zehatzago esanda, hildakoen ia % 40 17 eta 30 urte bitarteko gazteak dira.

Planak 2006. urterako gazteentzat dauzkan helburu zehatzak honako hauek dira:

- ▮ Ikasleak: trafiko istripuetan hildako eta larri zauritutako ikasleen kopurua % 20 murriztea.
- ▮ Nerabe eta gazteak:
 - Trafiko istripuetan hildako edo larri zauritutako 17 eta 30 urte bitarteko auto gidarien kopurua % 20 murriztea.
 - Motozikletaz edo ziklomotozez izandako istripuetan, 17 eta 30 urte bitarteko hildako eta larri zauritutakoen kopurua % 20 murriztea.
 - Trafiko istripuetan hildako nerabe-gazteen kopurua % 20 murriztea.
 - Motozikletaz eta ziklomotozez izandako trafiko istripuetan kaskoaren erabileran % 97ko portzentajea lortzea.

4.2. Gazteen balioak eta bortizkeria

Gazteen bortizkeriarekin lotuta Herrizaingo Sailak dituen helburuak Gazte Planaren ekintza hauei dagozkie:

- ▮ Pankarta, kartel eta pintadetako edukiek herritarrengan izan dezaketen eragina murriztea, eta egileak identifikatzen saiatzea.
- ▮ Euskal gazteriaren kriminalitatea hobeto ezagutzea polizien estatistiken bitartez. Ertzaintzak atxilotutako gazteen ezaugarri demografikoak eta delituzkoak aztertuko dira, horrelako gertakariak gure gizartean nolako eragina duten ebaluatzeko datuak edukitzearen.
- ▮ Biktimekiko elkartasun kanpainak eta bortizkeriaren arazoak sentiberatzeko eta kontzientziatzeko kanpainak egitea, terrorismoaren biktimei arreta, giza laguntza,

orientazioa eta sorospena ematea helburu izango duten proiektu eta jardueren bitartez. Urtero, gainera, biktimei laguntzeko taldeek egindako jardueri buruzko txostenak egingo dira.

5. EKINTZA ETA PROGRAMAK

5.1. II. Gazte Planean jasotako ekintzak

5.1.1. Osasuna

Gazteen osasun arazo nagusiei aurre egiteko prebentzioa garatu nahi da batik bat (trafiko istripuak, menpekotasuneko jokabideak...).

Jarduera Planetan agertzen dira trafikoa eta bide segurtasunaren arloan Gazte Planak eskatzen dituen jarduerak. Urtero egiten diren jarduera plan horiek euren artean lotura daukate, ez dira ekitaldi jakin baterako diseinatu: hainbat urtetarako EAEko Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoa 2003-2006 Plan Nagusiaren barruan kokatzen dira. Plan Nagusi honetan gazte eta nerabeei berariaz zuzendutako jardunbideak daude.

5.1.2. Gazteen balioak eta bortizkeria

- ▶ Ertzaintzaren estatistiketan oinarrituta, gazteen kriminalitateari buruzko txostena egitea urtero, gizartean gertakari horrek zenbaterainoko eragina daukan ebaluatzeko datuak eduki ahal izateko eta beharrezkoa izango balitz, erakundeek prebenitzeko eta zuzentzeko neurri egokiak har ditzaten.
- ▶ ETaren terrorismoa defendatu, mehatxatu eta demokraziaren aurka egiten duten pankarta, pintada eta paskinak kentzea. Edukiagatik delitu izan daitezkeen edo administrazio-zigorra jaso dezaketen pankarta eta kartelak kentzea da xedea. Horrelako pintadak daudenean, udalei jakinaraziko zaie, ahalik eta azkarren ken ditzaten.
- ▶ Biktimekiko elkartasun kanpainak eta gazteen bortizkeriaren arazoaz sentiberatzeko eta kontzientziatzeko kanpainak egitea, terrorismoaren biktimei arreta, giza laguntasuna, orientazioa eta sorospena helburu izango dituzten proiektu eta jardueren bitartez.

II. Gazte Planean 2004 urterako jasotako ekintzak:

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza		
0.4.3. Biktimekiko elkartasun, sentsibilizazio eta kontzientziario kanpainak garatzea, gazte-indarkeriaren arazoaren aurrean.	Biktimekiko elkartasun kanpainak eta bortizkeriaren arazoaz sentiberatzeko eta kontzientziatzeko kanpainak egitea.	120.000 €
Hiritarren Segurtasunerako Zuzendaritza		
0.4.4. Euskal Instituzio eskudunek konpromisoa hartzea, ETAren terrorismoaren aldekoak diren, demokrazia mehatxatu edo horren aurkakoak diren pankartak, pintadak eta paskinak kentzeko.	Edukiagatik delitu izan daitezkeen edo administrazio-zigorra jaso dezaketan pankarta eta kartelak kentzea. Horrelako pintadak daudenean dagokien udalei jakinaraziko zaie ahalik eta azkarren ken ditzaten.	Berariazko gasturik gabe
Segurtasun Sailburuordearen Kabinetea		
2.4.4. "Gazteak eta indarkeria" gaiari buruz azterketak egitea, geroko esku-hartze ildoak ezarri asmotan.	Ertzaintzaren estatistiketan oinarrituta, gazteen kriminalitateari buruzko txostena egitea urtero.	Berariazko gasturik gabe

5.2. Gazte Planean jasota ez dauden ekintzak

5.2.1. EAEko Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoa 2003-2006

Trafiko istripuei aurre hartzearen eta hiritarrak bide segurtasunean heztearen, ares-tian aipatu dugun bezala, EAEko Bide Segurtasunerako Plan Estrategikoa 2003-2006 dago. Ondoren aipatuko ditugu abiadura, alkoholemia eta babesteko elementuak direla-eta, gazte-nerabe taldeari berariaz zuzendutako jarduerak, baita bestelako batzuk ere, gazteentzat soilik ez izanagatik jardueron hartzaile garrantzitsuak direlako.

► **Bide Hezkuntza**

Bide segurtasuna bermatzeko eta trafiko istripuak gutxitzen joateko jokabideak eta gaitasunak sortzera bideratuta dago bide hezkuntza. Talde hauetan eragiten duten ekintza-ildoak honakoak dira:

Ikasleak:

- Eskolako programan pixkanaka Bide Hezkuntza sartzen joatea.
- Material didaktikoa egitea eta banatzea: adinera egokitua, eguneratua, erabilgarria eta elebiduna.
- Aurreko bi ildoak osatzeko beste batzuk.

Nerabe-gazteak:

- Autoeskolako prestakuntza prozesuan Bide Hezkuntzarenak diren elementuak sartzeari jarrerari buruzko alderdiak eta balio positibo eta seguruen sustapena. Hori ekimen eta jarduera desberdinen bidez egongo da, eta aldian-aldian kontrolatu eta ziurtatu egingo da baliagarriak eta eraginkorrak ote diren.
- Talde honentzat erakargarriak diren Bide Hezkuntzako ekintzak edo jarduerak diseinatu eta garatzea, bide eta teknologia berriak erabiliz elkarreragin handiagoa lortu ahal izateko.
- Alkohola eta drogak direla-eta, lehen mailako arretarako taldeek Bide Hezkuntzako jarduerak garatzea.

► Bide Prestakuntza

Gidariak eta inplikaturako gainerako eragileek bidean jokabide segurua izan ahal izateko, gaitasunen eta ezagutza teoriko-praktikoen aldetik berriro ikasi eta hobetu beharko luketena bermatzera zuzenduta daude Bide Prestakuntzak antolatu eta garatzen dituen ekintzak. Gidarigaiengan eragin dezaketen ekintza ildoak hauek dira:

- a) Gidabaimen desberdinak lortzeko ikastaroak eskaintzea, honako alderdietan arreta berezia ipiniz:
 - Gidabaimena ateratzeko ikastaroak gutxiengoaren taldeetara pixkanaka egokitzea, ikasleak aukeratzeko prozesuetan zorrotzago jardunez.
 - Bide prestakuntzaren arloan teknologia berriak ezagutzea eta aplikatzea.
- b) Autoeskoletako egungo prestakuntza prozesuaren osagarri modura modulu eta ekimen berriak sartzeari, bide prestakuntzaren kalitate maila handitu ahal izateko:
 - Bide hezkuntzarenak diren elementuak sartzeari jarrerari dagozkionak eta balio positibo eta seguruak sustatzea.
 - Istripuaren ondorengo arretari dagozkion elementuak sartzeari istripua dagoenean aplikatzeko: alerta-neurriari buruzko gomendioak, norberaren eta zaurituaren babesa. Osagarri modura, lehen sorospenei dagozkien ezagutzak ere gehituko dira.
 - Istripuekin zerikusi handia duten beste zenbait elementu sartzeari prestakuntza prozesuan, esate baterako, alkohola eta drogak, segurtasun uhala, kaskoa, gehiegizko abiadura eta abar.

► Komunikazioa eta kanpainak

Nerabe-gazte taldeari zuzendutako komunikazio eta kanpainak honako gaiok jorratuko dituzte:

- Abiadura
- Alkohola eta drogak
- Segurtasun uhala

Kontzientziazio-kanpaina hauek egiteko hainbat bide dago:

- Internet
- Ikastetxeak
- Kirol-erakundeak
- Gidarien eskolak
- Gazteen ingurua
- Osasun Saila
- Foru aldundiak

5.2.2. EAEko Droga Menpekotasunari buruzko Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Drogen Menpekotasunari buruzko V. Plana 2004-2008

Aintzinako Droga Menpekotasunari buruzko Legeak eta gaur egun indarrean dagoenak beren aginduen artean sartu dute Eusko Jaurlaritzak Droga Menpekotasunari buruzko Plana egina dezala, Eusko Legebiltzarrerara bidalita, eztabaida eta onar dezaten bertan.

Horregatik, 1990. urtean lehendabiziko Droga Menpekotasunari buruzko Plana onartu zutenetik, hiru urteko hainbat plan onartu dituzte. Planak indarrean zeuden bitartean, Euskadiko administrazioek egin beharreko prebentzio, laguntza eta gizarteratze ekintza guztiak koordinatuta agertzen ziren plan horietan. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Drogen Menpekotasunari buruzko V. Plana 2004-2008, bost urtekoa, da indarrean dagoena. Egia da alkohola eta tabakoa, edo zenbaitetan baita beste substantzia batzuk ere, kontsumitzen hasi, pertsona heltzen ari den bitartean-edo hasten dela, eta gehiago kontsumitzen dela nezabezaroan sartu aurreko garaian, nerabezaroan eta gaztaroan.

Herrizaingo Sailak Plan horietan guztietan esku hartzen du, prebentziora, eskaintzaren kontrolera eta laguntza ematera zuzendutako programa batzuen bitartez.

► Polizia profesionalen prestakuntza

Droga menpekotasunari buruzko ikastaro oinarrizkoak eta espezializatuak emanez, Euskadiko Polizia-gorputzek beharrezko duten prestakuntza jasotzen dute, droga menpekotasunak gaur egungo gizartean dituen ondorioak gutxitzearen. Horretarako, Euskadiko Polizia Ikastegiak antolatzen dituen ikastaroetan gaiarekin (legez-kontrakotasuna, ekonomia, gizartearen arazoak...) lotutako alderdiak jorratzen dira.

► Erkidegoan droga menpekotasunari aurre hartzea, Ertzaintzak hurbileko ingurunearekin komunikatzeko daukan bideen bitartez

Udaletako talde desberdinekin komunikazioa eta harremana mantentzea, droga menpekotasunarekin lotutako arazo berri izanda, konponbide modura kontrolerako eta prebentziorako politikak nahiz jarduera koordinatuak diseinatzeke.

► Drogen legez kanpoko trafikoa ikertzea eta poliziaren jarduna administrazio mailan

Drogen legez kanpoko trafikoari buruz indarrean dagoen legeria aplikatu behar da, batetik, drogen legez kanpoko banaketa-sareak nahiz drogen legez kanpoko trafikoarekin lotutako jarduerak ikertuz eta jarraituz; bestetik, toki edo establezimendu publikoetan droga kontsumitzen eta trafikatzeko utz ez dezaten saiaturik eta, azkenik, kalean, establezimendu eta garraio publikoetan droga kontsumitzea eta edukitzea saihestuz.

► Alkoholaren prebentzio-kontrolak egitea

► Droga menpekotasunaren arloan egindako jardueri buruzko azterketa estatistikoak

Drogen inguruko delituei buruzko informazio estatistikoa sistematikoki jasoko da, aldian-aldian, drogek gizaratean eragindako delituek nolako egoera sortzen duten jakiteko. Horrela, Ertzaintzak eta dagokien erakunde ofizialek, drogen aurkako plan zehatzak diseinatu ahal izango dituzte, tokian-tokiko egoera sozio-delituzkoa kontuan izanik.

► Droga menpekotasunari buruzko dokumentazioa

Toxikomaniei buruzko dokumentazio-oinarria egiten joatea eta mantentzea, batez ere polizia-ikusmoldearekin eginez, poliziek, Erkidegoko Administrazioaren funtzionario eta langileek eta ikertzaileek dokumentazio eta bibliografia aldetik dituzten beharrei erantzutearren, izan ere, droga menpekotasunen arloan etengabe sortzen diren berrikuntzen berri eduki beharra dago.

Urte batzuetan zehar, ikasleei zuzendutako *Osasunean Hezi eta Droga Menpekotasunak* ekidin, irakaskuntzan zinea erabiliz Programak direlakoetan jardun du Herrizaingo Sailak, diruz laguntzen eta Gobernuko eta beste erakunde batzuetako sailekin batera lanean. Programa honek prebentzio-lan handia egiten du droga menpekotasunaren prebentzioari buruzko ideiak eta kontzeptuak hurbiltzen baitizkie ikasleei. Oso hurbilekoa eta erakargarria egiten zaie nerabeei erabilitako bidea, izan ere, ikasturtean zehar zenbait pelikula ikusten dituzte eta ondoren ikasgelan unitate didaktikoen bitartez landu egiten dute gaia. Horrekin guztiarekin ikaslearen gaitasunak garatzen dira, balio pertsonalak hartu eta prestakuntza osoa lortzen baitute.

Beste alde batetik, 1997ko otsailaren 18an Droga Menpekotasunen Euskal Behatokia sortu zen. Behatoki hori, Eusko Jaurlaritzaren Droga Gaietako Zuzendaritzaren ikerketa, informazio eta dokumentazio zerbitzua izango da eta bere helburua da, droga menpekotasunen ikuspegi orokorra, objektiboa eta etengabea edukitzea, hartara EAEko joerak alde aurretik ikusita, estatu mailan nahiz Europa mailan egindako azterketetan txertatu ahal izateko. Droga Gaietako Zuzendaritzak edo Droga Menpekotasunen Euskal Behatokiak txostenak egin behar dituztenean, egindako jardueren datu estatistikoak eta urteko txostenak ematen dizkie Herrizaingo Sailak.

EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA SAILA

1. EKINTZA ETA PROGRAMAK

1.1. Gazte Planean jasotako ekintzak

Ekintzak	Programa edo jarduerak	Aurrekontua €
5.4.2. Euskal Administrazio Publikoa gazteriarri dagozkion gaiak eztabaidatu eta erabakiak hartzen dituzten europar foroetan egotea ahalbideratzea. Administrazio eskudunek adostu eta garatuko dituzte xede horretarako mekanismo egokiak, bai arazo larriei (baztertze soziala, gazte-langabezia, etab.) aurre egiteko zein estrategia garatzen ari diren ezagutarazteko, bai esperientzia propioa hara emateko ere.	Europar Batasuneko gazteria politika Euskadira hurbiltzea.	156.000 €

1.2. Gazteriarri zuzendutako beste programak batzuk

1.2.1. Europako Gaietarako Zuzendaritza

Europako Gaietan eta Herrialde Arteko Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekek

Europako Gaietan eta Herrialde Arteko Lankidetzaren arloan, hamabi hilabetez, profesionalen espezializazioa eta prestakuntza bultzatzera bideratutako bekek.

Bekak hartzeko honako baldintzak bete beharko dira: lizentziatua izatea, batik bat Zuzenbide, Ekonomia, Kazetaritza edo Soziologian, deialdia argitaratzen den egunean Europako nahiz nazioarteko gaiei buruzko graduondoko ikasketak egiten egotea edo eginda izatea (ezagutza arlo desberdinak) eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta izatea.

Europako gaien informazio eta zabalkunderako proiektuak egiteko laguntzak

Europar Batasunaren ekintzaren irismena zenbaterainokoa den azaltzera bideratzen diren informazio eta komunikazio proiektuak sustatzeko laguntzak.

Hartzaileak hauek izango dira: irabazi asmorik gabeko pertsona juridiko publikoak edo pribatuak, maila guztietako ikastetxeak, komunikabideak, erakunde profesionalak eta sindikatuak.

Europako Egunaren Ospakizuna

Gizarte Gaietarako Zuzendaritzak Europako Egunaren ospakizunean parte hartzen du, 9 de Mayo Kultura Elkarteari, Europako gaiak zabaltzeko egiten dituen proiektuak diruz lagunduz.

UPV/EH Uren Europako Integrazioari buruzko Masterra

Master hau Europako Gaietarako Zuzendaritzak laguntzen du diruz.

1.2.2. Euskal Gizatalde Harremanetarako Zuzendaritza

Gaztemundu

Euskal Etxeetako 20 eta 30 urte bitarteko gazteak Euskadin egonaldia egiteko programa. Helburua bikoitza da: Euskadiren gaur egungo errealitatearen alderdi guztien berri ematea eta Euskal Etxeen bitzitza aktiboan belaunaldi berriak sar daitezen ahalbidetzea.

Indarrean dago 1996az geroztik eta 350 lagunetik gora pasatu dira programa honetatik.

Euskal Herrirantz

Ameriketako Euskal Gizataldeetako gazteak Euskadin prestatzera bideratutako laguntza-programa (unibertsitateko masterra edo lanbide-prestakuntza okupazionalako zikloak) 18 eta 40 urte bitartekoentzat.

Bira Kulturalak

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egonik, Euskal Etxeak dauden herrialdeetan (Txile, Uruguai, Argentina, Ameriketako Estatu Batuak eta abar) kultur zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsona fisiko edo enpresentzako laguntzak.

2

Bizkaia eta Gipuzkoako

Foru Aldundietako

programazio agiriak

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

1. MARKO TEORIKOA

1990.eko hamarkadan gazteriak egiazko protagonismo soziala izateko nozitzen zituen ezegonkortasuna eta eragozpenak agerian gelditu zirenez, ikuspegia aldatzea erabaki zen: ikuspuntu berriaren arabera, aisialdi eta zerbitzuak eskaintze hutsa ezin izan zitekeen gazteen errealitate sozialari eman zekiokkeen erantzun bakarra, ezta nagusia ere. Osoko gazteria-politikak garatu behar ziren, gazteen kolektiboak aurrean zituen arazo larrienei ihar-detsi ahal izateko moduko gazteria politikak. Horrelako premiei erantzuten die EAeko Gazte Planak.

Gazteria politikek euskailu sendo jakin batzuk hartu behar dituzte, hara:

- ▶ Gaztaroa luzatzearen ondorioz, ezinbesteko bilakatu da gazteen emantzipazioa oztopatzen duten eragozpenak suntsitzeko neurriak hartzea.
- ▶ Gazteen errealitate sozialak, aisian eta astialdian oinarrituriko ikuspegi tradizionaletatik harago doazen politika globalak gorpuztea eskatzen du.
- ▶ Gazteriaren baitan eragina duten politikak gauzatzen dituzten erakunde eta sailen arteko elkarlan eta koordinazioa areagotu beharra dago; baita, era berean, Administrazioaren eta gazteriarekin loturiko eragile sozialen artekoak ere.
- ▶ Gazteria-politikek gazteen autonomia sustatu behar dute, gazteen ekimenaren, sormenaren, mugikortasunaren, aisia eta aisialdiaren mesedetan.
- ▶ Gazteen esku-hartzea bultzatu behar dute erakundeek, hots, gazteei kontsulta egin ez ezik, parte hartzea eskatu beharko zaie erabakitzeko unean ere.

Bizkaian Gazteriaren Zuzendaritza berria sortzea, 2003ko ekainaren 30ean Batzar Nagusien aurreko inbestidura diskurtsoan Bizkaiko Diputatu Nagusiak hartu zuen konpromisoetako baten ondorio da: “Gobernu-konpromisotzat agintzen dugu erakundearen baitan zeharkakotasun izaera edukiko duen berariazko Zuzendaritza Nagusia sortzea, II.Gazte Plana aurrera atera eta gazteriari zuzenduriko jarduerak antolatuko dituen...”.

2. ARDURAK ESLEITZEA

- ▮ Gazteria gaietarako arduradun politikoa: Gazteriko zuzendari nagusia
- ▮ Kudeaketaren arduradunak:
 - Erakunde arteko koordinatzailea.
 - Sailen arteko koordinatzailea.
 - Kultura Saileko koordinatzailea.

3. GAZTERIAREN EGOERAREN DIAGNOSIA

Gazte Plana gazteen errealitateari osoko erantzuna emateko premiaren ondorioa da, errealitate hori osatzen duten dimentsio edo alderdi guztietatik (laborala, hezkuntza eta prestakuntzazkoa, etxebizitza alorrekoa, osasun eta gizarte-ekintzako, aisialdi eta kulturakoa eta abar) kontuan harturik.

Arazo berriak agertzeak (inmigrazioa, esate baterako), noski, eskakizun berriak ekarri ditu eskutik.

Informazioaren Teknologia Berriak gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari direla ikusten da. Lan-merkatuarekin eta merkatu horretarako gaitzearekin loturiko alorretan hartu duen garrantzia hauteman da baina, areago, kulturaren eta aisian.

Europar erakundearen jardura politiko, juridiko eta ekonomikoak euskal gazteriaren egoeran eragina duela antzematen da.

- ▮ Bizkaiko gazteek duten arazo larrienetako bat langabezia denez, Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailean auto-enplegua eta gazteek zuzenduriko enpresen sorrera laguntzeko politika gorpuzten ari da.
- ▮ Beste aldetik, gazteen gabezia hauteman da ikertzaile izateko eta, aldi berean, enpresa sortzeko bokazioa luketen eta, ikerkuntzan jarduteko edota teknologia eduki handiko enpresak sustatzeko Bizkaian; horrenbestez, profil horretako gazteak erakarri eta gure Lurraldean atxikitze asmodun proiektuari ekin behar dio Sail horrek.

Aipaturiko gabeziak agerrarazten dituzten adierazleak:

- Enpresario diren gazteen portzentajea.
- Ikertzaile diren gazteen portzentajea.
- ▮ Informazioaren Teknologia Berrien aplikazioaren bitartez hezkuntza globalizatzeko premia nabaritzen da.
- ▮ Gazteei heziketa-ibilbideak hautatzeko aukera emateko, lan-merkatuan dauden titulazioen gaineko informazio zehaztuagoa eskura edukitzeko premia hauteman da.

Bizitza osoan prestatzearen kontzeptua garatzen da eta hezkuntza sistema malguago izan dadin eskatzen da, lan baldintza hobetzeko xedez.

- ▶ Eleaniztasuna, Informazioaren Teknologia Berriak maneiatzea langile gazteen lehia-kortasuna areagotzeko funtsezko elementutzat jotzen dira.
- ▶ Lurralde Historikoko hainbat udalerri, txikiak izatearren, ez dira interesgarriak merkatuan dauden telekomunikazio-operadoreentzat, zailtasun orografikoak eta abar direla-eta horietara zabaltzeak kostu ekonomiko handiegia eragingo liekeelako.
- ▶ Gazteek emantzipatzeko duten nahi bizia eta, aldi berean, etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunak ere aintzat hartzen dira.

Bilbo Handia azterturik, populazioaren sektore zabal batek, Babes Ofizialeko Etxebizitza hartzeko finkatuak dauden familiako diru-sarrerak baino handiagoak badauzka ere, merkatu libreko etxebizitza eskuratzeko adinako ahalmen ekonomikorik ez duela egiaztatu da. Sektore horri, beraz, Babes Ofizialeko Etxebizitza eta merkatu libreko etxebizitzaren arteko zerbait eskuratzeko aukera eskaini beharko litzaioke: erdibideko irtenbide hori, Prezio Tasatuko Etxebizitza eskainiz antola liteke, horrela hiritarrari hiritar izateagatik zor zaion etxebizitza edukitzeko eskubidea ahalbidetuko litzaioke.

2002-2018 eperako (Bilbo Handiko Lurralde Plan Partzialak jasotzen duen moduan) etxebizitza berrien egiazko premia familia kopurua igotzearen ondorio da, familiaren batez besteko tamaina murriztu izanaren ondorioz; beraz, eraikigarritasun irizpideari eutsi nahi zaio, etxebizitza kopuruari heldu ordez.

Babes Ofizialeko Etxebizitza, egun, *Planeamendu eta Hirigintzaren Kudeaketarako Lanabesen Tramitazio eta Etxebizitza gaietako Premiazko Neurrien gaineko 17/1994 Legearen* bidez arautzen da. Horrela, 7.000 biztanletik gorako udalerriek osoko bizitegiaren % 20 *lurzoru hiritarrean* kokatu beharko dute; *lurzoru hiritargarri programatuan* eta *urbanizatzeke gai den lurzoruan*, berriz, osoko bizitegiaren % 65; 7.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan, aldiz, hori ez da aplikagarria izango.

- ▶ Ez da ahanzi behar gazteriaren baitan eragina dutela trafiko istripuek, menpekotasun-jokamoldeek, sexu-praktikako arriskuek eta elikadurarekin loturiko trastornoek zein asaldura mentalek ere.
- ▶ Bestetik, honako bi gazte-tipologia topatuko ditugu: oraino adin penalera iritsi ez diren gazteak, jokamolde antisozialak agertzen dituztenak, horien ordezkari legalek (gurasoak, tutoreak) ezin artatu eta ezin kontrola ditzaketenak eta, era berean, adin penalekoak diren nerabeak, jokamolde antisozialak agertzen dituztenak, horien ordezkari legalek ezin artatu eta ezin kontrola ditzaketenak.
- ▶ Asaldura mentalekin loturiko harreman-alorreko arazoak —bizitoki-baliabideak, eguneko baliabideak (eskolakoak, lanean hastekoak, artapen edo aisia alorrekoak, tratamendu psikologiko eta psikiatrikokoak)— nozitzen dituzten adingabekoez aratzeko baliabiderik ezean, osasun mentaleko sare, gizarte zerbitzu, hezkuntza eta fiskaltza erakundeen artean koordinaziorik egon beharko litzateke.

- ▶ II. Gazte Planak berak ere, lehentasunezko ildotzat jotzen ditu, besteak beste, gazteak fisikoki laguntzea, beren sarrera sozio-laborala errazteko eta, adiera zabalean, kolektibo zigorgarrienen —hau da, pertsona jakin bat baztertuta gertatzeko arrisku-egoeran dagoela adierazten duten indizeetako bat baino gehiago biltzen dituenak: emakume izatea, inmigrantea, ezindua, hezkuntza-maila apalekoa, eta abar— bazterketa sozialaren prebentzioa egitea.
- ▶ Era berean, Gizarte Ekintzaren markoan, Emakumea eta Familia Zerbitzuaren esku-hartze arloan sartzen diren emakume gazteen arazo eta premiak ere gogoan izan behar ditugu: esku-hartze profesional, lege-aholkularitza edo artapen psikologikoaren beharra ondoriozta dezakeelarik, famili talde jakin batzuetan ager ditzaketen gatazka-egoerak; emakume gazteen erabateko garapena eta integrazio sozio-laborala eragozten dituzten berariazko oztopoak dituzten emakume gazteak; premia eta larritasun biziko egoerak, hala nola tratatu txarrak edota eraso sexualak; bakarrik bizi diren edota famili zamak edukitzeaz gainera, eragozpen sozio-ekonomikoak nozitzen dituzten emakumeak eta, jatorriko familian gatazkak gertatzearen, bizitegi-alorreko babesaren premian dauden emakume gazteak.
- ▶ Bizkaiko gazteria unibertsitarioak, bere etorkizunaz erabakirik hartzean, ikasketak non egingo dituen deliberatu beharko du, familiak eskura dauzkan baliabide ekonomikoak aintzat hartuta. Hortaz, gazte bizkaitarrek beste hainbat Lurralde Historikotara jotzen dute ikasten segitzeko.

Erabaki horren aurrean, bi aukera har dezakete: ikasketak egin beharreko tokian bizitegi bilatzea edo, bestela, egunero edo asteburuan bidean jartzea, nor bere heritik ikasketak egiten dituen herriraino eta alderantziz.

- ▶ Agertu berri diren hainbat aisialdi ikuspegi berri batetik aztertu behar dira, hala nola gaueko aisialdi-pleguak, azalera handietan garatzen den aisialdia, teknologia berriei eta telebistari loturikoa, eta abar. Horietako gehientsuenak kontsumoarekin daude lotuak, batik bat: telebista-aisialdia, azalera handietakoa, gauekoa, eta abar.
- ▶ Gazteen aisialdia eta asoziazionismoa bereizi egin behar dira; areago, kultura osatuaz hausnarketa egin beharra dago, heziketa, sorkuntza, ekoizpena, hedapena, sustapena, banaketa eta kontsumoa bertan bildurik.

4. GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK

Helburu orokorrak:

- ▶ Bizkaiko Lurralde Historikoan gazteria alorreko osoko politikak garatzea.
- ▶ Bizkaiko udalerrietan EAEko II. Gazte Plana aplikatzea.

5. EKINTZAK ETA PROGRAMAK

5.1. Bizkaiko Foru Aldundiaren ekintzak, II. Gazte Planaren zehar-lerroak errazteko xedea dutenak

- ▶ Gazteriaren Foru Batzordea sortu da, Foru Aldundiaren sail guztien, EUDELen eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkariekin, II. EAEko Gazte Planak agintzen duen zeharkakotasun-izaera erdiesteko xedearekin.

Hona Foru Batzorde horren helburuak:

- Euskadiko Gazte Planaren baitan Bizkaiko Foru Aldundiak bereganatuak dituen konpromisoei irizpide bateratua ematea.
- Herri Administrazioekin elkarlanean aritzea, indarrean dagoen EAEko legeriaren esparruan, EAEko II. Gazte Plana dela-eta, erakunde bakoitzak harturiko konpromisoak betetzeko xedearekin hartu behar diren neurriak ezarri, koordinatu eta kontrolatze aldera.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko gazteek bizi duten errealitatea ezagutzea.
- Sail bakoitzak aztertzeke hautatzen dituen esku-hartze eta programak bateratzea, EAEko Gazte Planean onetsitako ildo eta konpromisoen arabera, nolana ere.
- ▶ Gaztedi Foroa izenekoa ere sortu da. Bere xedea Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateetako gazteria alorreko zerbitzu guztien arteko elkargune izateko eta antzematen diren gabeziak konpontzea dira.

Hona Gaztedi Foroaren eginkizunak:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko gazteria politikak koordinatuko dituen egituretako bat izatea.
- Gazteriaren alorrean aholkularitza eta laguntza ematea eta, era berean, udalen esparruan Gazte Planak garatu eta ezartzerakoan laguntzea.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko proiektuak prestatu eta garatzeko zerbitzuak eskaintzea.
- ▶ Gazte Planak biltzen dituen bost arloetan gazteek dituzten eskakizun eta premiei erantzun instituzional eta koordinatua eman ahal izateko eta, halaber, udal esparrua giza baliabideez eta materialez zuzkitzeko, 2003ko urrian Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatu zen, EAEko II. Gazte Plana ezarri eta garatzeko xedearekin.

Bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailari —Gazteria Zuzendaritza Nagusiari, zehazkiago—, Bizkaiko gazteriaren alorreko hainbat eginkizun betetzea dagokio Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ere bereak dituenak; horietako nabarmenenetako batzuk aipatuko ditugu jarraian: Bizkaiko haur eta gazteak artatu eta kolektibo horiek suspertzea —gazteen asoziazionismoaren garapenez bereziki arduratuz—, gazteen arteko komunikazioa sustatzea, gerora elkarrekin bizitzeko prestatu daitezkeen, eta gazteriaren baitan eragina izan dezaketen sektore sozial guztien gazteria politika koordinatzea. Horiek horrela,

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren artean elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatu du, gazteen kolektiboa garatu, sustatu eta indartzeko erakunde bakoitzak dituen eskumenak koordinatuta egikaritzeko.

5.2. Politika sektoriala

Bizkaiko Foru Aldundiko sail bakoitzak gauzaturiko gazteria politika zehaztuko dugu ondoren:

5.2.1. Enplegua eta prestakuntza

Gazteriaren alorreko helburuak

- ▶ Enpresaren kultura Bizkaiko gazteen artean sustatzea, enpresa proiektuen diseinu eta exekuzioan gazte horiek esku har dezaten bultzatuz.
- ▶ Autoenplegua eta gazteek zuzenduko dituzten enpresen sorrera sustatzea.

Programak

- ▶ Enpresa Prestakuntzarako Programa

Programa honi esker Bizkaiko gazteen artean enpresa kultura sustatu ahal izango da, enpresa proiektuen diseinu eta exekuzioan gazte horiek parte har dezaten bultzatuz.

Aurrekontua: 800.000 euro.

5.2.2. Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena

Helburuak

- ▶ Enpresa kultura Bizkaiko gazteen artean sustatzea, gazte horiek enpresa proiektuen diseinu eta exekuzioan esku har dezaten bultzatuz.
- ▶ Autoenplegua eta gazteek zuzenduko dituzten enpresen sorrera sustatzea.
- ▶ Internet bidez eta gazte ekintzaileei zuzenduta, enpresa proiektu jakinak martxan jartzeko behar diren informazio, zerbitzu eta laguntzak ezagutaraztea.
- ▶ Enpresak sortzeko egin behar diren izapide administratiboak erraztu eta arintzea, Internet bidez eta enpresa proiektuen sustatzaile gazteei zuzenduta.
- ▶ Ekintzaile gazteek aurkezturiko enpresa proiektu berrien bideragarritasun-bermeak areagotzea.

- ▶ Ikerkuntza zein enpresa munduak erakarritako gazteak Bizkaira ekarri eta bertan finkaraztea.

Programak

- ▶ Interneten ekintzaileei eskainitako ataria edukitzea, Bilboko Merkataritza Ganbararekin elkarlanean aritzea bere leihatila birtualean eta AJEBASK Bizkaiarekin elkarlanean aritzea, gazteen artean enpresa-kultura ekintzaileari dagokion alorrean.

Aurrekontua: 280.000 euro.

- ▶ Sustatu programa, enpresa ekimen berriak sustatzeko xedea duena.
 - Sustatu e.bit: Informazioaren Teknologia Berrien esparruan enpresa birtualak sortzen dituzten gazteentzako berariazkoa.
 - Sustatu Bideberri: proiektuak balioztatzeko unean, pertsona gaztea arduradun dutenei arreta berezia emango zaie.
 - Sustatu Kide: proiektuak hautatzeko unean, pertsona gazteak zuzendari dituzten enpresei arreta berezia emango zaie.

Aurrekontua: 700.000 euro

- ▶ Enpresario izpiritua duten gazte ikertzaileak Bizkaira erakarri eta bertan finkaraztea helburu duten jarduerak eta, era berean, horien arteko komunikazio-kanalak sortzea (komunitate birtuala).

Aurrekontua: 500.000 euro.

5.2.3. Ogasun eta Finantza

Ogasun eta Finantza Saila diru-sarrera izaerakoa denez, gazteei zuzenduriko jardueren aurrekontuaz aritzea ez da bidezko.

Ondoren, gazteei zuzen dakizkiekeen edo gazteengan eragina izan dezaketen programak zehaztuko ditugu. Nolanahi ere, kontuan izan dezagun Ogasun Sailarentzat 35 urtetik beherako pertsona jotzen dela gaztetzat, ohiko etxebizitzaren erosketagatik kenkaria egin ahal izateko unean.

Enpresa-aurrezki kontua

Jarduera ekonomiko batean hasierako inbertsioa gorpuzteko kreditu erakundeetan eginiko diru-gordailuengatik kenkaria —“enpresa-aurrezki kontu” ezaguna, alegia— gazte askori Pertsona Fisikoen gaineko Errenta Zergatik egingo zaien kenkari nagusietako bat izango da aurki. Neurria kolektibo horri bakar-bakarrik zuzentzen ez zaion arren, bera aplikatzea Euskal Enpresari Gazteen Elkarteak Foru Ogasunari eginiko eskariaren eta, era berean, enpresari horien kolektiboak enpresa ekimenari eman dion bultzadaren kezka ondorio dela nabarmendu behar dugu.

Kenkari hori 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartu da Foru Erakundearen zerga-legerian eta, geroago, murrizketa batzuk eginik, legeria orokorrera ekarri da.

Neurri horren arabera, aurrezki-kontu batean sarturiko diru-kopuruen % 10eko kenkaria aplikatu ahal izango du zergapekoak (gehienez ere 2.000 euro) baldin kontu hori ireki zenetik gehienez ere hiru urteko epean, jarduera ekonomiko bati hasiera emateko egin behar diren gastuetan inbertitzen bada diru hori.

Inbertsio hori nork bere kontua hasitako negozioa abiatzean aplikatu ahal izango da edo, bestela, kapital sozialean zergapekoak zuzeneko partaidetza daukan (bertako akzioen, gutxienez, % 20ren jabe baldin bada eta enpresa horretan zuzendaritza-lanetan lanaldi osoan badihardu, diru-kopuru hori PFEZen oinarri zergagarriaren erditik gora izaki) jarduera ekonomikoetan dabilen enpresaren akzio edo partizipazioak erostean.

Azpinarra dezagun kenkari hori bizitzan behin bakarrik egin ahal izango dela, hurrengo baldintzetan:

- Zergapekoak lehenago ezin izan du kenkariaren objektu den jarduera ekonomikoaren antzeko batean jardun.
- Goian adierazitako hiru urteko epean hastea jarduera ekonomikoan.

Nork bere kontura jarduera ekonomiko batean hasteko edo, bestela, estraineko negozioa abiatzeko asmoz beste lagun batzuekin bat egiteko interesatuta dauden gazteei begira diseinatu da neurri hori, baldin aurrezki-ahalmenaren parte handi bat lan edota enpresa-mundura jauzia egiteko beharrezkoa den kapitala batzeko erabiltzen badute, hein handi batean. Honakoak “etxebizitza-kontu” ezagunaren antzeko bereizgarriak dituen arren, epe laburrean produkzio-inbertsiora bideratuko den aurrezkiaren zergen alderditik sustatzen du eta, horrela, enpresa-ekimenerako grina duten gazteek bereziki erakargarri ikusten dute.

Babes Ofizialeko Etxebizitzentzako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauan, Zergaren osoko kuotan % 50eko hobaria sartu da; hobari horren onuradunak babes ofizialeko etxebizitzak eta, EA-Eko legeriaren arabera, horien parekotzat jotzen direnak izan daitezke, behin betiko kalifikazioa jaso ondorengo hiru urteetan. Neurri honek eragina du 2004ko ekitalditik aurrera.

Hortik aurrera, udalen esku dago hobari horri eustea, udalek erabakitako epean eta kopuruan, beti ere aurreko paragrafoan adierazitako portzentajea gainditu gabe.

Neurri hau gazteei bereziki zuzenduta ez badago ere, kolektibo hori osatzen duten pertsonak dira nagusiki hobari horren onuradunak, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzen duen pertsonaren batez besteko profila zein den ikusirik.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta ikerkuntzan dihardutenen beka

Gazteei bereziki zuzenduta egon ez arren, kolektibo hori osatzen duten pertsonak dira oraingo hobari honen onuradun “naturalak”: izaera publikoko erakundeetatik jasotako be-

kei aplikatzen zaien PFEZaren salbuespenaren zabalpenaz ari gara; berrikuntza gisa, 2004 urtetik aurrera irabazi-asmorik gabeko eta ikerkuntzan diharduten erakundeen bekak ere sartuko dira epigrafe horretan.

5.2.4. Nekazaritza

Helburuak

- ▶ Nekazari gazteak Bizkaiko sektore horretan sartzeko eta daudenak bertan mantentzeko sustapena.

Nekazaritza Sailak, gaztetzat hartzen du 40 urtez beherako pertsona.

Programak

- ▶ Gazteak lehen sektorean sartzea eta daudenak bertan mantentzea.
- ▶ Eusko Jaurlaritzako eta foru aldundietako nekazaritza sailek osaturiko Nekazaritza Politikaren Batzordean Nekazari Gazteen Plana onetsi ondoren, 2004. urtean zehar martxan ezarriko da. Nekazari Gaztearen Bulegoa, monitorizazio programa, onura fiskalak.

Bi programetako aurrekontua: 1.900.000 euro.

5.2.5. Udal harremanak eta urbanismoa

Helburuak

- ▶ Etxebizitza eskuratzea erraztea, babesturiko etxebizitzaren ugaltzea bultzatuz.
- ▶ Babesturiko etxebizitza ugaltzea, hurrengo irizpidea aplikatuz: babes ofizialeko etxebizitzak, guztien % 35; prezio tasatuko etxebizitzak, guztien % 30, 2018 urtera arte.
- ▶ Gazteek beren udalerrian etxebizitza eskuratu ahal izan dezaten laguntzea.
- ▶ Telekomunikazioetako operadoreentzat erakargarri gertatzen ez diren Bizkaiko udalerrietan banda zabala (zuntz optikoa, wifi eta abar) ezar dadin laguntzea.
- ▶ Udalerri horietako biztanleei teknologia berri horiek eskuratzeko aukera ematea.

Programak

- ▶ Udalerriek planeamendu orokorrak egokitzera behartzeko programa, Bilbo Handiaren Lurralde Plan Partziala (LPP) behin betiko onetsi ostean.

Aurrekontua: Berariazko gasturik gabe.

- ▮ Udalerriekin informazio-bilerak egiteko programa, eraikinen tipologiak estruktura sozial berrien arabera egokitzen hasteko.

Aurrekontua: Berariazko gasturik gabe.

- ▮ Telekomunikazioetako operadoreentzat erakargarri gertatzen ez diren Bizkaiko udalerrietan banda zabala ezartzeko programa.

Aurrekontua: 600.000 euro.

5.2.6. Gizarte ekintza

Helburuak

- ▮ Familiarteko gatazkak prebenitu eta arintzeko egokiak diren baliabideak ezartzea.
- ▮ Familia Sostengatzeko Programa edo Planak lantzea eta gai hauetan eskumenak dituzten gainerako erakunde eta organismoek antolatutakoak sustatzea.
- ▮ Familia Zuzenbideko gaietan aholkularitza juridikoa ematea, tratu txar eta eraso sexualak gertatzen diren kasuetan ere.
- ▮ Familiarteko esku-hartze espezializatua eskaintzea.
- ▮ Familiartean eraso sexualak gertatzen diren kasuetan artapen psikologikoa ematea.
- ▮ Ijitoen etniako gazte eta familiak integratzea.
- ▮ Nerabe eta gazte etorkinak integratzea. Gazte inmigranteen (laguntzailerik gabe etorritako adin txikiko atzerritarrak) emantzipazioan laguntzea.

Programak

- ▮ Familia Zuzenbide gaietan aholkularitza juridikoa emateko programa, bikotea edo matrimonioa hautsi eta tratu txar edo eraso sexualak gertatzen diren kasuetan

Aurrekontua: 7.805 euro.

- ▮ Arazo sozialak nozitzen dituzten emakume haurdun gazteak edo guraso bakarreko familien kargura daudenak etxebizitza autonomoetan sartzeko programa.

Aurrekontua: 169.449 euro

- ▮ Artapen psikologikoa eta familia esku-hartzea eskaintzeko programa, bikotea edo matrimonioa haustearen ondoriozko tratu txar, eraso sexual edota arazo psikologikoak nozitzen diren kasuetan.

Aurrekontua: 39.945 euro.

5.2.7. Herrilan eta garraioak

Helburua

- ▶ Bidaiariak errepidez eroateko garraio publikoa sustatzea eta artean bide segurtasuna areagotzea eta gazteen trafiko istripuak urritzea.

Programa

- ▶ Araba eta Gipuzkoako kanpusetara doazen unibertsitario bizkaitar gazteentzat, garraio ekonomikoa lortzeko laguntzen programa.

Aurrekontua: 310.000 euro.

5.2.8. Ingurumena

Helburuak

- ▶ Gazteak garapen iraunkorreko kulturaren sentiberatu, parte hartzera animatu eta inplikatzeko.

Programak

- ▶ Ingurugiro alorreko sentiberatzea, Bizkaia Maitea aldizkariaren bidez.

Aurrekontua: 8.114 euro.

- ▶ Tokiko Agenda 21eko udal kudeatzailearen graduondoko titulazioa sustatzea.

Aurrekontua: 9.000 euro.

5.2.9. Kultura

Helburuak

- ▶ Sortzaile eta interprete gazteak prestatzea.
- ▶ Alor geografiko zigortuenetako jendea kulturaren sar dadin laguntzea.

Programak

- ▶ Artista gazteei bekak eta laguntzak emateko programa.

Aurrekontua: 381.640 euro.

- ▶ Udalenzako laguntzen programa.

Aurrekontua: 21.000 euro.

5.2.10. Euskara

Helburuak

- ▶ Gazteen artean euskararen ezagutza hedatzea, Informazioaren Teknologia Berrien bidez.
- ▶ Gazteen artean euskararen ezagutza hedatzea, argitalpenen bidez.

Programak

- ▶ Informazioaren Teknologia Berrietan eta hedabideetan euskararen presentzia sustatzen duten produktuak fabrikatzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresei dirulaguntzak ematea.

Aurrekontua: 244.990 euro.

5.2.11. Kirola

Helburuak

- ▶ Dauden baliabideak biztanleriak, oro har, eta gazteriak, bereziki, dituen kirol-aztura eta premietara egokitzea.
- ▶ Kirolaren praktika gazteen artean sustatzea, bizimodu osasuntsu eta oparoa gozatzeko bide den aldetik.
- ▶ Kirol munduan murgildurik dauden gazteen prestakuntza eta kalifikazio teknikoa bultzatzea.

Programak

- ▶ Kirola praktikatzea dela-eta, premia bereziak dituzten gazteak aztertzea, Lurralde Historiko osoan eta eskualdeka.

Aurrekontua: 12.000 euro.

- ▶ Kirola praktikatzeko alde edo moldezko ezgaitasunak dituzten pertsona guztien Kirol Federazioa sortzea.
- ▶ Bizkaiko udaletako eta mankomunitateetako kirol-azpiegituren eskaintza sustatu eta hobetzeko programa.

Aurrekontua: 1.500.000 euro.

- ▶ Kirolaren praktika gazteen artean sustatzeko programa, bizimodu osasuntsu eta oparoa gozatzeko bide den aldetik.

Aurrekontua: 20.000 euro.

- ▶ Kirol praktikaren onurak biztanleengan hedatzeko sentsibilizazio kanpainak diseinatu eta lantzeko programa.

- ▶ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduriko kirol programa.

Aurrekontua: 20.000 euro.

- ▶ Kirol munduan murgildurik dauden gazteen prestakuntza eta kalifikazio teknikoa bultzatzeko programa.

Aurrekontua: 100.000 euro.

- ▶ Kirol munduan murgildurik dauden gazteen prestakuntza eta kualifikazio teknikoa bultzatzeko programa.

Aurrekontua: 32.000 euro.

- ▶ Bizkaiko kirol alorreko pertsonal teknikoari dirulaguntzak emateko programa, hobetzeko ikastaroak egin ditzaten, kongresuetara joan daitezen eta abar.

Aurrekontua: 12.000 euro.

- ▶ Eskola-kiroleko entrenatzaile eta hezitzaileei zuzenduriko jardunaldiak antolatzeko programa.

Aurrekontua: 9.000.000 euro.

5.2.12. Gazteria

Helburuak

- ▶ Gazteentzako informazio-zerbitzuen sarea zabaldu eta koordinatzea, gazteei kulturaren alorreko informazio interesgarria eskainiz.
- ▶ Aldizkako publikazio monografikoak argitaratzea eta, era berean, zerbitzu eta jardueren gida prestatzea.
- ▶ Gazteen arteko topaketen antolakuntzan lankidetzan aritzea.
- ▶ Bizkaiko Lurralde Historikoan asoziazionismoa lagundu eta sendotzea, aisialdiaren alorreko lanean diharduten gazte talde, elkarte eta kolektiboak diruz laguntzeko politikari jarraipena emanez; kanpamenduak, ikastaroak eta prestakuntzarekin loturiko jarduerak antolatzea.
- ▶ Ezgaituak artatzea, programa berritzaileak, udaletan gazteriaren esparruan aplikatu behar diren osoko planak, gizarte alorreko arazo eta desorekek eraginik dauden eta lehendik ere zigortuak izan diren udal eta zonetan aplikatuko direnak, erakundeen jardueren osagarri gisa.

- ▶ Gazteek bidaiatzeko norantza biko programak, mugaz alde bietara hedatzekoak edota gutxiengoan kultura eta herriekin elkarlanean jarduteko.
- ▶ 14 eta 17 urte bitarteko gazteentzako Uda Gaztea kanpainaren barruan hezkuntzan oinarritutako aisiaz gozatzea eta naturarekiko harremana ahalbidetzea; era berean, 18 eta 25 urte bitarteko gazteentzako Gazte Bidaia kanpainan bestelako kultura eta herrialdeekiko harremana ahalbidetzea.
- ▶ Bizkaiko Foru Aldundiak dauzkan instalazioetan gazteentzako jarduera ludiko-pedagogikoak sustatzea.
- ▶ Bizkaiko Lurralde Historikoko ondare historiko-kulturala eskola-umeei helaraztea, bisitaldi kulturalen bitartez (Bizkaitik Bizkaira).
- ▶ Bertatik bertara, prestakuntza eta informaziozko estrategiak planteatzea, gaueko aisia eskaintzen dituen ikuspegi berrien aurrean arriskuak prebenitu eta arintzeko xedearekin.
- ▶ Bizkaiko udalekin elkarlanean jardutea gazteentzako ekipamenduak sortzeko.
- ▶ Udaletako gazte planak diruz laguntzea.
- ▶ Jatorri desberdinetako gazteen arteko harremana sustatzea, informatikaren eta teknologia berrien erabilera tarteko; era berean, gazteentzat interesgarri diren errealitate sozialak ezagutaraz ditzaketen proiektu eta jazokizunetan laguntza eskaintzea.
- ▶ Bizkaiko Lurralde Historikoko balio sozio-kulturalak ezagutze aldera, gazteen hezkuntza garapena zein garapen pertsonala areagotuko duten gizarte eta hezkuntza zerbitzuak eman daitezen ahalbidetzea eta gazteei erraztasunak eskaintzea.
- ▶ Gazteentzat interes orokorrekoak izan daitezkeen heziketa-programen eta jardueren eskaintza ezagutaraztea.
- ▶ Bizkaiko gazteei informazio interesgarria ematea beren bilakaera pertsonala, prestakuntza, lan-merkatuak sarrera, emantzipazioa eta gainerako alderdiak hobetzeko eta, oro har, gizartearen berdintasun demokratikoz integra daitezen.

EAEko II. Gazte Planean jasotako programak

- ▶ Asoziazionismoa sustatzeko hainbat laguntza-fondo sortzea, besteak beste: ekonomikoak, teknikoak, azpiegitura eta prestakuntzakoak.

Aurrekontua: 10.000 euro.

- ▶ Gazte elkarteei aholkularitza, prestakuntza eta sostengua emateko zerbitzuen sustapena.

Aurrekontua: 63.364 euro.

- ▶ Nerabeekin lanean diharduten taldeei sostengua eskaintzea (aurrekontua eta azpiegiturak ugaltzea).

Aurrekontua: 64.884,82 euro.

- ▶ Udaletako, unibertsitateetako zein irabazi-asmorik gabeko erakundeetako Gazteentzako Informazio Bulego aintzatetsiei laguntza ematea.

Aurrekontua: 354.164 euro.

- ▶ Gazteentzako udal instalazioak eraiki, birgaitu zein egokitzeko lanak egiteko laguntzak ematea.

Aurrekontua: 601.012 euro.

- ▶ Bizkaiko Foru Aldundia eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren arteko hitzarmena, gazteen interesekoa den errealitate soziala.

Aurrekontua: 47.697,76 euro.

- ▶ Bilboko Udalarekin elkarlanean aritzea, Bilbao.Gaua gaueko aisia programa garatzeko. Bizkaiko Lurralde Historikoko beste hainbat udal horrelako programetan inplikaraztea.

Aurrekontua: 50.187 euro.

- ▶ Euskara komunikazio-tresna gisa aintzat jo eta lehenesten duten jarduera programak positiboki diskriminatzeke programa.

Aurrekontua: dirulaguntzei dagokien aurrekontu partidetan jasota dago.

EAEko II. Gazte Planean jasota ez dauden programak

- ▶ Euskal Party: informatikaren eta ordenagailuen zale gazteen topaketa-bilgunea, Bilboko Erakustazokan asteburu batean zehar.

Aurrekontua: 78.150 euro.

- ▶ Uda Gaztea eta Gazte Bidaiak programak: kirol eta kultura alorreko programak eskaintzea 14 eta 17 urte bitarteko bizkaitar gazteei eta, beste aldetik, 18 eta 25 urte bitarteko gazte bizkaitarrentzat Europan zehar kultura eta kirol xedea duten bidaiak antolatzea.

Aurrekontua: 251.613 euro eta 201.838 euro, hurrenez hurren.

- ▶ Plentziako aterpetxean ikasleentzako egoitza programa.

Aurrekontua: 153.930 euro.

- ▶ 15-18 urteko gazteentzako proiektua.

Aurrekontua: 23.400 euro.

- ▶ Gazteentzako aterpetxe-sarea.

Aurrekontua: 1.900.096 euro.

- ▶ Gazteriaren Informaziorako Lurralde Zentrua: gazteei informazio interesgarria eskaintzea beren bilakaera pertsonala, prestakuntza, lan-merkaturako sarrera, emantzipazioa eta gainerako alderdiak hobetzeko eta, oro har, gizartean berdintasun demokratikoz integra daitezen.

Aurrekontua: 335.918 euro.

- ▶ Gazteentzat interesgarri diren interes orokorreko prestakuntza programa eta jardueren eskaintza ezagutarazteko argitalpenak eta web orria.

Aurrekontua: 25.940 euro.

- ▶ Prestakuntzarako topaketen programa gazteentzako informazio alorreko profesionalentzat.

Aurrekontua: 16.520 euro.

- ▶ Ezgaituen elkarteei laguntzak emateko programa udako kanpainetan ezgaituak aratzeko helburuarekin.

Aurrekontua: 49.000 euro.

- ▶ Aisialdiko prestakuntza-eskolei dirulaguntzak emateko programa.

Aurrekontua: 126.212 euro.

- ▶ Programa: Bizkaiko Lurralde Historikoan EAeko II. Gazte Plana osatu eta garatzeko, Bizkaiko udalei, udalen menpeko organismo autonomoei eta udalen mankomunitatei dirulaguntzak ematea; era berean, udalek, erakunde autonomiadunek eta udalen mankomunitateek gazteei zuzenduriko hainbat jarduera antolatzeke ere, hala nola trukaketak egiteko, gazteei bidaiatzeko erraztasunak emateko, udal kolonia eta kanpamenduak egiteko...

Aurrekontua: 420.708 euro eta 93.400 euro, hurrenez hurren.

- ▶ Bizkaitik Bizkaira kultura ibilbideen programa-kanpaina, Bizkaiko Lurralde Historikoa bereizten eta identifikatzen dituzten ezaugarri sozio-kulturalak Bizkaiko gazteen artean hedarazteko.

Aurrekontua: 140.000 euro.

6. JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA

Bizkaiko Foru Aldundiak bere programen jarraipena eta ebaluazioa egiten du.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. MARKO TEORIKOA

1.1. Haurreria eta gazteria, errealitate dinamiko eta anitzak

Ez dago haurreria, ez gazteriarik, haurrak eta gazteak baizik. Haurtzaroa eta gaztaroa —ezaugarri desberdinak dituzten bilakaera-etapak edo kontzeptu soziologikoak ote diren gorabehera— anitzak eta dinamikoak dira. Haurren eta gazteen jokamoldeak desberdinak dira eta etengabe eboluzionatuz doaz. Horrek agintzen du programa bereizi eta malguak diseinatzea, batetik, eta gazteei eskaintako zerbitzuen antolamendua emantzipazio edo gizarteratzeko ibilbideak ere, bereizita eratzea.

1.2. Osokotasuna eta zeharkakotasuna

Programak lantzeko erabiltzen diren emantzipazio eta sozializazio kontzeptuek oso-kotasunean eta zeharkakotasunean oinarrituriko lana egitea eskatzen dute, enplegu, etxebizitza, hezkuntza, edota kulturatik harago. Gazteria Politikak, letra larriz, ez luke inondik ere izan behar esku-hartze (ekintza-politiken) programa batzuen batura hutsa, ezta, are gutxiagorik ere, ekipamendu eta zerbitzuen politika multzo bat (kudeaketa tresnak).

Foru administrazioaren arteko eta tokian-tokiko artapen-sistemen arteko zeharkako lana Zerbitzuaren helburuak agindutako zerbait da. Zeharkako izaera hori, sailen arteko lanari ez ezik, Zerbitzuaren kudeaketari ere badagokio (zeharkako plan eta programen ezarpena, Zerbitzuko profesionalen arteko elkarlana eskatzen duena).

1.3. Gizarteratzea, gizarte kohesioa eta aniztasuna

Emantzipazioaren eta gazteen sozializazio positiboaren alde —eta, horrenbestez, gazteen gizarteratze edo txertatzearen mesedetan— jokatzeko hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteria Zerbitzuaren misioaren atal bat da eta, horrenbestez, bai gazteen parte-hartze aktiboa, bai kultura, hezkuntza, osasun, informazio, enplegu, etxebizitza eta beste hainbat alorretara iristeko oztopoak suntsitzea ahalbidetuko duten esperientziak garatzea dakar berarekin.

Gizarteratzea eta gizarte kohesioa lortzeko eta gizarte anitza garatzeko helburuek eskatuta, kultura arteko esku-hartzeak sustatu eta belaunaldi desberdinetako jendearen partaidetza proiektuak garatu behar dira, elkarriketa eta jardun elkartua hobetzeko, kontua ez baita gazteentzako eta gazteekiko proiektuak garatze hutsa. Horrek guztiak eskatzen du lana zeharkako hiru lerrotan egitea, Zerbitzuak sustaturiko jarduera guztiak egituratuz: alde edo moldez gutxietsiriko gazteak, generoa eta Euskal Herriko kultura.

1.4. Heziketa prozesua

Hezkuntza prozesuetan jarduteko, zerbitzu-eskaintze edota jardueren garatze hutsean jaustea saihestuz, epe erdi edo luzerako ikuspegia finkatzeaz gainera, helburuei osotasunean eta banan-banan eta etengabe arreta zuzendu behar zaie, zerbitzu-eskaintza jarraitua eginez. Eta, beste aldetik, hezkuntza eragileei, hezkuntza erlazio ez-formalari eta, etengabeko prozesu den aldetik, hezkuntzari berari (bizi bitarteko heziketa, gutxietsiriko gazteek lehendabiziko enplegua erdietsitakoan heziketa-prozesuei jarraipena ematea eta abar) garrantzi berezia aitortu behar zaie.

1.5. Sorkuntza kulturala

Sozializazioak bi alderdi ditu: batetik, enkultrazioa, nagusi den marko kulturean parte hartzea dugu eta, bestetik, sorkuntza kulturala; garrantzia du, halaber, transformazioa gertatzeko aukerak emateak ere. Kultura hedatu, sustatu eta sortzeko programak garatzea, beraz, gazteen parte hartzearekin lotzen da, kontsumo kulturetik harago, gizartearen eraikuntzan berebiziko garrantzia daukan alor honetan, hain zuzen, kulturean.

1.6. Hiritargo aktiboa eta gizarte zibilaren heldutasuna

Hiritarrek kudeaketan, interesguneetan eta ardura publikoetan esku-hartzea bete beharreko baldintza da demokrazian sakondu ahal izateko. Kontua da hiritar ordezkarietik hiritar parte-hartzaile izatera igarotzea. Parte hartzea eta subsidiariorotasuna horrela ulertzen dira, erantzukizun publikoaren eta sakontze demokratikoaren printzipioetan oin hartuta, hori baita eragile sozial guztiek (ekimen publiko, asoziatibo zein pribatukoak izan) kudeaketa publikoaren fase guztietan esku hartu ahal izango dutela bermatzen duen elementua. Horrek, bestetik, gazteek, elkarteek eta antzekoek hitza eman dezaten beharrezkoak diren baldintzak ezartzea eskatzen die administrazioei.

Kudeaketa publikoan parte hartzeak gestio horren gardentasuna agintzen du, bederen: zer egiten ari den, norentzat, zergatik, aurrekontua esleitzeko beste irizpideak zein diren... argi eta garbi jakinaraztea, alegia. Zerbitzu den aldetik, lortu nahi dena hurrez eta gazteez arduratzeko sare koherente eta integrala antolatzea ere baldin bada, berriz, sarea osatzen duten erakundeen politiken gardentasuna are eta artatzagoa izan beharko da.

Asoziazionismoa sustatzea, gainera, gazteria politika koherentearen helburu da, berez. Gizartearen txertatzea eta emantzipatzea ere parte hartzeko moduak dira.

1.7. Gazteria Zerbitzuaren erantzukizun publikoa eta jarduera subsidiarioa, tokiko sareekiko

Gazteria Zerbitzuaren betekizuna, zerbitzuak ematea dela eta, tokiko sareen subsidiariorotasun jotzen da. Zerbitzuaren aitzindarritza tokiko autonomia eta gizarte zibilarena sustatu eta sostengatzean erakutsi beharra dago, hain zuzen. Subsidiariorotasun printzipioa aplikatzen zaio bai gizabanakoaren eta (adiera zabalean) Estatuaren esparruen arteko mugaketari, baita botere politikoaren artean eginkizunak banatzeari ere.

Subsidiariorotasunak bi alderdi dauzka, bata bestetik ezin bereizizkoak: a) norberak, egokien bete ditzakeen tokian bere ardurak egikartzeko eskubidea; b) botere publikoek duten obligazioa norberari bere burua erabat errealizatzeko bitartekoak emateko. Subsidiariorotasunak ez du bidezko egiten, inondik ere, Estatuak bere ardurarik bertan behera uztea.

1.8. Orientazio lokala

Haur eta gazteez artatzeko sarea diseinatu eta garatzeko helburu horrek gazteria tokian-tokian egituratzea agintzen du, sarea osatzen duten zerbitzu gehienak (hezkuntza formal eta ez-formala, kultura, osasuna, are enplegua eta etxebizitza eskuratzeko bideak ere) tokian-tokian ematen direla eta eman behar direla kontuan izaki. Berretsi dugun erantzukizun publikoaren printzipioa euskailu hartuta, tokiko sareak udalen edota izaera publikoko bestelako erakundeen gainean antolatu behar dira.

2. ARDURAK ESLEITZEA

2.1. Gazteria gaietarako arduradun politikoak

2003. urtean egokitu den legealdi aldaketan Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratze Departamentuan integratu da Gazteria Zerbitzua. Foru ahaldu berria Mari Carmen Marin da eta Jose Ignacio Insausti, berriz, zuzendari nagusi berria. Aspaldiko partez kirol atalaren eskutik zetorren arren, orain, lehendabizikoz, egitura berrian Gazteria alorra bereiz agertzen da (Gazteriaren eta Egintza Komunitarioaren Zuzendaritza Nagusia).

Legaldi berria hastean Gipuzkoako Foru Aldundiak ere ekin dio erakundea bestela antolatzeari eta, ondorioz, sailetan aldaketa ugari gertatu dira. Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratze Sailaren arduradun berriak Gipuzkoako lurraldean II. Gazte Plana ezartzeko bertako Aldundiak harturiko konpromisoak bere egiteaz gainera, gazteria politika bultzatu ere egin nahi du, Gipuzkoako gazteriaren hazkuntza eta emantzipazio prozesuan eragin mesedegarria izango duten programak sailen arteko koordinazioari esker gara daitezen.

Horregatik guztiagatik premiazkoa da Gipuzkoako gazteen bizi-baldintzetan eragina duten sailtako arduradunak bilduko dituen koordinazio-foro bat sortzea; organismo horren izena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteriaren Foru Batzordea izango da.

Gazteriaren Foru Batzorde horren eginkizunak hauek izango dira, besteak beste:

- ▮ Gipuzkoako gazteriaren hazkuntza eta emantzipazio prozesuan eragin mesedegarria izan dezaketen balizko ekintzen gainean sailen artean hausnarketa egin dadin sustatzea.
- ▮ Gipuzkoako lurraldean horrelako ekintzak ezartzeko sailen artean programak osa daitezen bultzatzea.
- ▮ Programa horien programazio, kontrol eta ebaluazioa egiteko beharrezkoa den sailen arteko koordinazioa antolatzea.

- ▶ Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion heinean, EAEko Gazte Planaren ekintzen exekuzioa martxan jarri eta ebalua daitezen bultzatzea.
- ▶ Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartu behar duen Gazte Planaren ekintzen exekuzioa koordinatzea, epeak, bitartekoak eta baliabideak zehaztuz, egintza horiek harmoniaz gara daitezen.
- ▶ EAEko Gazte Planaren garapenari dagokionez, aurrerantzean egiten diren kontsultez bai Gipuzkoako Foru Aldundiak, bai bestelako erakunde pribatu zein publikoek informazioa eta aholkua ematea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteriaren Foru Batzordea hurrengo kideek osatuko dute:

Lehendakaria:

- ▶ Gazteria eta Egintza Komunitarioaren zuzendari nagusia.

Batzordekideak:

- ▶ Enplegu eta Gizarteratze Departamentuko zuzendari nagusia.
- ▶ Mendekotasun eta Babes-gabezien Artapenaren zuzendari nagusia.
- ▶ Komunikazio eta Prospekzioaren zuzendari nagusia.
- ▶ Funtzio eta Zerbitzu Publikoen zuzendari nagusia.
- ▶ Berrikuntza eta Ezagutza Sustatzeko Departamentuko zuzendari nagusia.
- ▶ Zerga eta Finantza Politikaren zuzendari nagusia.
- ▶ Kulturako zuzendari nagusia.
- ▶ Euskararen Normalizazioko zuzendari nagusia.
- ▶ Kirolen zuzendari nagusia.
- ▶ Informazio Gizarte eta Sistemen zuzendari nagusia.
- ▶ Lurzoru eta Garraioetako zuzendari nagusia.
- ▶ Nekazaritza eta Landa Garapenerako zuzendari nagusia.
- ▶ Ingurumeneko zuzendari nagusia.
- ▶ Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko bi ordezkari.
- ▶ Gazteria Zerbitzuko burua.

Idazkaria:

- ▶ Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratze Departamentuko Idazkaritza Teknikoko teknikari bat.

2.2. Gazteria alorreko esku-hartzeen kudeaketaren arduradunak:

- ▶ Haur eta Gazteriaren zerbitziburua

- ▶ Haurreria eta Gazteriaren Sustapen Ataleko burua.
- ▶ Aterpetxe Ataleko burua.
- ▶ Gizarteratze eta Enplegu Departamentuko Teknikaria.
- ▶ Mendekotasun eta Babes-gabezien Artapen Departamentuko Teknikaria.
- ▶ Komunikazio eta Prospekzio Departamentuko Teknikaria.
- ▶ Herri Funtzio eta Zerbitzu Departamentuko Teknikaria.
- ▶ Berrikuntza eta Ezagutza Sustatzeko Departamentuko Teknikaria.
- ▶ Zerga eta Finantza Politikaren Departamentuko Teknikaria.
- ▶ Kultura Departamentuko Teknikaria.
- ▶ Euskararen Normalizazio Departamentuko Teknikaria.
- ▶ Kirol Departamentuko Teknikaria.
- ▶ Lurzoru eta Garraio Departamentuko Teknikaria.
- ▶ Nekazaritza eta Landa Garapenaren Departamentuko Teknikaria.

3. GAZTERIAREN EGOERAREN DIAGNOSIA

Gipuzkoako Aldundiaren Gazteria Zerbitzuak egin duen egoeraren diagnostikoak hurrengo emaitzak agertu ditu.

3.1. Ahuleziak

Eskumenen banaketaz zehaztaperen eskasa eta Zerbitzuaren jardute-muinaren sendotzerik eza

Zerbitzuak izan beharko lituzkeen eskumenez zehaztaperenik ez dago: bera identifikatzen duten eta bere jarduera-muina osatzen duten alderdi estrukturalak, administrazioaren gainerako sailekiko nolako funtzioak dituen edo, osoko gazteria politiken sustapenerikiko zein eginkizun behar dituen zehaztu behar dira.

Gipuzkoako haur eta gazteen egungo premiei erantzuteko baliabide ekonomikoen eskasia eta okerreko orientazioa

Hainbat alorretan —politikoan, sozialean, kulturean, eta abarretan— biziki konplexua den unean bizi gara; horren ondorioz, sozializazio eta emantzipazio prozesuak ere aldrebestu egin dira. Aldi berean, tradiziozko hezkuntza-eragileen eta eskaintzaren ahulezia ere hautematen da.

Arretaren jarraipena garatzen joatetik (urte osoan zehar eta den bitartean), tokiko sareak sendotzetik, ekipamendu sare koherentea garatetik eta Zerbitzuaren kudeaketatik sortzen diren behar guztiek exigitu egiten dute zerbitzuaren aurrekontua dezente ugaltzeko.

tzeaz gainera, urterik urte ere kopuru hori areagotu dadin eta, beste aldetik, mezenasgo sozialen plangintza martxan jarri eta garatzea.

Planifikazio-sistema garatzeko premia

Ebaluazio eta antolamenduarekin bat egingo duen eta, gainera, informazio-sistema estrategiko baten euskarria edukiko duen plangintza-sistema integratua garatu behar du zerbitzuak. Premien, baliabideen eta zerbitzuen ebaluazioa, eskualdekako azterketa eta, sensu stricto, zuzenean eskaintzen diren zerbitzuen multzoaren ebaluazioa garatzea behar-beharrezkoa da.

Foru Aldundiaren Gazteria Zerbitzuaren egitura premien arabera egokitzeko eta zeharkako egintza integratuak garatzeko premia

Barne-koordinazio sistemetan eragin bizi-bizia izango du zehar-lanak, plan eta proiektuei dagokienez. Adiera horretan, egiatzko aitzindaritzak garatu beharra dago, bai programen, bai kudeaketa-funtzioen garapenean, profesionalen autonomia zainduz, helburuen araberrako zuzendaritzak-markoan, eta, horrenbestez, Zerbitzuaren egintza orientatzen duten ildo estrategikoei dagokiela, ekipo (tekniko zein politiko) osoaren sintonia bermatuz.

Foru Aldundiaren Gazteria Zerbitzuko profesionalen jarduera bestela orientatzeko eta horien eskumenak Zerbitzuaren garapenaren premietara egokitzeko beharra

Zerbitzuaren egungo langile-zerrendak ezin erantzun dezake aurrean ditugun erronken premiei; horretarako, Zerbitzuaren egintza ildoak garatzeko erabilgarri dauden giza baliabideak biderkatu beharko lirake, tarteko egiturak bataiatu ditugun horien garapenaren bidez.

Foru Aldundiaren Gazteria Zerbitzuko kanpo-komunikazioa indartzeko eta harremanak anizteko premia

Zerbitzuaren egintzak eta emaitzak ez dira behar bezala hedarazten; areago, Zerbitzua ezagutaraztea premiazkoa da, oro har. Bide horretan, hainbat lanabes (nortasun korporatiboko eskuliburua) eta komunikazio-euskailu garatu beharko lirake, Aldundiak duen irudia gazte den zernahitik dezente urruti dabilela kontuan izaki. Informazioaren gizarteak eta Informazioaren Teknologia Berriek agerturiko erronkei buru egiteko premia ere hauteman da: Sarean zerbitzuak sortu eta martxan jarritz, Sarea konexio lanabes gisa baliatuz, eta abar.

3.2. Mehatxu eta arriskuak

Aldaketa sozialen eta sozializazio eta hezkuntza ez-formaleko eragile tradizionalen ahuleziaren ondoriozko premietara eskaintza egokitu ez izana

Eskaintza —publiko zein pribatua— ez da egokitu haur eta gazteen premietara. Sozializazio eta hezkuntza ez-formaleko eragile tradizionalen ahuleziak, emakumea lan-mer-

katuan sartzeak eta familia edo elkarbizitza eredu en ugaltzeak haur eta gazteriar zuzenduriko zerbitzuen eskaintza publikoa urtean zehar ere gara daitezzen eskatzen du, haur eta gazteek prestazio hori heldute-prozesuan lagungarri izan dezaten.

Gazteen emantzipazioa geroratzear

Langabezia tasak urritu diren arren, gazteen lan-egonkortasuna nabarmena eta adin horietako gizonen emantzipazioa geroratzeko zergati nagusietako bat da oraino ere. Geroratzeko horretan elkarbizitza-eredu nagusiak (egun, bere jabetzako pisuan bizi den bikotea) ere eragin handia du eta, izan ere, gazteria politikak egoera hori ezin saihestuzkotzat onartzen ari omen dira. Enplegu politikak bestelako kolektiboetara bideratzeak, gazteen ikasketa garaia luzatzeak, gazteei bereziki zuzenduriko etxebizitza-programarik ez izateak, gizarteratzeko gutxieneko diru sarrerarik gutxieneko eskubidetzat ez jotzeak, eta abar edo, beste eremu batean, gazteria politiken garapenak berak ere, gazteen emantzipazioaren onarturiko geroratzeara ontzat hartzen dute.

Aisialde gozatu, bizi, ikasi eta lan egiteko guneen dibertsifikazioa eta sakabanaketa geografikoa

Bizitegiak barreiatzeak, bizitokia eta lantoki edo ikastegia bereizteak, kontsumoa eta merkatal guneetan tarte libreak emateak, besteak beste, zerbitzuaren eskaintza gorpuzten den guneak biderkatzea eskatzen dute.

Guneen dibertsifikazioari Gipuzkoako tamaina txikiko udalerrien kopuru ugaria eta sakabanaketa geografikoa (Tolosaldean edo Goierrin nabarmena, bereziki) erantzen bazaizkio, eskualde eskualde zein eskualde barnean ere, zerbitzu eta ekipamenduak barreiatzea derrigorrezkoa dela onartu beharra dago. Eskaintza, jarduera eta gainerakoek garapena sustatu beharreko guneen dagokiela ere, sormena erakutsi beharko da.

Informazioa hedatzean, gabeziak

Informazio programaz ari garela, beharrezkoa da erabiltzaileen profila (unibertsitateko ikasle eta emakumeak, gehienbat) dibertsifikatzea, informazioa sozializatzeko proiektuak garatzea, informazioa plazaratzea eta haur eta gazteek eginiko ibilbideen arabera edukiak dibertsifikatzea. Bestetik, informazioa barreiatzeko ekintzak sustatu behar dira, Gazteentzako Informazio Bulegoetatik harago.

Hezkuntza ez-formalaren eskaintza desagokia, haur, gazte eta familien eskakizunak kontuan izaki

Hezkuntza ez-formalaren eskaintza ez zaio egokitzen ari haur, gazte eta familien eskariei. Hezkuntzara begirako astiaren eskaintza horrek kontrol eta segurtasun alderdiak indartu, hein batez ekipamenduetan garatu, haur eta gazteen eskakizunei erantzunik eman diezaieteken jarduerak dibertsifikatu, helburu instrumentalak eduki (euskararen sustapena, hizkuntzen ikaskuntza...) eta haur eta gazteei zein gurasoei zuzendutako komunikazio

alorrean ahalegin handia egin behar du, proiektuaren, jardueraren, produktuaren eta bi-tartekoaren pedagogien arteko orekarantz aurrerapausoak eginez. Derrigorrezkoa da, no-lanahi ere, hezkuntza-alor ez-formaletan eginiko ikasketek helduaren bizitzan, lan-mun-duan eta gainerakoetan izango duten garrantzia nabarmentzea eta, era berean, asti eta aisialdiko jardueren hezkuntza-izaera gurasoek aintzat hartzea.

Hezkuntzarako aisialdiaren eskaintza eta sektore horretako irabazi-asmorik gabekoen eskaintza ere, ahulago, oro har

Sektore horretan dabilzan irabazi-asmorik gabeko erakunde eta sareei dagokienez, hurrengo bereizgarriak hautematen dira, oro har:

- ▶ Profesionalizazio eskasa.
- ▶ Enpresa-proiektuen gabezia.
- ▶ Aitzindariak, sare-sustatzaileak, koadroak eta antzekoak prestatzeko premia.
- ▶ Jardueren ardatz modukoak izango diren espazio eta ekipamenduak zehazteko be-harra.
- ▶ Nerabe eta gazteekin lanean aritzeko eskarmentu eta gaitasun gabeziak.
- ▶ Ez kultura jakinik, ez kudeaketarako lanabesen garapenik izatea.
- ▶ Lana, tokiko proiektu integralak, tokiko sareak eta gainerakoak belaunaldi desber-dinetako gizakien artean garatzeko beharra, lurraldean (mankomunitatean, eskual-dean, udalerrian, barrutian, auzoan) proiektuak egituratuz.

Asti eta aisiaren eskaintzaren hezkuntza-izaerari eusteko beharra

Urtean barrena ez ezik bizitzan zehar ere asti eta aisiaren eskaintza garatu beharra dago, benetako hezkuntza-eskaintza izan dadin; horrek prozesua betetzea agintzen du, besteak beste.

Baliabide normalduen eta arriskuan dauden haur eta gazteen ezaugarriei egokiturikoak, urri; aukeren berdintasunaren eta euskal nortasun eta kultura partekatua osatzearen mesedetarako estrategiak ere, eskas

Arrisku egoeran dauden haur eta gazteei informazioa gerturatzeko ahalegina egin, haur eta gazteei zuzenduriko hezkuntza ez-formaleko bitartekoak populazio horren ezaugarrien arabera egokitu, horiek beraientzako ekimenean duten parte-hartzea garatu eta haur eta gazte horien helduen bizitzarako iragatean izango duten laguntza bereziki zain-du beharra dago.

Zerbitzua tokiko sareak sustatzera orientatzeko beharra

Erakunde eta sareak sustatu eta garatzeko estrategiak martxan jartzeak horiei begira-ko zerbitzu edo artapen-jarraipena garatzea, zuzeneko kudeaketa eta norberaren eskain-

tza erakundeen osoko garapenaren sustapenean (hauxe baita helburua) txertatzea eta —bidezko denean, zerbitzuen kudeaketa erakunde eta sareen eskuetan utzita— zerbitzu-sare koherente eta integrala antolatzea exigitzen du.

Haur eta gazteez artatzeko tokiko sareak garatzeko premia

Tokian tokiko sistemen arteko elkarlanaren mesedetan aritu eta sistema eta eragile guzti-guztien eskumenak zehaztu beharra dago, ezinbestean, gizarte eta hezkuntza alorretako premietan (bereziki baina ez soilik) eragin bizia izango duen sozio-haur eta gazteez artatzeko osoko sistema koherentea taxutuz. Adiera horretan, gizarte eta hezkuntza alorretako eragile guztien prestakuntza koordinazioz eta sistematikoki burutzea eta, bestetik, sareetako lanaren mesedetan jarduteko, gazteria alorreko udal teknikari edo ardura-dunekin berariazko lan-plana garatzea dira bete beharreko premia nagusietako bi.

Erakunde eta sareen arreta-jarraipena garatzeko premia

Erakunde eta sareei zuzenduriko zerbitzuak continuum gisa garatzea beharrezkoa da, garapen apalenez bereziki artatuz.

- ▶ Programa eta proiektuak martxan jartzeko eskualdeko ikasketa aplikatuak garatzea.
- ▶ Erakunde eta sareak informatu eta dokumentatzeko zerbitzuak garatzea.
- ▶ Prestakuntza eta aholkularitza zerbitzuak garatzea, (batik bat) tokiko eragileak prestatzeko eskaintza sistematizatuz.
- ▶ Euskailu eta bitartekoen transferentzi zerbitzuak garatzea, transferentzia hori zerbitzuaren ildo estrategikoekin bat datozen proiektu koherenteetara zuzenduz eta euskailu eta bitarteko transferigarrien motak ugalduz.
- ▶ Plan Estrategikoaren baitan abiatutako proiektu, zerbitzu eta ekipamenduak ebaluatzeko zerbitzuak eta kontrol eta ikuskaritza-funtzioak garatzea, erakunde eta sareekin elkarlanean jardunez.

Gazte-kultura gaietan, jarduera-markoa eta tarteko egiturak garatzeko beharra

Lehenik eta behin, gazte-kultura gaietan jarduera-markoa, bere definizioa eta gainera-ko sektoreekiko mugak, sektorearen berariazkotasuna finkatu beharra dago eta, era berean, jarduteko ildoak zehaztu behar dira, Sailen arteko lana —Kulturako Zuzendaritzarekin, batik bat— bultzatuz.

Ekipamendu gabezia

Haur eta Gazteen Erakundeak (HGE) tokiko sarearen muin gisa gara daitezke, hainbat egintza gorpuztea dela-eta (informazioa, erakundeei eman beharreko zerbitzuak, e.a), gune deszentralizatuen bitartez arituz. Horrela, pixkanaka tokiko gazteentzako, bolunta-

riorentzako eta gazteen asoziazionismoarentzako baliabide-gune gisa garatuko dira; izan ere, HGE horiek dira tokiko gazteria-politiken erreferentzia fisiko behinena.

Kultura politikoa, sailen arteko elkarlana eta EAEn antolamendu instituzionala

Herri Administrazioetan gertatzen diren sailen eta erakundeen arteko koordinaziorik ezak eta blokeoek zeharkako programak gorpuztea eragozten dute, eta EAEn erakundeen arteko antolamendu-ereduak tokiko zerbitzuen garapenean arazoak sortarazten ditu.

Gazteria politiken gastuaren eskasia eta kultura alorreko gastua azpiegitura eskergetara eta kultura-kontsumorako orientazioa

Egoera ekonomiko orokorraren hobekuntza oraingoz ez da agertu gazteria politiken gastuaren areagotze nabarmenean, ezta informazio, hezkuntza ez-formal, kultura, haur eta gazteentzako sustapen eta emantzipazio, gazteen ekimeneen sostengurako eta antzeko zerbitzuen garapenean ere.

3.3. Alderdi sendoak

Aurretiazko esperientzia haur eta gazteez artatzeko continuumaren programa denetan eta erakunde eta sareei zerbitzuak emateko programetan, erabiltzaileen atsegina

Zerbitzuak lehenago ere jardun zuen lanean informazio, kultura eta hezkuntza ez-formalaren programetan, baita sustapen eta emantzipazio lanetan ere (oztopoen ezabapenean). Tarteko egituren garapenean, erakunde eta sareentzako zerbitzua ematean (hezkuntza ez-formalean, batik bat) eta tokiko sareen sustapenean ere badu eskarmentua; ikasketa eta argitalpen zerbitzuei dagokiela, berriz, baliabide eta heziketaren transferentzia, proiektu-aholkularitza alorrean ere hainbat jarduera burutu direlarik.

Plangintza-funtzioen garapenean aurretiazko esperientzia eta autonomia

Aspaldiko partez zerbitzua ari da premien eta baliabideen ebaluazio-sistemak —haue-tako batzuk, hobekuntza-egintzen geroagoko programaziora begira— martxan jartzen. Bide horretan, bestetik, Gipuzkoako gazteriaren gaineko adierazle mordo bat ere eratu eta antolatu du.

Zerbitzuko profesionalen ekipoaren kalitatea

Langileek garatzen duten jardueran eta bete beharreko helburuetan sinetsi egiten du eta, gainera, badu zerbitzua eta haur eta gazteria politika koherentea garatzeko adinako gaitasun teknikoa.

Beste hainbat Herri Administrazioarekin eta sektoreko erakunde eta sareekin elkarlan hertsia eta egokia

Asoziazionismoarekin eta gazteen kolektiboekin harremanetan sartzeko jarrera egokia hautematen da. Harremanak, maila teknikoan bederen, on-onak dira, gazteria alorreko udal teknikariek eta gazteria gaietan ardurak dituzten udaletako profesionalekin, bereziki.

3.4. Aukerak

Estruktura demografikoaren aldaketak

Haur eta gazte-populazioa urtetan murriztuz gero, jaiotze-tasak gora egin du ostera.

Familiari eta lanari dagozkien politiketan aldaketak

Badirudi lana banatzeko sistemak, lanaldiaren murrizketa edota lantokiko zein famili giroko elkarbizitza goxatzeko neurriak etorkizunean praktikan jarriko direla; horrelakoek eragin bizia izan lezakete gazteen enpleguan, jokamoldeetan, lan eta aisialdiaren irudikapen sozialean eta aisialdi eta kultura alorretako jardueren garapenean, baita lanean ari diren gizaki heldu askorengan ere. Horrelako aldaketak, nolahi ere, eremu politiko eta ekonomikoan jazoko dira baldin eta, horiekin batera edo lehenago, balioetan eta (familia eta lanarekiko) herritarren irudikapen sozialak norabide berean aldatzen badira.

Ekimen politikoaren eta ardura publikoaren garapena, haur eta gazteei dagozkien gaietan

EAEko Gazte Plana martxan jartzeak, haur eta gazteria gaietako ardura publikoa eta ekintzak garatzeko asmoa eta konpromiso politikoa argi eta garbi erakutsi ditu. Gure ikuspegitik, Aldundiak eta udalek Gazte Plana garatuko duten plan sektorialak martxan jartzeak eskatzen du, lehen-lehenik, haur eta gazteen arreta-jarraipena continuuma eta tokiko sare propioak garatzea. Zehar-politikak praktikan ipini ahal izateko esku-hartze nabarmena gauzatu beharra dago, haur eta gazteei hazkuntza prozesuan eta helduarorako iragatean laguntzeaz ari garela; bestetik, nola ez, Foru Aldundiko eta, batez ere, udaletako sailen eta zerbitzuen artean elkarlanean gorpuztuko diren proiektuen garapena bultzatu behar da, zehar-lan horrek funtsezkoa duen euskailua osatuko bada: elkarlan alorreko eskarmentu eta kultura, finantza-lanabes eta teknikak, eta abar.

Mezenasgo sozialaren garapena

Pizgarri fiskalen sistema garatzeak, gobernu kanpoko erakunde irudi positiboak, administrazioek eta herritarrek enpresei konpromiso soziala har dezaten eskatu izanak eta antzekoek baliabide pribatuak atzemateko planei ez ezik, ekonomia eta gizarte-munduek elkar topatzeko eszenatokiari ere ateak zabaldu dizkiete: marketing kausaduna, espontso-rizazioa, babesia, e.a.).

Tokiko autonomiaren garapena

Globalizaziotzat definitu den horren barnean tokian tokikoa berresteko fenomenoak gertatzen dira egunero, hala nola nazionalismoen susperraldia, bertako autonomiaren garapena, elkarrekin harremanetan jarduteko eta gizakia lehenesteko guneak aurkitzeko edota erreferentziazko gizataldeak osatzeko premia pertsonala. Adiera horretan, globalizazioak goitik behera eta behetik gorako mugimendu bikoitza eragiten du, batetik mundu zabalera eta bestetik herrira begira, tokiko autonomia garatzea eta demokrazian sakontzea exijituz. Testuinguru horretan Foru Aldundia eta gainerako tarteko erakundeen egin-kizuna berriro zehaztu eta sareko nodo gisa garatu beharra dago.

Hezkuntza ez-formal eta kulturalaren eskaintza garatzeko aukera berria

Familian gertaturiko aldaketen ondoriozko premiek, emakumeak lan-munduan sartzeak, esku-hartzeko espazio berriak agertzeak (ikastegiak eta abar), derrigorrezko eskolaratzea hamasei urtera arte luzatu izanak, hezkuntzazko kirola garatzeko beharra Kirol Legean aintzat hartu izanak, esparru ez-formalak hizkuntza normalizazioan izan dezakeen ekarpena aintzat jotzeak eta bestek hezkuntza ez-formal eta kulturalaren eskaintza garatzeko aukera berriak ekarri dituzte.

Irabazi asmorik gabeko erakundeen potentzialtasunak eta hirugarren sektoreak Zerbitzuaren tradizioa eta europar enplegu-estrategia bat eginik garatzeko apustuaren koherentzia

Bai hezkuntza ez-formalaren (aisialdiaren) esparruan, bai zerbitzu kulturaletan ere, hazteko aukera handiak daude, sektorea profesionalizatzeari beste bultzada bat eman dakiokeen heinean. Asti eta aisialdiko jardueren eskakizuna biderkatzeak eta hezkuntzara bideraturiko astian diharduten taldeen errealitateak hezkuntzarako asti hori, parte batez behintzat, profesionalizatzea derrigortu dute.

Hezkuntza Konpentsagarriaren Partzuergoaren barnean, Sailen arteko elkarlanaren eskarmentua eta etorkizunera begirako aukerak, haur eta gazteriaz artatzeko sareen garapenera begira

Hezkuntza Konpentsagarriaren Partzuergoaren barnean erakundeen eta sailen arteko elkarlanaren eskarmentua eta Gipuzkoako heziketa okupazionala garrantzi handikoak dira eta beraien izaera definitzea ondorioztatu dute, tokiko sareen bultzagile eta zerbitzuen arteko koordinatzaile gisa diharduen alderditik, egitura arin batez jardun ere, ezinbestean.

Tokiko garapenezko estrategietan sakondu beharra

Sare eta zerbitzuak artikulatu nahi diren mailari dagokion premietako bat, hiriranzko joera biziegia agertzen duten garapen ereduaren aurrean landa-guneak babestea da, tokiko garapenezko estrategia globalak garatuz, beste eragile batzuen parte-hartzeari esker (ingurugiro alorreko hezkuntza, landa-turismoa, aisialdirako zerbitzuak). Ildo beretik, endekatzen ari diren hirietako zonak berreskuratzeko ahalegina egin beharra dago oraindik ere, tokiko

garapenezko estrategia globalen artean, horietan zerbitzu sektorearen (eta aisialdi, kultura eta antzeko beste zerbitzu batzuen) garapenak garrantzi itzela daukala gogoan izanik.

Ekipamenduen tokiko sarea garatzeko aukerak

Geografikoki ongi banaturiko gazteria gaietarako informazio bulegoen sarea izateaz gainera, badira maila lokalean ekipamenduen oinarritzko sarea antolatzeke aukerak ere. Euskararen Zuzendaritza proiektuaren alde edukitzea ezinbestekoa izango da, hezkuntza-komunitate osoari, auzoari, barrutiari eta gainerakoei zuzenduriko hizkuntza normalizazioaren proiektuen barnean; interesgarria izango da, era berean, Gizartekintza alde edukitzea, sarearen ardatz nagusia zentro publikoak baldin badira eta arrisku edo desabantaila egoeran bizi diren haur eta gazteak gogoan baditu.

Herri Administrazioak eta sektoreko erakunde sozialek elkarlanean jarduteko kultura eta tradizioa

Gazteria Zerbitzu garen aldetik, zerbitzuen kudeaketa gizartearekin elkarlanean gauzatu nahi dugu, gizateriaren heldutasunaren mesedetan eta, Zerbitzuak eskarmentu luzea duelarik, elkarlanaren kultura gara dadin.

Gainerako agentzia espezializatu publiko eta pribatuekin elkarkidetzan jarduteko aukera eta Gazteria Zerbitzuaren aitzindaritza

Zerbitzu honekin beste hainbat agentzia espezializatuk ere harremanak dituzte —eta oraino sendotu behar ditugu—. Agentzia pribatuen aldean, Gazteria Zerbitzuaren bereizgarriak asko dira: arautzeko gaitasuna, bere eskaintza erabat irekia izatea, politikak eta programak sustatzeko baliabide gehiago edukitzea, eta abar. Beste Herri Administrazio batzuen mintzakide jarduteko unean, berriz, oso litekeena da agentzia pribatu batzuek abantaila izatea.

Haur eta gazteei zerbitzuak emateko beste eragile batzuekin elkarlanean jarduteko aukera

Informazio zerbitzuei dagokienez, sareko elkarguneen eginkizunak kudeaketa edo zuzeneko eskaintza publikoa izan beharko luke beti. Hezkuntza ez-formal eta kulturalaren esparruan baliteke beste eragile batzuekin elkarkidetzazko harremanak sortzea izaera publikokoak eta pribatu sozialekoak lehenetsita eta, nolana ere, irabazi-asmoa duen ekimen pribatuaren betekizuna araututa; izan ere, ekimen pribatuarekin ere elkarlanean jardun liteke, interes orokorreko helburuak betetzen baditu, hezkuntza alorreko planteamenduak garatzen badira, populazio osoari esku-hartzeko aukera ematen bazaio, eta abar.

Esparru horretan Kirol Zerbitzuarekiko koordinazioa ere indartu behar da, hezkuntza-kirola garatzeko. Amaitzeko, hezkuntza ez-formalaren eskaintza tokiko sareen eskuetan uztea planteatu liteke, sare eta erakunde horiek sustatzeko lanabes gisa, nola eta noiz egin litekeen aintzat hartuta.

Sustapenezko proiektuei goazkiela, jarduteko erreferenteak sortu baizik ez dira egin oraino; horregatik, kontua da tarteko egiturak eratzea. Emantzipazio zerbitzuen eskaintza, berriz, ez dago batere garatua.

Mugaz bi aldeetara elkarlanean jarduteko aukerak areagotzea

Akitania–Euskadi elkarlanerako fondoa jardueran aritzeak, hezkuntza, kultura eta gazteria alorretako Europako programetako kontu-sailak areagotzeak eta mugaz bi aldeetara elkarlanean aritzeko programen (Interreg 3) garapenak ere Ipar Euskal Herria, Akitania eta Europako beste hainbat eskualderekin elkarlanean proiektuak burutzeko aukerak agertzen dituzte. Adiera horretan, Europako Eskualdeen Biltzarrak (Eurodisea) sustaturiko egintzen barnean ere ekimenak gauzatu ahal izango dira.

4. GAZTERIA ALORREKO POLITIKAREN HELBURUAK

Gipuzkoako 0 eta 29 urte bitarteko haur eta gazteen hazkuntza eta emantzipazio prozesuen mesedetan aritzea, hurrengo bitartez:

- ▶ Hezkuntza-eragileen eginkizuna indartuz eta gaurkotuz.
- ▶ Informazio, hezkuntza ez-formal eta kultura alorretan zerbitzuak garatuz.
- ▶ Haur eta gazteen ekimenak sustatuz.
- ▶ Gazteen emantzipazioa laguntzeko egintzak indartuz

Horretarako, udal edota partzuergoen arduraz antolaturiko eragile, zerbitzu, ekimen eta ekipamenduen tokiko sareen garapena sustatu beharra dago, baliabide eta euskailuen transferentzia eginez eta hainbat zerbitzu emanez, hala nola ikasketa eta argitalpenak, informazio eta dokumentazioa, prestakuntza, aholkularitza eta kontsulta, balioztapen eta kontrola (ikuskaritza), bai zuzenean, bai tarteko egituren bidez, haur eta gazteei bereziki zuzenduriko era guztietako zerbitzuak kudeatuz edo eskainiz, maila lokalean babesik ez daukaten edo gestiona ezin daitezkeen premiei erantzun ahal izateko, Gipuzkoako haur eta gazteen eskubideak aintzat jotzea eta ugaltzea benetako premia direla onartuta.

HELBURUAK LORTZEKO JARDUNBIDEAK:

Haur eta gazteei emandako atentzioaren jarraipena garatzea

1. Nerabe eta gazteentzako informazio zerbitzuak garatzea.
 - 1.1. Informazio sare osoaren diseinu koherentean sakontzea.
 - 1.2. Informazioaren teknologia berriak sartzea.
 - 1.3. Informazioa bideratzea eta antolatzea gazteen ibilbide sozial desberdinen araber.
 - 1.4. Informazioaren sozializaziorako proiektua egin, abian jarri eta ebaluatzea.

2. Hezkuntza ez formalari eta kulturalari buruzko eskaintza egonkorra garatzea.
 - 2.1. Haurrentzako esku-hartze sozio-educatiboak garatzea.
 - 2.2. Nerabe eta gazteentzako esku-hartze sozio-educatiboak garatzea.
 - 2.3. Kulturaren sormenerako, sustapenerako eta zabalkunderako esku-hartzeak garatzea nerabe eta gazteentzat.
3. Haur eta gazteen parte hartzea bultzatzea.
 - 3.1. Haur eta gazteen asoziazionismoa bultzatzea.
 - 3.2. Gazteei beren ekimenak garatzen laguntzea.
 - 3.3. Gazteek proiektuetan, programetan eta politiketan parte hartzeko bideak eta sistemak garatzea.
4. Zerbitzuaren emantzipazio programa diseinatzea eta abian jartzea.
 - 4.1. Helduarora iragaterakoan dauden oztopoak desagerrarazteko programa diseinatu eta abian jartzea.

Haur eta gazte gipuzkoarren artean aniztasuna eta kohesio soziala sustatzea

1. Arrisku egoeran dauden haur eta gazteentzako diskriminazio positiboko neurriak sustatzea.
 - 1.1. Arrisku egoeran dauden haur eta gazteengana informazioa hurbildu eta jarraitzen dituzten ibilbideetara bideratzea.
 - 1.2. Arrisku egoeran dauden haur eta gazteek biztanle guztientzat diren hezkuntza ez formaleko eta kulturalako eskaintzetan parte har dezaten laguntzea.
 - 1.3. Arrisku egoeran dauden gazteek gazteen ekimenetan parte har dezaten laguntzea.
 - 1.4. Arrisku egoeran dauden gazteen emantzipazio prozesuetan bereziki laguntzea.
2. Gizon eta emakume gazteen artean aukera berdintasuna bultzatzea.
 - 2.1. Dokumentazioa, informazioa eta informazio zerbitzuak generoaren ikuspuntutik garatzea.
 - 2.2. Hezkuntza ez-formalaren eremuan, berdintasunerako hezkidetzako eta hezkuntzako estrategiak garatzea.
 - 2.3. Gazteen asoziazio mugimenduan emakumeen behar bezalako ordezkariak bultzatzea, baita emakume gazteek gazteen ekimenetan parte har dezaten sustatzea ere.
 - 2.4. Emantzipazio garaian aukera berdintasunari lagunduko dioten ekintzak garatzea.
3. Euskal nortasun konpartitua garatzea eta gaur egun zein iraganen ahulenak diren elementu kulturalak zaintzea.

- 3.1. Informazioa eta dokumentazioa euskaraz eta gazteleraz bermatzea.
- 3.2. Hezkuntza ez-formalaren eremuan hizkuntza normalizazioa sustatzea.
- 3.3. Migrazio-fluxu berriek haur eta gazte gipuzkoarren nolako aldaketak eragiten dituzten hausnartzea.
- 3.4. Gazte gipuzkoarrek Hezkuntza, kultura, gazteria eta mugaz gaindiko kooperazioari buruzko programa europarretan parte har dezaten bultzatzea.

Haur eta gazteen arretarako tokiko sareak garatzea

1. Sistemen arteko kooperazioa garatzea.
 - 1.1. Sareko lana sustatzeko gazteria teknikari edo arduradunekin berariazko lana egitea.
 - 1.2. Sistemen arteko kooperazioan proiektuak sustatzea.
 - 1.3. Kooperaziorako sistema eta egiturak gauzatzea poliki-poliki.
2. Tokian-tokian ingurune irekiko hezkuntza eragileek garatutako esku-hartzeen diseinu koherentea egiten hastea.
 - 2.1. Eskolarako hezkuntza ez formaleko programa diseinatzea, tokian-tokian garatzekoak diren hezkuntza ez formalerako sareen garapenaren barruan.
 - 2.2. Nerabegarotik hasi eta adinez nagusi izan eta gero ere, arrisku egoeran dauden gazteekin esku-hartzean lagundu.
3. Gazteria Politikaren eredia ezartzeko ekintzak sustatzea.
 - 3.1. Hausnarketarako mintegiak eta lantaldeak garatzea adostasun teknikoa ezartzearen.
 - 3.2. Emaitzak sozializatzea maila politikoan.

Gazteentzako zerbitzuen eta ekipamenduen tokiko sare espezifikoak garatzea eta artikulatzea

1. Gipuzkoa osoan gazteentzako berariazko sarea garatzea, eskualdeka dauden beharrei erantzunez.
 - 1.1. Dauden beharrak aztertzea udalka eta eskualdeka.
 - 1.2. Sarearen diseinua egitea eta eredu gisako esperientzia batzuk martxan jartzea.
2. Udalekin eta beste toki erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko bideak, sistemak eta tresnak garatzea.
 - 2.1. Zerbitzuaren lanaren fase guztietan udalekin elkarrizketa aktiboa ezartzea.
 - 2.2. Lurralde-eremu desberdinen arabera, tokiko sarearen garapenerako eredu-tipologia ezartzea.

- 2.3. Udalen eta Gazteria Zerbitzuaren artean lankidetzarako formula zehatzak ezartzea.
3. Haur eta gazteentzako oinarrizko ekipamenduak garatzea.
 - 3.1. Haur eta Gazteentzako Ekipamenduen Foru Plana diseinatu eta garatzea.
 - 3.2. Gazteentzako Informazio Bulegoak berriro diseinatu eta bideratzea, udaletan gazteentzako ekintzen garapenaren ardatz izan daitezen.
 - 3.3. Haur eta gazteentzako aterpetxe eta ekipamendu sarea garatzea Gipuzkoan, eskualde mailako erreferente gisara.
4. Eragileen profesionalizazioa eta zerbitzuen kalitate hobea bultzatzea.
 - 4.1. Eragileak teknifikatzeko ekintzak diseinatu, abian jarri eta ebaluatzea.
 - 4.2. Zerbitzuen kalitatea hobetzeko ekintzak diseinatu, abian jarri eta ebaluatzea.

Erakunde eta sareentzako zerbitzuen jarraipena garatzea

1. Erakunde eta sareentzako zerbitzuen eskaintza zuzena garatzea.
 - 1.1. Arlo honetako helburu, programa eta zerbitzuen definizioan sakontzea.
 - 1.2. Profesionalak prestatzea.
 - 1.3. Lan tresna eta materialak diseinatzea.
2. Erdi mailako egituretan laguntzea (koordinakundeak, astialdiko eskolak, udalaz gaindiko erakundeak...)
 - 2.1. Dagoeneko dauden egiturak identifikatzea eta horiekiko elkarriketa aktiboa ezartzea.
 - 2.2. Lankidetzarako eredu eta sistema helduak eta orekatuak artikulatzea.

Zerbitzuaren kudeaketa ildo estrategiko berrietatik eratorritako beharretara egokitzea

1. Zerbitzuaren plangintza sistema garatzea.
 - 1.1. Berariazko ikerketak eta ikerketa orokorrak Zerbitzuaren programazioarekin eta ondorengo ebaluazioarekin lotzea.
 - 1.2. Esku-hartze eta kudeaketa planak diseinatzea eta eguneratzea.
2. Zerbitzuaren egitura moldatzea eta dauden eskumenak beharretara egokitzea.
 - 2.1. Zerbitzuaren egitura aldatzea eta profesionalen eginbeharrak berriro definitzea.
 - 2.2. Helburuen araberako zuzendaritza sistemak sartzeta eta eskumenak ebaluatzea.
 - 2.3. Barne koordinaziorako sistemak berriro definitzea.

- 2.4. Prozesuak, programak eta proiektuak pixkanaka gauzatzea.
- 2.5. Zerbitzuaren prestakuntza plana diseinatu, martxan jarri eta ebaluatzea.
- 3. Baliabide material eta ekonomikoak beharretara egokitzea.
 - 3.1. Aurrekontuaren etengabeko gehikuntza kudeatzea.
 - 3.2. Babes eta mezenasgo plana garatzea.
 - 3.3. EBren baterako finantzaketarako aukerak aprobeztatzea.
 - 3.4. Dagoeneko dituen ekipamenduak hobetzea, beharretara egokituz.
- 4. Haur eta gazteria arloan erreferentzia ardatz bilakatu Gazteria Zerbitzua.
 - 4.1. Komunikaziorako estrategia koherentea diseinatu, martxan jarri eta ebaluatzea.
 - 4.2. Lankidetzarako sarea handitzea eta sendotzea (toki erakundeak, erdi mailako egiturak, parte-hartze organoak, erakunde eta sareei zerbitzuak ematen dizkieten beste erakunde batzuk, erakunde babesleak).

5. HELBURUAK LORTZEKO EGIN BEHARREKO PROGRAMAK

5.1. *Gazte Planean jasotako ekintzak*

KULTURA

- 5.3.2 Kultura Ekintzak antolatzea
- 5.5.1 Literatura sorkuntzarako bekak
- 5.5.1 Ikus-arterako bekak
- 5.5.1 Antzerkigintzarako bekak
- 5.5.1 Dantzarako bekak
- 5.5.1 Musikagintzarako bekak
- 5.5.1 Nicanor Zabaleta beka
- 5.5.1 Artista Berrien Lehiaketa
- 5.5.1 Dokumentazio Zentroa
- 5.5.1 Tokiak, baliabideak, ekipamenduak eta zerbitzuak uztea artista, kultura eragile eta erakundeentzat.
- 5.5.1 Ikastaroak, tailerrak eta mintegiak
- 5.5.2 Art-e-fact
- 5.5.4 Liburutegiko kontsultarako sistema egokitzea
- 5.5.6 Lotura daukaten beste proiektuak

GAZTERIA

- 3.2.1 “Gazteen gaixotasunak” direlakoei eta horiek prebenitzeko Gaztemiraren barruan garatu beharreko estratēgiei buruzko azterlana.
- 4.3.2 Hezkuntza ingurune irekian
- 4.3.4 Arrisku egoeran dauden gazteentzako prestakuntza
- 4.3.4 Desabantaila sozialean dagoen gazteria Gaztemiraren barruan sartzeari buruzko azterlana argitaratzea eta zabaltzea
- 5.1.1 Astialdi Foroa laguntzea eta bultzatzea
- 5.1.2 Elkarteei baliabideak eta azpiegiturak transferitzea
- 5.1.2 Gazte Erakundeentzako Baliabide Zentroa
- 5.1.2 Erakundeentzako banaketa zerrenda.
- 5.1.3 Aisialdiko eskolei laguntzeko programa
- 5.1.3 Elkarreentzako aholkularitza eta prestakuntza programa
- 5.1.4 Hezkuntza ez-formalaren tokiko sarearen eredia garatzea
- 5.1.6 Elkarteei babesa emateko pizgarri fiskalak zabaltzea.
- 5.2.1 Udalantzako laguntzak bulego eta informazio guneetarako
- 5.2.1 Udalekiko harremanetarako sistema, informazio sistema mantentzeko
- 5.2.4 Udal teknikarientzako prestakuntza mintegia ekipamendu sozio-kulturaleri buruz
- 5.2.4 Ekipamenduen kudeatzaileentzako prestakuntza programa
- 5.2.5 Ekipamendu sozio-kulturalen Foru Plana.
- 5.2.6 Gazte Planaren Lurraldeko Bulego Teknikoa
- 5.2.6 Gazteria zinegotzi eta teknikarientzako prestakuntza
- 5.3.1 Udalen ekintzen monitorizazioa
- 5.3.2 Gazteklik
- 5.4.2 European Youth Observatory delakoan parte hartzea
- 5.5.1 Musika Gida
- 5.5.1 Gaztemaniak
- 5.5.3 Gaztemira
- 5.5.5 Gazte etorkinen sozializazioari buruzko ikerketa

EUSKARA

- 5.6.1 Normalizazio Plana garatzea
- 5.6.3 Teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzea

KIROLAK

- 5.7.2 14 eta 18 urte bitarteko gipuzkoarren kirol ohiturak

5.7.3 “Jolastea irabaztea da” eta “dopatzeari buruzko hezkuntza gazteentzat”

5.8.3 Itxaso proiektua

Aurrekontua 3.425.577,24 €

EKINTZA SOZIALA

4.3.2 Txaboletan bizi direnei zuzendutako esku-hartze espezializatua

4.3.3 Gizarteratze Planaz eztabaidatzeko eta jarraipena egiteko taldeak

4.3.4 Gazteak emantzipatzeko etxebizitzak

Aurrekontua: 120.713 €

LEHENDAKARITZA

1.2.1 Lan Eskaintza Publikoaren bitartez lanpostu berriak sortzea

NEKAZARITZA

1.4.8 Gazte izatearen irizpidea lehenesten duten ustiategientzako laguntzak

1.4.9 Nekazari gazte baten lehenengo instalaziorako laguntzak

1.4.9 Ustiategien hobekuntzan inbertitzeko laguntzak

1.4.9 Nekazaritza ustiategia garaia baino lehen bertan behera uzteko laguntzak

1.4.9 Prestakuntza bekak emateko laguntzak

Aurrekontua: 145.007 €

OGASUNA

1.1.1 Gazteen kontratazioa sustatzeko mekanismo fiskalak eratzea

1.4.4 Autoenpleguari laguntzeko neurri fiskalak

3.1.2 Etxebizitzak alokatzeko laguntzak

3.1.6 Etxebizitza-kontuaren baldintzak hobetzea

EKONOMIA

1.1.2 Laneratze-txekea

1.4.1 Txeke-ekin TXEKIN

1.4.8 Dauden laguntzak gazteei hurbiltzeko mekanismoak

1.5.2 Enpleguaren Planaren barruan enpleguaren kalitatearen irizpidea sartzea

2.1.5 Prestakuntza zikloetan matrikulen kopurua handitzeko ekintzak garatzea

2.3.1 Etorkinek prestatzeko eta lan duina izateko daukaten eskubideari buruzko sentiberatze kanpainak

Aurrekontua: 2.472.000 €

GARRAIOAK

4.1.2 Gaueko garraio zerbitzua

Aurrekontua: 318.270 €

5.2. II. Gazte Planean jasota ez dauden ekintzak

1. KUDEAKETA PROGRAMAK

1.1. Helburuak, plangintza eta programazioa

1.1.1. Zerbitzuaren plangintza estrategikoa

1.1.2. Gazteria politikei buruzko hausnarketa

1.1.3. Zeharkako ildoek buruzko hausnarketa

1.1.8. Legeria

- Zerbitzuak zuzenean kudeatzen dituen zerbitzuei aplikatu dakiekeen araudia aztertzea
- Gazteriarik aplikatu dakiekeen legeriaren bilduma egitea

1.3. Baliabide ekonomikoak kudeatzea

1.3.3. Inbertsioak

- Hondarribiako aterpetxea berritzea
- Segurako aterpetxea berritzea
- Zarauzko aterpetxea berritzea
- Gazteguneko oztopo arkitektonikoak kentzea

1.4. Komunikazioaren kudeaketa

1.4.1. Komunikaziorako estrategia

1.4.2. Web orria eta Zerbitzuen Gida

1.4.3. E-gipuzkoa plana

1.4.4. Komunikabideekiko harremanak

- Gaztegiro-ren programazioa
- Hitzarmenak komunikabideekin

1.5. Harremanen kudeaketa

1.5.1. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

1.5.3. Eusko Jaurlaritza

- Gazteen Euskal Behatokiarekiko harremanak
- Gazteria Legearen zirriborroan esku-hartzea

1.5.5. Europa

- Gazteria programa zabaltzea

- Akitaniarekiko harremanak gauzatzea

1.5.8. REAJ eta IYHF

2. ERAKUNDE ETA SAREENTZAKO ZERBITZUAK

2.1. Dokumentazioa eta informazioa

2.1.1. Dokumentazio eta informazioaren programari buruzko hausnarketa

2.1.2. E-gaztemira zerrenda

2.1.4. Ikerketak eta azterlanak

2.1.5. Adierazle estatistikoak

3. HAUR ETA GAZTEENTZAKO ZERBITZUAK

3.1. Hezkuntza ez formalari eta kulturalari buruzko programak

3.1.1. Hezkuntza ez formalari buruzko hausnarketa

3.1.2. Gazteen kulturari buruzko hausnarketa

3.1.3. Udako programak

3.1.6. Hire Esku programa

3.2. Gazteen hezkuntza programa

3.2.1. Gazteen informazioari buruzko hausnarketa

3.2.2. Inkestak, ebaluazioa eta memoria

3.2.3. Gazteen informaziorako lurralde sarea

3.2.3.2. Koordinazioa

3.2.3.3. Informazio zerbitzuen aintzatespena

3.3. Sustapen programa

3.3.1. Sustapen programari buruzko hausnarketa

3.3.1.1. Asoziazionismoa

-Banaketa telematikorako zerrenda bat abian jartzea

3.3.1.2. Parte-hartzea

3.3.1.3. Boluntarioak

3.3.2. Aisialdiko Eskolak

-Aisialdiko eskolekin eztabaida foroa abian jartzea

3.3.2.1. Proposamenak, ikastaroak eta tituluak

3.3.3. Udaletako elkarteak

- "Elkarteen mintegia" delakoa diseinatzea eta abian jartzea

- Haur eta gazte etorkinak aisialdian sozializatzeko estrategia definitzea

3.4. Emantzipazio programa

3.4.1. Emantzipazio programari buruzko hausnarketa

- Droga menpekotasunean esku-hartzeko estrategia definitzea
- Prestakuntzan esku-hartzeko estrategia definitzea
- Etxebizitzan esku-hartzeko estrategia definitzea
- Trafiko istripuetan esku-hartzeko estrategia definitzea
- Gazteen artean genero berdintasunaren alde esku-hartzeko estrategia definitzea
- Elikadura arazoak dituzten gazteengan esku-hartzeko estrategia definitzea
- Sexualitatearen inguruan esku-hartzeko estrategia definitzea

4. AZPIEGITURAK

4.1. Aterpetxeak

4.1.1. Gipuzkoako aterpetxeei buruzko hausnarketa

- Gipuzkoako aterpetxeei buruzko azterketa eta aterpetxeen mapa diseinatzea
- Aterpetxe “eredu” bat definitzea

4.1.2. Aterpetxeen erabiltzaileak

4.1.3. Foru aterpetxeen kudeaketa

4.1.4. Aterpetxeen aintzatespena

4.2. Ekipamenduak

4.2.1. Ekipamenduei buruzko hausnarketa

4.2.1.1. *Haur Txoko* definitzea

4.2.1.2. *Gazteleku* definitzea

4.2.1.3. *Gaztetxea* definitzea

4.2.1.4. *Ekipamendu espezializatua* definitzea

6. EBALUAZIOA

II. Gazte Planean jasotako ekintzak Planaren Idazkaritzak proposatutako ereduaren arabera ebaluatuko dira.

Gazteria Politikan jasotako gainerako ekintzak ere ebaluatu egingo dira eta horretarako nolako programa edo ekintza izan, halako ebaluazio tresna erabiliko da.

6.1. Programen erabiltzaileei zuzendutako inkestak

Haur eta gazteentzako arreta zuzeneko programak (Gazteentzako Informazio Zerbitzuak, udako jarduerak eta aterpetxeen erabiltzaileak) inkestaren bitartez ebaluatuko dira. Zerbitzu horien erabiltzaile guztiei inkesta bat banatuko zaie jasotako zerbitzuari buruzko iritzia biltzeko asmoz.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteria Zerbitzuak ustiatuko ditu inkesta horien datuak. Emaitzekin, urtero txostenak egingo dira eta aurreko urteetako emaitzekin alderatuko dira.

6.2. Agiriak eta txostenak

Zenbaitetan, programatutako ekintzak burutzea agiriak eta ikerketak eta beste egite-
ra mugatuko da. Beste zenbaitetan, ekintza gauzatzea arauetan eta agiri teknikoetan islatuko da.

6.3. Urteko memoria

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteria Sailak urtero txosten bat prestatzen du. Bertan, lehen aipatutako ebaluazio tresnen bitartez, Zerbitzuaren ekintzaren jarraipen eta ebaluazio orokorra egiten da.